

Hizkuntza-aldaeren lekua eta eragina EAEko eskola-munduan

MIKEL ZALBIDE

Euskaltzaindia. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Sarrera gisa

Modan ez dagoen gai batez jardungo dugu gaurkoan. Oihartzun mugatua du gaiak hezkuntza-alorreko arduradunen, eragileen, profesionalen eta iritzi-sortzaileen artean. Hizkuntza-aldaeren¹ lekua eta eragina agenda eskolarretik kanpora dago. Ezer gutxi esaten da horretaz, ezer esaten bada, hezkuntza-mundua arautzen duten lege, dekretu eta aginduetan. Unibertsitate- edo ikerketa-alorreko aditu gutxik aztertzen du, bestalde, hizkuntza-eredu bateratuen eta aldaera jakinen arteko trataera eskolar egokiena zein den. Beste arazoez, eta arazo horiei aurre egiteko beste hurbilbide metodologikoez, dute pedagogoen artean lehentasuna. Gutxi dira, oro har, hizkuntza-aldaeren eskola-trataerari behar adina lan-denbora, emozio-ahalmen eta esfortzu intelektual eskaintzen diotenak.

Modan ez dagoen gauza batez jardutea ez da, berez, arbuigarri: zer aztertzen den, azterlana zer kalitatez eta zer dedikazioz egiten den eta,

¹ *Aldaera* zer den, eta zer ez, ez gara hemen zehatz-mehatz definitzen hasiko: auzo-hizkuntza nagusietako *variedad* (*lingüística*), *variété* (*linguistique*), *variety*, (*Sprach*)*varietät* direlakoan parekotzat ematen da hemen *aldaera* hitza, beti ere kontzeptu soziolinguistikoko horren adierasmultzo zabalena hobetsiz. Eskuaratean dugun xederako, *aldaerak* diogunean hiztun jakinaren errepertorio berbala, bere mintzaera-sorta, osatzen duten forma guztiak hartu nahi dira kontuan: bai lekuan lekuko mintzaerak, bai euskalki literarioak, bai nafar-lapurteraren edo gipuzkera osatuaren gisako estandar supradialektal baturanzkoak eta bai, azkenik, euskara batua bera. Baita euskara molde garbiak eta ez hain garbiak (euskara mordoiloa) ere, norbanakoaren ezaugarri puntual izatetik hiztun-talde jakinen mintzamolde zabal eta hein batean egonkor (eta horrenbestez, belaunez belauneko transmisio-gai) bihurturik dauden neurrian. Ez dugu hemen, sakontasun-maila berberaz bederen, egungo euskal hiztuneko edozein situaziotan eta edozein jardun-gunetan, rol-harreman jakinen arabera, ageri dituzten aldaera guzti-guztiaz jardungo. Eskola-munduan era batera edo bestera presente dauden aldaerak izango ditugu aitzitik, unibertso zabal horretan, berariazko aztergai.

azkenik, lanketa horrek zer hobekuntza eragin dezakeen gizarte-bizitzan (kasu honetan hezkuntza-munduan), hori da benetan inporta duena. Modak moda izanik ere badago motibo sendorik, hizkuntza-aldaeren eskola-munduko lekuaz eta eraginaz geure buruari galdezka jarduteko. Gaiak badu garrantzirik, hasi berria dugun mende honetan ere: txostenean agertuko den zenbait datuk horren lekukotasuna eskaini nahi luke. Modernizazio-prozesuak, eta horren eskutik datozen mugikortasun geografikoak, hiritartzeak, ezkontzaz zein lanbidez lehen baino urrunagoko (askotan euskalki-mugez haraindiko) harreman-sare arruntak eratzeak, idatzizko jardunak eta ikus-entzunezko komunikabideen (oro har IKTen) leher-etzandak lausotu eta hutsaldu egin dute nabarmen, indartu ordez, hizkuntza-aldaeren (batez ere euskalkien) lekua eta eragina. Lehen ez bezalako oinarri demografiko, soziokultural, ekonotekniko eta politiko-operatiboak ditu hiztun-elkarteen bizibide berriak. Berrikuntza horrek gogor erasan ditu lekuan lekuko aldaeran oinarrituriko hizkera-molde informal eta intimo tradizionalak: aldaera arteko (ez aldaera bereko) solaskidez eratzten dira, gero eta maizago, euskaldunon arteko harreman-sareak eta jarduera-moldeak. Goazen bidetik goazela badago motiborik, ahultze-kontu horrek aurrera egingo duela uste izateko.

Jarduera soziokultural bat ahulduz eta gesalduz joatea gauza bat da ordea, eta zeharo desagertzea bestea. Ez da azken hori, oraingoz behintzat, begien bistan ageri. Aurrerago azalduko diren datuen argitan presente daude hizkuntza-aldaerak euskal hiztun askoren artean: baita irakasle askoren (batez ere etxetik euskaldun diren irakasle gehienek) errepertorio berbalean ere. Ez gara galtzeko zorian dagoen gertakari soziolinguistiko bitxi batez ari beraz, euskara bizirik dagoen ingurumen gehienetan eguneroko praxi arrunta den kontuaz baizik. Modan ez egon arren badu garrantzirik, horrexegatik, eskola-munduko zenbait adituk hizkuntza-aldaeren lekuaz eta eraginaz egi-ten duen gogoetak.

Nazioarteko perspektiba historikoa hor dago, bestalde. Orain ahazturik badugu ere garrantzi handia izana du hizkuntza-aldaeren eskola-trataerak Europan: kontinentearen iparrean, erdialdean eta mendebalean besteak beste². Eskandinaviako hizkuntza-bilakaerak oro har, eta eskola-munduko aplikazio-moduak bereziki, argibide ugari emango liguke³. Norvegiera bien

² Ikus Anton M. Hagen-en 1987ko “Dialect Speaking and School Education in Western Europe”, in *Sociolinguistica* 1, 61-79.

³ Ikus, hiru hizkuntza-esparru nagusietarako, Bengt Loman 1988: 209-31.

historiaz eta garapen-bideaz ezer gutxi dakigu. Dakigun neurri apalean argi ikusten da, halere, funtsezko puntua dutela dialekto kontutik harantzago doan bertako aldaera bien garapen konbergentea zein autonomiaranzko *Sprachpflege* edo *Ausbau*-lana. Aparteko garrantzia izana du mende luze batez, eta orain ere presente dago hainbatean, *bokmål* (lehengo *riksmål*) eta *nynorsk* (hasierako *landsmål*) aldaeren eskolaratze-bidearen eztabaida eta antolamendu instituzionala. Alemaniako hezkuntzaren historia soziokulturalaz eta linguistikoaz dakigun apurrak ere kontuan hartzeko zerbait erakusten digu: aparteko garrantzia izana du bertan, bigarren mundu-gerrara bitartean bereziki, *Mundart* (iparraldeko *Plattdeutsch* eta hego-mendebaleko alemandialektoa bereziki) eta *Hochdeutsch* (batez ere *Allgemeine Schriftsprache*) di-relakoen arteko bereizkuntzak eta elkar hartuzko trataerak⁴. Lekuan lekuko aldaeren eta hizkuntza-eredu bateratuaren eskola-trataerak aparteko eragina du, orobat, Suitzan⁵, Luxemburgon⁶ eta Flandrian⁷. Ele arteko zein ele barmeko elebitasun-gune tradizionalak alde batera utziz, bestalde, Ingalaterrako bibliografia soziolinguistikoaren berri duenak ondo asko daki, Trudgill eta beste zenbait aditu gogoan izanik⁸, garrantzizko aztergaia dela orain ere kontu hori. Zer esanik ez Hong Kong moduko ingurumenetan, ingelesaren al-

⁴ Ikus, beste askoren artean, R. Hildebrand 1867 eta V. Schirmunski 1930. Geroztik ere badu gaiak Alemanian, bibliografia teknikoaren argitan, bere garrantzia Ikus, adibidez, U. Ammon 1983, 1989 eta U. Ammon, (arg.) 1979; J. Macha 1981; L. G. Zehetner 1977.

⁵ Ez frantses-hizkuntzako Suitzan, ia hilik baitira han bertako patois-hizkerak aspaldidantik. Bai ordea, partez, italiarazko zatian eta, aski era diferentean baina nabarmen, erretorroman-txezkoan eta, bereziki, aleman-hizkuntzako Suitzalde nagusian. Azken eskualde honi dagokionez, aleman batuaren eta aldaera suitzarren arteko uztardura aski ezaguna da. Ahozkoan bertako *Schwiizertütsch* (*Schwiizerdütsch*, *Schweizerdeutsch*) da jaun eta jabe jardun-gune eta rol-harremant gehienetan. Konkretuki, *Schwiizertütsch* horren aldaeraren bat. Lau mailatan sailkatu izan dira aldaerok (Ris, 1979, 51 hurr.): a) aldaera lokal-isolatuak, b) eskualdeko aldaerak (adib. Bernako *Oberland*-Goierrikoa), c) eskualdez gaindiko aldaera (adi. *Landberndeutsch*) eta d) orotariko aldaera, Schuchardt-en hitzez esanik *Ausgleichsdialekt* (adib. *Zürichdeutsch*). Idatzizkoan, berriz, hor dago aleman batu edo *Hochsprache* delakoa. Egia da azken hogeita hamar urteotan aldatzen hasiak direla kontu horiek ere. Eskuaratean dugun xederako aski da, ordea, R. Ris-en 1979ko azalpen klasikoarekin.

⁶ *Letzeburgesch* delakoak idatzizko lanketa du Luxemburgoko eskoletan, alemanak (eta frantsesak) dutenaz gainera.

⁷ Lekuan lekuko flamenko-aldaerak eta holandes batuak Flandrian (baita, partez, Holandan) oro har, eta hezkuntzan bereziki, duten banaketa soziofuntzionalaz eta trataera instituzionalaz ikus, adibidez, P. Van de Craen 1977, P. Van de Craen eta R. Willemyns (arg.) 1985 eta M. Verbruggen et al 1985.

⁸ Ikus, adibidez, P. Trudgill-en 1975eko *Acent, dialect and school*, R. W. Shuy, (arg.)-ren 1964ko *Social dialects and language learning* eta W. A., Stewart, (arg.)-ren 1964ko *Non-standard speech and the teaching of English*.

daera bi, hiru edo gehiago⁹ elkarren ondoan bizirik daudenetan. *Multilingual* eta, are, *multivariety setting* dira, sarri asko, horrelako ingurumenak.

Kontuok errazegi eman ohi ditugu gainditutzat. Euskararen eta erdararen (erdaren) arteko kontsiderazio interlinguistikoetan zentratzen gara sarri, azterbide intralinguistikoak (hizkuntzaren baitako aldaerei dagozkienak) alde batera utziz. Badago motiborik, nola ez, kontsiderazio interlinguistikoei atentzio berezia, are lehentasunezkoa, eskaintzeko. Guztia ez da ordea, urrundik ere, euskara-erdaren arteko auzia. Euskararen barneko gorabeherak, bere baitako aldaeren kontuak, hor daude orobat. Garrantzia dute kontsiderazio intralinguistiko horiek ere, hizkuntzaren osasuna baldin badugu gogoan. Ez dira beraz ahaztekoak. Ez, behintzat, hezkuntza-munduan. Pirinioetako hizkuntzen Kongresu batean bildurik gaudelarik, jakina, berariazko lekua du aldaeren traetaerak. Okzitania zabalean gaskoiak duen estatus linguistikoak, edota aragoieraren egungo izaerak, nekez aldaeren kontsiderazio teknikoetatik aparte behar bezalako perspektibarik eskura dezakete. Euskaldunok ere ondo bekokian iltzaturik daramagu hizkuntza-aldaeren arrastoa. Perspektiba historikotik ari bagara, jaio berria dugu euskara batua; aspaldi-aspaldiko gertakari soziohistoriko eta geografiko funtsezkoak ditugu, aldiz, euskalkiak.

Are gehiago: azterketa intralinguistikoaren kontua ez da euskara batuaren eta euskalkien edo lekuan lekuko aldaeren artekoa bakarrik. Halliday-ren eta abarren aspaldiko terminoez baliatuz¹⁰, jakin badakigu “users variety” horien ondoan “uses variety” direlakoak ere hor daudela. Eskola-esparruan osatuz eta zabalduz doan idazmolde formal-espositiboa, terminologiaz zein osaera morfosintaktikoz ikasle-irakasle gehienen eguneroko mintzamolde arruntetik harranzko hainbat nabardura dituena, oso kontuan hartu beharrekoa dugu egungo gertaeren berri zuzena izan nahi badugu: eskolako euskara “berezia” da hainbatean, eta berezitasun hori ez zaio soil-soilik batasun-ereduari zor. Hemendik kanpora ere teknolekto (edo teknolekto-sorta) modukoa eratzen dute, sarri, eskola-hizkerek: batez ere adin batetik gorako ikasleekin diharduten irakasleen hizkera- eta idazkera-moldeek¹¹. Egungo euskara batuak bere bai-

⁹ Hots, Ingalaterrako ingeles koloniala, II. mundu-gerraz geroztik gogor hedaturiko ingeles amerikarra, indiarra, eta australiarra.

¹⁰ Ikus horretarako M. A. K. Halliday, Angus McIntosh eta Peter Strevens, 1964: *The Linguistic Sciences and Language Teaching*.

¹¹ Aldaera horren egiturazko ezaugarri orokorrak direla-eta ikus, adibidez, Zalbide 1993. Ikasmaterialen alorrean pausoz pauso osatzen ari den estilo-liburuak erakusten du ongien, teknolektozko aldaera horren hainbat zertzelada konkretu: interferentzien trataera, topo- eta antroponomastika eskolarra, eskola-munduko teknolektoen terminologia espezifikoak, ortotipo-

tan dituen aldaeren kontura garamatza horrek: aldaera estandar nagusiaren azpi-aldaeretera alegia. “Euskara batua” esaten dugularik, izan ere, aldaera finko, aldagaitz batez ari baikina jarduten dugu sarri; eredu bakar eta uniformizat hartzen dugu euskara batua. Eguneroko gizarte-bizitzan gauzak ez dira ordea horrela. Egia da euskara batuaren oinarritzko konfigurazioa aski eginik dagoela jadanik, diseinuari dagokionez¹². Hori bezain egia da, ordea, batuaz diharduen hiztun- eta idazle-jendeak “egin behar lukeen hizkuntza”ri ez baina “benetan egiten duen”ari begiratzen bazaio¹³ euskara batu bat baino ondotoz gehiago daudela gure artean. Motibo jakinak ditu aniztasun horrek: ama-hizkuntza euskara dugun ala erdara, etxetik euskaldun garenok umetan zer euskalki ikasia dugun, gaztetan jasotako prestaera akademiko-profesionala, azken urteotan non bizi garen eta norekin, zer lanbide dugun eta zer-nolako lankidez inguraturik gauden, hitzez ari garen ala idatziz, zertaz dihardugun eta norekin, ... Funtsezko parametroak dira horiek guztiak, gaur egun gure artean egiten diren “euskara batu” diferenteez jabetzeko¹⁴. Aniztasun zabala sortzen dute, praktikan, bereizbide horiek guztiek. Aniztasun edo malgutasun horri ez ikusia egiten saiatzeak ez gaitu jakitunago bihurtzen. Ez linguistika alorrean eta ez, bereziki, soziolinguistikaren sailean. Anlisi intralinguistikoa ere hizkuntza-soziologiaren aztergai da.

Hizkuntza barneko anlisi molde horri heldu nahi diogu gaurkoan, muga jakinei eutsiz. Hezkuntza-alorrean jardungo dugu batez ere, beste esparruak (produktzio eta kontsumo kulturala, administrazioa, komunikabi-deak eta abar) axal-axaletik landuz. Hezkuntza-mundua bera ere ez dugu osorik arakatuko. Haur Hezkuntzatik hasi eta Unibertsitate atarirainoko kontuez arduratuko gara, goi-mailako irakaskuntza alde batera utziz. Esparru fisiko-territorialari dagokionez, bestalde, EAEko egoera aztertuko dugu nagusiki: horkoak dira, hamarretik bederatzi, eskueran ditugun datuak; bibliografia teknikoaren aipamen gehienak ere bai. Perspektiba historikoari dagokionez eta egungo zenbait zertzeladatan, azkenik, Euskal Herri osoko ikuspegiari eutsiko diogu.

grafia eta beste hainbat esparru horren lekuko argi ditugu. Bere bidea egiten ari da, azken hamarkadotan, idazmolde (eta, horren eraginez, mintzamolde) espositibo-formaleko aldaera berezi hori. Urrun dago oraindik, ordea, luze-zabaleko erabilera bateratutik.

¹² Orduan ere gauza bat da euskara batu minimoa, eta beste bat maximoa. Ikus Alan King 1983 eta 1993.

¹³ Begiratze-lan hori gabe alfer-alferrik ari gara corpus-plangintza gora eta corpus-plangintza behera: egiten dena esistitzen da gizarte-bizitzan, ez “egin behar litzatekeena”.

¹⁴ Ikus Alan King ibid.

Gatozen beraz, besterik gabe, harira. Sei ataletan banatuko dugu gaurko azalpena: a) aurrekari historikoak; b) Euskaltzaindiaren ekarpena 1968tik 1978ra; c) Herri-aginte berrien posizio ofiziala 1979tik 1982ra; d) azken mende-laurdenean egindako saio praktikoa; e) saio horren balioespena, eta f) aurrera begirako zenbait gogoeta.

I. Aurrekari historikoak

Bi aldi edo une har litezke gogoan, aztergaiaren sailkapen-irizpide hoberik ezean, hizkuntza/eskola bikotearen analisi intralinguistiko horri perspektiba historikotik heltzeko orduan: batetik menderik mendeko ibilera, 1900 ingurura artekoa; bestetik xx. mendearen lehen bi herenak. Euskaltzaindiaren ekarpena, 1968an Arantzazun egindako biltzarrekoa eta 1978ko azteraldikoa, ez dugu gaurkoan aurrekari historikotzat hartuko. Are gutxiago ekitaldi haien ondorena (azken hiru hamarkadak): gure aldia osatzen dute horiek, nolazpait esan.

I.1. Eskolako euskara moldea 1900 arte

Leku meharra, mugatua eta subordinatua izan du euskarak eskolan, oro har, hainbat mendez. Hori da Euskal Herriko historia soziokulturalaren osagai nagusietako bat. Mehar-mugatu izanak ez du esan nahi, halere, ezereza edo hutsaren hurrengoa izan denik beti. Inoiz baino gehiagotan seinalatu denez, ikasbide eta ikasgai izana da euskara, mende joanetan¹⁵. Batean (ikasbide lanean) zein bestean (ikasgai gisa) trataera idatzia ere izan du euskarak eskolaketan horretan: ahozko jardunaren osagarri izan da gehienetan idazketa hori; ahozko jardun horren iturburu ere izana dugu, halere, zenbait kasutan¹⁶. Zer euskara moldez baliatu izan da eskola horrelakoetan? Euskarazko jardun mugatu horretan nola ari izan dira gure maisu-maistrak ahoz, eta nola irakurtze-idazte lanetan, 1900 arte? Zer mintzamoldez eta zer euskara-molde idatziz baliatu izan dira gela barruan, euskaraz jardun izan duten kasuetan?

Ahozko jardunari dagokionez, ez dugu dokumentazio landu handirik galdera horri zehazki erantzuteko. Badago zehar-argitasunik, ordea, uste izateko

¹⁵ Ikasbide izateari dagokionez ikus, adibidez, Zalbide 1990. Ikasgai izateaz denaz bezainbatean ikus, adibidez, Zalbide eta Muñoa 2006.

¹⁶ Batez ere dotrinetan.

lekuan lekuko hizkera-moldea edo, halakorik ez zenean, euskalki bereko beste aldaeraren bat izango zela maisu-maistren adierazpide eta, horrenbestez, ikasleei eskainitako euskararen eredu nagusi. XIX. mendearen lehen hereneko eskola-jarduerari dagokionez, esate baterako, badakigu irakasle berriak kontratazkeko orduan eskualde bereko kandidatuak izaten zirela gehienak eta, beraz, euskalki barneko muga-barrutian mugituko zela irakaslearen eta ikasleen arteko interakzio berbala, nagusiki¹⁷.

Antzera ibili izan dira gauzak, eta dokumentazio-oinarri seguruagoz hitz egin dezakegu kasu honetan, irakurtze-kontuei dagokienez. Euskarazko eskola-materialak euskalkiz (hainbatetan, azpieuskalkiz) prestatu izan dira denbora luzez¹⁸. 1600 ingurutik honanzko (batez ere 1900 ingurura arteko) dotrinen azterketa linguistiko-edukatibo ganorazkorik egin gabe daukagu tamalez, eta ezin dugu horren faltan ondorio zorrotzegirik atera¹⁹. Emaitza nagusiak bistan daude ordea: euskalkia, hainbatetan eskualde jakineko azpieuskalkia, ageri da dotrina horietan nabarmen. Egia da Larramendiz honanzkoetan (zenbaitetan bederen) *Ausbau*-asmozko hizkuntza-lanketa jakina ageri dela han-hemengo (batez ere hemengo) dotrinetan. Joera nagusia goian esandakoa da ordea: euskalkiz edo azpieuskalkiz idatzitako testuak dira nagusi²⁰. Bistan da dotrinaren

¹⁷ Ez da adibiderik falta, ordea, Gipuzkoako maisu-plaza bat betetzeko orduan plaza hutsaren jakinarazpena Iruñera arte hedatzen zenekoa. Ondorio interdialektalak ekarriko zituen horrek, ezinbestean, zenbait kasutan. Arau nagusia bestea zen ordea: eskualde (are herri) berekoa izan ohi zen askotan maisua. Are korrelazio estuagoa zegoen aldagai bi horien artean, nesken maistren kasuan.

¹⁸ Euskarazko ikasmaterial zahar gehienak, 1900 artekoak, gaurkoz dakigun neurrian dotrina- edo erlijio-liburuak izanak dira hegoan zein iparraldean. Salbuespen dira, alde horretatik, gorago aipatu ditugun XIX. mendeko horiek. Egia da horien aurretik ere badela halakorik: Leizarragaren *ABCa* eta antzekoak alde batera utzita ere hor sartzekoak ditugu, esate baterako, aipatu berria dugun Kardaberazen *Euskeraren Berri Onak* edota, handik berrogei bat urtera, Baionan kaleratutako *abecea*. Garatek handik gutxira, 1811n, amets zituen orotariko testu-liburuak (Casenave-Harigile, 2006), unibertsitate mailaren aurrekoak baina halere aski teknikoak, ez ziren 1900 aurretik gure artean agertu: ez euskalkiz eta ez bestela. Iturriaga izan genuen horretan “teknikoena”, salbuespen bakanak agertzekotan, eta badakigu zein mailatako ikasleak zituen begiz joak.

¹⁹ Dotrinen erroldarako ikus Eusko Legebiltzarra 1989. Euskal dotrinaren debeku-neurriez ikus Gorostidi 1902.

²⁰ Ikusteko dago, azterketa xehe batez, Ris-en 1979ko tipologiak zer neurritan balio lukeen euskalki horien izaera zehazteko: noraino gaude aldaera lokal-isolatuen aurrean? Zer neurritan dira dotrinetako testuok eskualdeko aldaera? Ez ote gara eskualdez gaindiko aldaerekin ari horrelakoetan? Ez ote dago tartean, are, orotariko aldaerarik (hots, Schuchardt-en *Ausgleichsdialekt* modukorik)? Txosten honen hasieran, 1. oin-oharrea, esandako tipifikazio-saio-ra ginderamazke azterketa horrek, nolana ere.

hizkera-moldea ez dela ezinbestean gela barruko irakurketa zehatzaren oinarri aldaezin. Badakigu XVIII. mendeera arte (baita beranduago ere, sarri) dotrina-irakurtzea nola egiten zen: buruz ikasten zuten ikasleek dotrinaren orrialde edo pasarte osoa; hots, orrialdea edo pasarteia ez zuten letraz letra eta hitzez hitz²¹ “irakurtzen”. Askatasun-marjina handia ematen zion irakurbide horrek maisuari, dotrinaren testua lekuan lekuko hizkera-moldera egokitzeko.

Antzera joan izan dira kontuak, batez ere 1800etik 1900era bitartean, dotrinaz aparteko eskola-liburuetan: bai euskara hutsezkoetan eta bai, nola ez, kopuruz eta salmentaz nagusi izanak diren ele bikoetan²². Astigarraga maisua-ren 1825eko eskola-liburua, ia hogeita hamar aldiz berrargitaratua, Goierri baino zabalagoko gipuzkeraz idatzia dago. Beste horrenbeste esan liteke, oraingoan Beterrira itzuliz begiak, Iturriagaren lan ezagunez. Halakoa da Eguren ikuskariak handik gutxira zabalduak argitalpena ere. Euskalki-oinarria dute, orobat, Hiriart-en 1840ko lanak eta Archu ikuskariaren 1848ko eta 1852ko argitalpenek. Pasabideko hezkuntza elebiduna edo *Transitional Bilingual Education* zuten testu-liburuok xede nagusia, bestelako albo-asmorik (eta, batez ere, albo-eraginik) falta izan ez bazen ere. Hori dela-eta, zentzu handirik ez zuen liburu-prestatzaile haientzat ikasleen euskarazko errepertorio linguistikoa gizarte zabalean aplikazio-aukerarik ez zuen, eta izateko asmo agiririk ere ez zegoen, aldaera jaso-formal supradialektal bateratuaz hornitzeko. Ez da egia, halere, lekuan lekuko aldaera hutsa jasotzen zutenik Astigarragak, Iturriagak, Egurennek eta bestek: ikus, bereziki, Eguren ikuskariaren liburu-sarrerako azalpenak. Euskalki batean oinarrituriko eredu landu eta zaindu bat ageri da horietan, sarri samar. Hizkuntzaren zaintze-ardura berezia agertutako beste zenbait idazlek ere, *Gramática Vascongada*-ren egile Lardizabalek esate baterako, lekuan lekuko hizkera itxira ez baina Larramendiren tradizioaz gezortiko hizkuntza-eredu elaboratuagoetara jo izan zuten: jokaera horren lekuko ditugu bai 1856ko bere *Gramática* eta haren parez pare prestatuturiko Testamentu-*Kondaira*²³.

²¹ Dotrinako orrialde edo pasarte bakoitzean zetorrena letraz letra eta hitzez hitz irakurri baino areago “PDF moduan” buruan gordetzen zuten ikasleek, eta hala zegokionean osorik berresaten (maiz asko “kantatzen”). Europako alfabetatze-bideen espezialistek argi esan dutena ez gara hemen laburbiltzen hasiko. Bestek perspektiba teorikoz azaldua gurean enpirikoki konprobatu nahi duenak aski luke Kardaberazekin hastea: bere umetako eskola-praxiaz (dotrina “irakurtzeaz” bereziki) ikus 1761eko *Eusqueraren Berri Onak* famatuan zer dioen. Perspektiba zabalago baterako ikus Viñao Frago 1997.

²² Ikuspegi zabal baterako ikus, adibidez, Pauli Dávila 1997.

²³ Ikus Zalbide eta Muñoa, 2006.

Huts egiteko arrisku handiegirik gabe zera esan liteke hortaz: euskalkia edo lekuan lekuko berba-egikera aski presente egon izan dela eskola-material askotan. Aski hurbil oro har eta, zenbaitetan, barru-barruan iltzaturik. Hortik aurrera (nahiago bada, hortik gorantz) jo izan dute idazle batzuek, XIX. mendean bereziki, beren lanak prestatzerakoan. Gorantz bai, baina Euskal Herri osoan erabiltzeko hizkuntza-eredu bateratura iritsi gabe. Labur bilduz: dotrinaren eta horren inguruko irakaspenak, partez edo osoz euskaraz egiten zirenak, lekuan lekuko hizkeraz bideratu ohi ziren, hitzezko azalpenean. Lekuan lekukoan edota, une batetik aurrera (1820), maisu-maistren jatorrizko eskualdekoan²⁴. Dotrinaz kanpoko eskola-testuetan ere begien bistan dago euskalkioinaria, nahiz eta horrelakoetan, XIX. mendeak aurrera egin ahala, bestelako *Ausbau*-saioek²⁵ gero eta leku zabalagoa eskuratu zuten.

I.2. Eskolako euskara moldeak 1900etik 1968ra

Ausbau-lanaz gainera, haren parez pare, saio handiak egin izan dira 1900 ingurutik 1968ra bitartean euskara eskola-esparruan (bir)txertatzeko eta, txertatze-lan hori erraztearren, euskara molde bateratu bat erabiltzeko. Iparraldeari dagokionez nafar-lapurterak eskuratu ahal izan zuen, 1890 ingurutik aurrera, lehen eskola-hizkera supradialektala bihurtzeko aukera objektiboa. Bazegoen hizkera-molde horren corpus-lanketarik²⁶, baten hizkera horretaz baliatzen zen idazle-talde treberik eta, azkenik, hizkera-molde horretara jarritako irakurleak ere ugarituz joan ziren²⁷ 1900etik 1910 ingurura arte. Baziren hor oinarri objektiboak, beraz, hizkuntza-ereduaren aldetik. Hizkuntza-plangintzaren parterik erabakigarriena falta izan zen, ordea, kasu hartan: ez maisurik zegoen urte-garai haietan iparraldean, euskaraz irakasteko ohitura zuenik; ez hartarako luze-zabal antolatuturiko eske larririk zegoen gurasoen aldetik; eta ez, batez ere, hartarako baimenik txikiena emateko asmorik zegoen

²⁴ Gipuzkoari dagokionez, bederen, fetxa hori ez da ahaliriztira jarria. Jakin badakigu mugimendu handiko unek izan zirela eskola munduan, arrazoi bat baino gehiago zela medio (eskola-berrikuntza, errealdisten kargugabetzeak, ...), 1820 eta 25 artekoak.

²⁵ *Ausbau* kontuez bibliografia zabala dago eskueran: jatorrizko iturburura jo nahi duenak ikus beza Heinz Kloss 1952. Euskal definizio baterako ikus Zalbide eta Muñoaren 2006ko txostenaren amaieran eskaintzen den glosarioa.

²⁶ Ikus Ithurri 1895.

²⁷ Aski neurri ohargarrian gertatu zen irakurle-masaren ugaritze kontu hori, *Eskualduna* aldizkariaren salmenta-kopuruen bilakaera aintzakotzat hartu behar bada. Ez dago motiborik, gaur-gaurkoz, hala ez egiteko.

agintearen partetik²⁸. Hiriart-Urrutiri kasu egin behar bazaio (ik., adibidez, *Eskualduna* 1897ko abuztua, in Alzibar 2004), eta balegoke hartarako motiborik aski, bistan da eskola eta *eskuara* mundu bi zirela une hartan: bai gobernamenduaren eskola publikoetan eta bai, Jean-en berariazko pena-dolorez, elizaren esparruko eskola giristinoetan, moja-serorenetan bereziki. Dotrinaren alorrean bertan zaildu egin ziren kontuak, erraztu ordez, 1902-03tik aurrera: orduan ezarritako debeku-zigorrek, ipar eta hego, okertu baizik ez zuten egin panorama bihurri hura. 1900etik aurrera aldakuntza txikia antzeman zen hor-taz iparraldean, kontu honi dagokionez. Nafar-lapurterazko idazkera zabalduz joan zen apurka-apurka, baina eskola eta euskara ezin uztartuzko elementuak bihurtu ziren iparraldean, aztergai dugun epean.

Gatozen hegoaldera. Iparraldean ez bezala aparteko saioa egin zen hemen, 1900 ingurutik 1968ra bitartean, eskola-mundurako egokia izan zitekeen euskara molde bat diseinatzen eta, batez ere, testu-liburuak laguntzaz eta irakasle saiatuen jardueraz, hizkera molde hori ikasgeletara zabaltzen. Gorabehera handiko epea izan zen hori, 1936ko gerrak eta gerraondoak aparteko etena ekarri zutelarik. Badu epealdi horrek halere, eten eta guzti, halako hari modu bat. Hari horri helduko diogu hemen. Azkueren “Pecado de Juventud” izandako *Euskal Izkinde*arekin esan liteke hasi zirela, 1890eko hamarkadan, esparru zabalagorako euskal metodoak eta bestelako testu-liburuak agertzen. Liburu baina ondotoxoz gehiago ere bazen *Izkinde* hura: urtetik urtera zabalduz zihoan Bilboko kale-giroan, gero eta etxetik erdaldunduago zetorren belaunaldi berriarentzat, diseinaturiko “euskara on” baten eredu elaboratua. Ohiko euskalki-aldaeratik nabarmen aldentzen zen hizkuntza-eredu berria, gizarte industrial berrirako amestua. Bekatuak bekatu, hasierako demasia batzuk azkar tenplatu ziren. Handik aurrera, morfologia-urak bere ildora itzulita, aski arrakasta eskuratu zuen horietariko zenbaitek: *Martin Txilibitu* eta *Xabierto* bat, arras gauza sinpleak badirudite ere egungo egunean, aurrerapen nabarmen izan ziren une hartan. Kasu ezagun horiek alde batera utzita azterketa berezia eskatuko lukete, ordea, 1913-36 epeko testu-liburuek. *Zenbakizti* famatuaren eta horren pareko beste zenbait giputz-testuren ondoan euskalkimuga zorrotzak gaingitzen saiatu ziren Bizkaiko Aldundiaren 1920 ingurukoak. Liburu horiek ezin esan liteke, inola ere, hizkuntza-eredu bateratua zerabiltenik. Euskalki hutsezkoak ere ez ziren ordea²⁹. Garaiko purismo-irizpi-

²⁸ Agintaritzaren debeku horri inor gutxik egin zion aurre: fraideen eta seroren kristau-eskola gehienak, bereziki, aski bat zetozen irizpide horren korolariora praktikoarekin

²⁹ Eleizalderen eskua eta irizpide linguistikoak ez daude, itxura osoz, ikasmaterial haien osaera modutik urruti.

deak eta, oro har, hizkuntza “on”aren gaineko hainbat aurreiritzik nekez irakurtzekoak bihurtu zituen ikasmaterial asko. Nekez irakurtzekoak batzuk, eta ezin irakurrikoak beste zenbait. Neke-zailtasun bakarra ez zuten *aneuridin* eta antzeko hizperriek sortzen. Sabin baino sabindiarragoko corpus-plangintza baten berrikuntza-aukerak eta hizkuntza-eredu hori luze-zabal hedatzeko eragozpen-muga larriak argi agertu ziren testu haietarako hainbatetan. Zirkulaziotik kanpora ez ziren ordea, ezaguna denez, horregatik gelditu: bestelako bekatua zuten horiek berekin, euskara jakin gabe ere ondo asko ikus zitekeen bekatua nonbait.

Teorizazio-saiorik ez zen falta izan 1919tik aurrera, Euskaltzaindia sortzeaz bat, eskoletarako euskara-ereduaren gainean. Hizkuntzaren (neurri bateko) batasuna aldeztu zuen hainbat euskaltzalek edota euskalarik, Koldo Eleizalde adibidez³⁰, eskolaren beharretan ikusten zuen hartarako motibo nagusietako bat. *Leitmotiv* ezaguna bihurtuko zen beharizan operatibo hori, handik aurrera. Hizkuntza bakarraren aldeko asmoa, eta euskarazko eskolagintza, elkarren eskutik joango ziren gero eta sarriago.

Aparteko urtea izan zen, alde horretatik, 1956koa: lehen Euskal Mundu Biltzarra ospatu zen Parisen, batetik, eta Euskaltzaleen Biltzarra eratu zuen Euskaltzaindiak Arantzazun, bestetik. Batean zein bestean bere lekua izan zuten euskal eskolak eta hizkuntzak, bai aldaeren moduan eta bai euskara baturako proiektu gisa³¹. Euskaltzaindiaren handik bizpahiru urterako jakinarazpena, maileguzko hitzei buruzkoa, funtsezkoa gertatu zen alde askotatik: eskola-liburuetarako terminologiak ez zeukan zergatik ilargira ihes egin. Kilometroari *kilometro* esatea aizu zen, eta begi onez ikusten zen euskaldun-jendeak bere hitz-altxorrera bilduak zituen kultura-erroak eta jakintza-hitzak bere horretan (beharrezko egokitzapen fonetiko-grafikoz) erabiltzea. Asmo mugatu-ñimiñoa izanik ere berez, ondorio zabalak ekarri zituen Euskaltzaindiaren jakinarazpen hark. Batetik, esan berri dena; bestetik, eta hori ere aintzakotzat hartzekoa da noski, gerra aurreko muga jakinak berekin zituen hizkuntza-moldea kuestionatzea eta, horrenbestez, euskara “berri” bat zilegiztatzea: bide berriaren onarpen diferentziala. Egin egin behar

³⁰ Ikus, orobat, Broussain Iparraldetik.

³¹ Ikus bereziki: a) Parisko Kongresuan (1956ko irailaren 23tik urriaren 1era) Jokin Zaitegiren ekarpena eta Andoni Urrestarazu “Umandi”rena; gogoan izan, halere, Parisko Kongresu hartara aurkeztu ziren 44 txostenetatik 33k euskara mintzagai izan zutela, alde edo moldez. b) Euskaltzaleen Arantzazuko Biltzarrean (1956ko irailaren 14-15-16etan), Bilbokoan (1958ko abenduaren 13-14etan) eta Eibarkoan (1959ko azaroaren 6-7-8etan), era berean, aldi hartako euskalari eta euskaltzale gehien-gehien aztergai izan zen kontu hori.

zen bidea eta, halakoetan sarri gertatu ohi denez, bidegintza horretarako aski iritzi eta jokabide diferenteak plazaratu ziren. Bide batetik zebilkigun Manuel Lekuona euskaltzainburua, irakasle-gai euskaldunak prestatzeko Iruñean egindako prestaera-saioak hartzen badira oinarri. Nor bere bidetik zebiltzan, orobat, Elbira Zipitria eta Ambrosio Zatarain. Baita *Neurritziren* egile Luis Egia, filosofo zaharren lanak euskaratzen ziharduen Zaitegi eta Venezuelatik, aurreko horien erdibidean itxuraz, ziharduen Andima Ibiñagabaitia ere.

Ez zuten erabat asmatu, bistan da, egungo emaitza hartzen bada konparazio-gune³². Gauza asko zor diegu³³ ordea bidegile haiei: uste dugun baino ondotoxoz gauza gehiago, eskola-esparruko hizkuntza-ereduari dagokionez. Hizkera/idazkera formal-espositibo bat, jakintza-kontuak berariaz landu eta xehekiro adierazteko joskera-molde egituratu bat, eraikitzen saiatu ziren nabarmen, eta guztia ez zen alferlana gertatu.

Kontu larri batean huts egin zuten ordea: ez zuten konektatu hurrengo belaunaldiarekin. Ez zuten lortu handik gutxira benetako maisu-maistra bihurtuko ziren eta, hortaz, inplementazio-lana beren gain hartuko zuten euskaldun gazteen artean beren hazia ereitea. Etena sortu zen, hori dela medio, bidegile horien hizkuntza-ereduaren transmisio-bidean. Irakasle eta andereño gazteen egoera kulturala (euskarazko prestaera-maila bereziki) aurreko horien ez bezalakoa zen: hutsetik abiatu behar izan zuten euskaldun gazteok bat-batean, nork bere burua alfabetatuz. Horretarako, berriz, ez zuten goiko bidegile haien berri edo, halakorik baldin bazuten, euskara modu hura zailegia eta nolazpait “arrotza” gertatzen zitzaien. Zailegia, arrotz-airekoa eta, hainbatean, gogoz kontrakoa. Motibo bategatik edo bestegatik, kaleko mintzamolde informaletik hurbilago zegoen prosa moduak (gipuzkeratik baturanzkoak bereziki) hartu zuen aurrea, apurka-apurka, gazte-jendearen artean: nolabait esatearren *Zeruko Argiak*, *Anaitasunak*, *Jakinek*, *Lur editorialak* eta abarrek zabaltzen zuten prosa modua gailendu zen gazte horien artean. Horrela iritsi ziren kontuak, Arantzazuko biltzarrera.

³² Asmatu izana edo ez, nolana ere, kontestuala da hainbatean. Ibon Sarasolak eman izan du, dakidan neurrian inork baino bortitzago, kontestuaren mendekotasun horren azalpen espresa. Ikus Sarasola 2005 (Ines Pagolaren tesi-liburuaren sarreran).

³³ “zeren”-makulurik gabeko joskera egituratua, mintzagaiari (estuegi jokatzu zenbaitean) leku-ordena jakina atxikitzen ziona, landu zuen idazle-multzo hark. Garbizaletasun lexikala eta bere baitariko terminologia-lanketa ez ziren izan, askotan hartara mugatzen badira ere gure aipamen kontuak, beren ezaugarri bakarrak. Ezaugarri nagusiak ere ez, apika.

II. Euskaltzaindiaren ekarpena: Arantzazu eta Bergara

Sortu zenetik mende-erdira, eta horren oroigarri, aparteko biltzarra egin zuen Euskaltzaindiak Arantzazun, 1968ko urriaren 3tik 5era. Aztergai nagusia zuen biltzar hark: euskararen batasuna. Hainbat irizpide-sorta aurkeztu zen bertan, eta horietariko bat (Mitxelenaren txostenean jaso) atera zen garaile. Handik hamar urtera, Arantzazuko irizpide nagusiek eta haien ildotik hartutako hainbat neurrik zer ondorio izan zuten aztertzeko, berariazko saioa egin zuen Hizkuntza Akademiak Bergaran. Banan-banan aztertuko ditugu biltzar eta biltzarrondo biak, gaurko gaiari dagozkion atalak bereziki azpimarratuz.

II.1. Arantzazu: 1968ko biltzarra eta bere ondorena

Aparteko garrantzia izana du, Euskaltzaindiaren corpus-plangintzaren alorrean, Arantzazuko biltzarrak. Biltzar hura ez zen eskolarako hizkuntzaredua definitzeko eratu. Hori baino asmo zabalagoa zuen berez: euskararen batasuna arakatzea eta, ahal zen neurrian, finkatzea. Estandarizazio alorreko *corpus*-plangintza zen bere xedea, ez *acquisition*-plangintza eta ez *bilingual education planning* delakoa ere. Euskalkiak gaingiduz, guztiontzako eta orotarako (batez ere idatzizko jardunerako eta, bereziki, situazio formalei dagozkien eginbeharretarako) euskara estandar baten lehen oinarria definitu nahi izan zen bertan.

Begi onez eta ilusio handiz ikusten zuen batasun-bide hori hainbat euskaltzalek (batez ere euskaltzale gazte askok). Hizkuntza indarberritzeko lagungarri sendoa, are baldintza ezinbestekoa, iruditzen zitzairen euskara batasun bidean jartzea. Estandarizazioaren alde zeuden horiek: estandarizazioaren norainokoaz, eta hartara iristeko erritmo-lastertasunaz, bazuten beren artean iritzi diferenterik. Konforme zeuden, halere, gauza pare batean: behar-beharrezkoa zen batasun hori, eta hartarako langintza lehenbailehen jarri behar zen abian. Irabazia handiagoa zuen saioak, ondo eginez gero noski, galera baino. Euskaltzale guztiak ez ziren ordea hain baikor: bazen estandarizatzeko-prozesua galeratzen hartzen zuenik ere. Euskaltzale zaharragoen artean, bereziki, ugariak ziren azken hauek. Ezinbesteko prozesua bai, baina galerazkoa iruditzen zitzairen batasun-bidea. Orduko euskaltzainburuaren (Manuel Lekuonaren) hitzetan esanik, “euskeraz biziko bada, batu egin bear (..) beso-bakartu egin bear, anka-bakartu egin bear (..) bizitza dezan, eta ugariago dezan” (Lekuona 1968: 141). Beso- eta hanka-bakartzea galera da noski, hemen eta nonahi. Batasunaren aldeko uholdea eragin zuen biltzarrak hainbat esparrutan: eskolan ere bai.

Eskolarako pentsatua ez izan arren, eragin handia izan zuen Arantzazuko biltzarrek irakasle(gai)en artean. “Arantzazuko espirituak” eragin zabala izan zuen eskola-giroko hizkuntza-aldaeren erabileran: biltzarreko erabaki konkretuek beraiek baino zabalagoa. Saio eta giro hartan erabaki zen, aski neurri ohargarrian, hurrengo 40 urteotako eskola-hizkuntzaren oinarri kontzeptuala. Oinarri horren beharra argudiatzeko orduan, hain zuzen, eskola agertu zen Arantzazun, aurren-aurreneko lerroan. Honela zioen Koldo Mitxelena Arantzazuko biltzar hartan, euskararen batasunerako prestatu zuen oinarri-txostenaren sarreran: “Ezinbestekoa, hil edo bizikoa, dela uste dugu euskara batasun bidean jartzea. Haur eta gazteei euskaraz irakasten baldin bazaie, eta euskaraz irakatsi behar euskara biziko baldin bada, premiazkoa da guztiei batera edo bateratsu irakastea” (Mitxelena, 1968: 203)³⁴. “Arantzazuko paradigma” deitu dezakeguna ez dabil esaldi horretatik oso urruti. Horra bere argudio-bidea: euskara indarberritu ahal izateko ezinbestekoa da eskola, eta eskolak behar-beharrezkoa du euskara batua edo bateratua; hil ala biziko kontua da, hortaz, batasun hori.

Langintza zabal baten hasiera izan zen, aurreko hamar urteetako hainbat aurrelanen osaera-gune gertatzeaz gain, Arantzazuko biltzar hura. Euskalkiez gainera eredu “berri” baten beharra bazegoela baieztatu zen Arantzazun, eta eredu horren moldaera-bide posiblea adierazi. Gezurra badirudi ere, arau kon-tuan ezer gutxi erabaki zen zehatzik Arantzazun. Ibili beharreko bidearen hainbat giltzarri planteatu ziren han, eta horiek ere aski era lazoan onartu. Eredu berria garatzeko lastertasun-premiaz ere ez zegoen adostasun handirik. Batzuek (itxuraz, gehienek) berehala egin nahi zuten batasun-bidea; zenbaitek nahiago zuen, ordea, batasun-bide hori astiroago eta lehendik (batez ere 1919tik 1956 ingurura artean) ezarria zegoen oinarriaren gainean egin³⁵.

³⁴ Kontu hauetaz eta bestez jabetzeko garrantzi handiko argitalpena da Larresoro/Txillardegiren 1974ko *Euskara batua zertan den*. Funtsezkoa, une hartako batasun-bidearen informazioaz eta egingizun “ikusten” zen hainbat zehaztapenen orientazio-lan pertsonalaz. Gero benetan egin den bideari kontraste-puntua ezartzeko aski baliagarria, hortaz.

³⁵ “Arantzazuko galtzaile”ez, beren eredu hobetsiaz (hobetsiez) bereziki, ez dut uste behar bezalako analisirik egin denik inoiz. Balegoke motibo sendorik, halakorik egiten saiatzeko. Manuel Lekuonak eta Jokin Zaitetik, Ambrosio Zatarainek eta Elbira Zipitriak, Jesus Gaztañagak eta Urrestarazu “Umandi”-k bazuten noski alderik, beren euskara-eredu hobetsian. Amankomuneko lokarri sendorik ere bai ordea: gerra aurrean nagusituz joandako (eta gerraondo hurbilean inor gutxik auzitan jarritako) hizkuntza-ereduaren jarraitzaile eta garpeneragile izan genituen, ororen gain: ez ziren asmazio hutsean ari. Azkueren *gipuzkera osatuaren* ildotik-edo nagusituriko bidearen jarraitzaile eta aldeze ziren haiek, nagusiki. Tradizio haren jarraitzaile ikusten zuten beren burua eta, batez ere, ez zetozen bat Arantzazuko

Mitxelenaren Arantzazuko bidea aplikatu egin behar zen, benetako batasunik izango bazen egunen batean. Zehaztu eta garatu egin behar zen hizkuntza-eredu bateratua astekarietan, liburuetan, alfabetatze-lanetan eta, nola ez, hezkuntzan: perretxikoen gisa sortzen ari ziren ikastoletan lehenik eta, handik gutxira, ikastetxe publiko eta pribatuetan. Arantzazuko eredia kodetu, inplementatu eta osatzea eskatzen zuen horrek: hizkuntza-plangintzaren terminologia ortodoxora makurtuz, *kodifikazio*-lana (adituen hitzetan *graphization*, *grammatication* eta *lexication*) batetik eta *functional development* edo *elaboration* (*terminological modernization* eta *stylistic development*) bestetik³⁶. Berehalako lanketa egin beharra sentitzen zen, bereziki, honako alor hauetan: ortografian (h letra bai/ez eta, baiezkotan, noiz-non), morfologian (aditza, deklinabidea, erakusleen trataera), hots-ebakeran (>j< nola ebaki) eta idazkeran (bustidurak, bereziki, nola islatu) eta lexiko-sorkuntzan eta ohiko hitz-altxorren berrikuntza-lanean³⁷. Azken atalari dagokionez garai hartakoak ditugu, horrela, *Batasunaren Kutxa*, Gordailuren *Escola-hiztegia*, Xabier Kintanaren (eta abarren) *Hiztegia* eta Luis Mari Mujikarena³⁸. Aditz batuaren lanketa izan zen, seguruenik, Euskaltzaindiak garai hartan egindako aplikazio-lanik handiena. Erabaki deigarriena bestea izan zen ordea: H letraren ortografia. Letra horren gaineko eztabaidak grafizazio-kontua baino sakon-zabalagoko tirabirak ekarri zituen urte haietan. Arantzazuko biltzarrondoak ekimen bizikoa izan zen, nolana ere, corpus-plangintzaren alor gehienetan: baita *code-selection* fasean ere.

bide-berritzearen zenbait ezaugarriekin: ortografia alorrean ez zuten begi onez ikusten ez h letraren erabilera oparua eta ez bustidurei emanikako irtenbide grafikoa. Morfologian eta hitz-altxorren trataeran ere bazuten joera berriarekiko alderik: iparralderanzko zenbait hurbilketa-saio ez zitzairen lehenesteko modukoa iruditzen. Eskolak hain berezkoa duen terminologia teknikoaren alorrean, azkenik, maileguzko hitzen uholdekako harrera errezeloz ikusten zuten eta hizkuntzaren barne-erabideetan (hitz-elkarketan, berrezarpen lexikalean, zabalkuntza semantikoa edota, zenbaitetan, neologiazko hizperrigintzan) oinarritu nahiago zuten lexiko-berrikuntzaren alor hori: Plazido Mujikaren hiztegia ez da lekurik okerrena, "Arantzazuko galtzaile" en joera gehienez jabetzeko.

³⁶ Terminologia tekniko horren zoko-mokoez jabetzen hasteko ikus, adibidez, Einar Haugen 1983: 275.

³⁷ Hitz-eraketarako sorbideen eztabaida zabala egin zen garai hartan. Gogoratu *-zio* atzizkiaren ordezkotza eratorpen-atzizkien fasea: *-pen* (*mobilizapen*, *aplikapen*, *transformapen*, *manifestapen*), *-keta* (*diktaketa*, *grabaketa*,...), *-kunde* (*koordinakunde*,...), *-kuntza* (*federakuntza*,...) eta abar. Baita maileguzko hitzen trataera zehatzagoa ere. Aplikazio-lan horietarako, eztabaida teorikoaren oinarri moduan, funtsezkoa gertatu zen, orain ahaztu samarrik badaukagu ere kontua, Luis Villasanteren *Palabras Vascas Compuestas y Derivadas* liburuxka.

³⁸ Modernizazio-lanketari dagokionez handik gutxira abiatu zen *Elbuiyaren* ekarpena, *Jakinena* (Natur Zientzien hiztegiarekin) eta, aurreraxeago, *UZE*ren garapen sistematikoa.

a) Arantzazu ondoko ibilera eskola-munduan

Gatozen ordea gurera; zer aplikazio izan zuen Arantzazuko biltzarrak eskola-munduan? Handia: hizkuntza-ereduaren kontuan aurreko bide-urra-tzaileen ildotik gero eta nabarmenago apartatuz, Arantzazuko paradigmaren bidetik garatu zen euskarazko eskolagintza 70eko hamarkadan. Manuel Lekuonak eta Jokin Zaitetik, Ambrosio Zatarainek eta Jesus Gaztañagak, Tene Mujikak eta Elbira Zipitriak gero eta erakarmen ahulagoa jaso zuten Arantzazu ondoko eskola-munduan. Bazen noski han-hemen, Gipuzkoan eta Bizkaian batez ere, bidegile horien hizkuntza moldeari gogoz eta konbentzimendu osoz eusten zionik eskolan; baita eskola-liburuak (eta horien jira-bueltakoak) prestatzeko orduan ere. Eskola-eragile guztiek ez zuten, alegia, Arantzazutik irteerako eredu-arkitektura berria onartu. Are gutxiagok onartu zituzten batuzale batzuen garapen-saio konkretuak³⁹. Eskola batek baino gehiagok, hori guztia zela medio, euskara batua alde batera utzi eta “herri-euskera”-tik jotzea hobetsi zuen. Kasu batzuetan, eskola berean ziharduten lanean euskara batuaren eta “herri-euskera”ren aldeko irakasleek. Bazen eskolarik, azkenik, gurasoak eta irakasleak bildu, irizpide bien aldeko aditu kualifikatuak gonbidatu, auzia aurrez aurre planteatu, aditu bien argudioak entzun, eztabaidatu beharrekoa eztabaidatu eta eskolarako euskara-aldaera egokiaren gaia bototara jarri zuenik⁴⁰.

Kontua gordinago agertu zen Bizkaian: ikastolen hazkundera beranduxea-go hasia zen han, oro har; ondotoz pausatua ere bai. Bertako ikastola gehienak Bilbon, bere inguruan eta Jaurerriko herriburuetan eraiki ziren gainera, ez eskualde jakinetako herri txiki euskaldunenetan. Bazuen Bizkaiak, bestalde, gipuzkera osatuaren parez pareko tradizioirik: bai idatzizko zeregine-tan eta bai jendaurreko hizkera jasoan (predikuetan, esate baterako) erabiltzen zen *bizkaiera*, zenbaitek *Bizkaiko euskera* esan nahiago zuena eta geroztik, azken hamar bat urtean, hasierako zenbait formulazio eguneratuz eta *dot*-esparru osora zabalduz *mendebaldeko euskara* ere deitu izan dena. Gipuzkoako kasuan Mitxelenak eta bestek azalduz “faktore biologiko”aren pisua ez zen, gainera, Bizkaian hain nabarmen gertatu. Batua gazteekin eta “herri-euskera”

³⁹ *Arestiren Hiztegia, Batasunaren Kutxa* eta beste zenbait formulazio, *philosophia* moduko idazkera esate baterako.

⁴⁰ Horrela gertatu da, oker ez banago, Azpeitiko ikastolan: Patxi Altuna eta Jesus Gaztañaga izan ziren bertara deitutako adituak. Auzia euskara batuaren alde erabaki zen kasu hartan. Beste zenbaitetan, aldiz, gipuzkeraren edo “herri-euskera”ren bidetik jarraitu zuen ikastetxeak, urte luzez.

zaharrekin identifikatzera iritsi bazen Gipuzkoan, eta identifikazio horrek oinarri demografiko argirik izan baldin bazuen berekin, nahasiago gertatu ziren kontuak Jaurerrian. Euskaltzale eta hizkuntza-eragile gazteen artean ere ez ziren gutxi, bizkaierari beren beregiko lekua eman nahi ziotenak gizarte-bizitzan. Baita eskolan ere.

b) *Arantzazu ondoko ibilera* alfabetatze-alorrean

Euskara batuzko alfabetatzea gailendu zen Gipuzkoan, ia erabat, 1970etik aurrera. Alfabetatzea eta euskara batuan egiten (batez ere idazten) ikastea gauza bera bihurtu ziren ia. Estandar bat zekarren euskara batuak berekin: *pasa lez pasa* listoa ezartzeko balio ohi zuen estandarra. Euskaltzaindiak urte-inguru hartan sortutako “D titulua”k zurkaiztu eta indartu egin zuen joera hori. Euskaltzaindia zen euskara batuaren definitzaile eta osatzaile, eta gaitasun-agiri hura eskuratu ahal izateko euskara batuaren ezauguera (hasieran batez ere ortografia, gero morfologiako eta hiztegiko hainbat ezaugarri) eskatzen hasi zen. Agiri hori bere gizarte-balioa hartzen hasi zen. Horrek ere bere eragina izan zuen euskara batuzko alfabetatze-lanean. Aparteko eragina izan zuen, garai hartan, Euskaltzaindiaren babespean zebilen AEKk. Baita EUTGko euskalduntze-alfabetatze elkarteak batetik, eta Bergarako UNED sorberriak bestetik. Euskara batuaren hedatzaile gertatu ziren elkarte horiek guztiak, alde edo moldez.

Bizkaian ere antzeman zen euskara batuan alfabetatzeko (nabarmenago, euskalduntzeko edo alfabetatzeko) joera. Bai Euskaltzaindiaren “D titulua”k, bai AEKk eta bai (dakidan neurri mugatuan) Deustuko Unibertsitatearen Euskalduntze-atalak eragin bizia izan zuten esparru horretan. Ez ziren bakarrak, ordea, euskalduntze-alfabetatze esparruan. Bestelakorik ere bazen tartean: Labayru ikastegiak batetik, eta Bilboko Hizkuntza Eskola Ofizialak bestetik, aparteko itzala zuten Bizkaian. Hizkuntza-ereduaren alorrean hurbilbide diferentea zuten azken biok: berariazko lekua, (hainbatean, lehentasuna) aitortzen zioten irakastegi horiek bizkaierazko alfabetatze-lanari. Bata zein bestea hizkuntzazko gaitasun-agirien emaila ziren horiek eta, horrenbestez, goi-mailara eramaten zuen agiri-emate horrek bertako eredu-bitasuna. Batzuek euskara batua hartzen zuten oinarri nagusi. Besteak bizkaieratik abiatzen ziren beren klase-emankizunean, oro har; hortik abiatzen ziren eta zenbaitetan (ez, inola ere, beti) hartara mugatzen zuten ikasleen prestaera.

c) Arantzazu ondoko ibilera euskara(z) ikasteko liburuetan

Aurreko bi puntuetan esandakoa aski hurbiletik errepikatu zen ikasmaterialen alorrean. Euskara batuaz (baturanzkoaz edo gero eta batuagoaz) kalera-tu zen Patxi Altunaren *Euskera hire laguna*, garai hartako euskara-metodo zabalduenetako bat. Batu-asmo integralez prestatu zen, bestalde, Bizkaiko *Euskalduntzen* famatua. Tirada handiko eta argitaraldi ugari materialak izan ziren horiek. Euskara batuaren aplikazio-gune praktiko ere bilakatu ziren hainbatean: une hartako euskara batuak eskaintzen zituen egitura posible biren erakusleho. Izan ziren tartean, euskara batua utzi eta beste bidetik (gipuzkeraz edo, bereziki, bizkaieraz) jo zuten ikasmaterialak (metodoak, gramatikak eta abar). Ez ziren ezagunenak agian, kopuruz: presente zeuden ordea bertako merkatu kulturean, eta eragin ukaezina izan zuten gizarte-alor jakinetan.

Eskola-liburuei dagokienez ere inplementazio-lan argikoa izan zen Arantzazuko biltzarraren ondoko epea. Batuaren bidetik jo zuten, ezagunenak baidzik ez aipatzearren, *Gordailu* etxeak eta *Ikastola Elkartearen* itzulpen-sortak. Euskara batuaren bidetik jo zuen, orobat, Bizkaiko *Saioka* proiektuak. Gipuzkerazko eta bizkaierazko ikasmaterialik ere agertu zen garai-inguru hartan. Zabalkunde mugatuagoa izan zuen horietariko askok gizarte-giro berrian. Gipuzkerazko ikasmaterialgintza urria izan zen oro har, eta eskola-munduan eratu zuzihoan merkatu sorberriarekin lotura handirik gabea. Aita Goenaren *Giza-soiñak* berak, ordura arteko lanik sistematikoena izan arren bere alorrean, ez zuen euskal mundu berriarekin indar betez konektatu. Bizkaian, aldiz, euskara batutik aski urrun zebiltzan irizpideetatik abiatuz hainbat ikasmaterial argitara eman zen une hartan⁴¹. Labur bilduz, batasun-asmoak bitasuna edo, agian, aniztasuna ageri zuen inplementazio-fase hartan. Zer pisu zuen, ordea, bitasun edo aniztasun horrek?

II.2. Bergara, 1978: *errepasoa eta birdefinizioa*

Berriazko biltzarra egin zuen Euskaltzaindiak Bergaran, 1978ko irailean. Arantzazuko bidea jorratuz corpus-plangintza trinkoa eragin nahi izan zuen, alde batetik, bigarren biltzar horrek. Saio ohargarria egin zen bertan, euskara

⁴¹ Aztertu gabe dago, dakidalarik, euskalki-oinarriko eskola-argitalpen horiek zenbateko zirkulazioa eskuratu zuten. Hurrengo puntuan aztertzen dira kontuok, nolana ere, zenbaki-oinarri minimo batez.

batuaren hainbat ezaugarri morfologiko, lexikal eta fonetiko zehazteko⁴². Kodetze-lan horrezaz gainera beste xederik ere izan zuen ordea Bergarako biltzarrek: euskara batua hizkuntzaren esparru formal-idatzian zer hedadura hartzen ari ziren argitzea eta, bereziki, batuak eta euskalkiek aurrerantzean zer distribuzio soziofuntzional behar zuketean eztabaidatzea. Biltzar horrek xede bikoitzaz jokatu izana ez da inolako bitxikeria: mundu zabaleko corpus-plangintzaren tradizio klasikoan txerta liteke, alde horretatik, Bergarako biltzarra. Hizkuntza baten barne-osaera eta hizkuntza horren giza arteko erabilera moldea, kontzeptualki zorrotz bananduriko azter-eremuak izanik ere, elkarren eskutik joan ohi dira sarri. Corpus-plangintza (kasu honetan, estandarizazioa) ez da, urrundik ere, arau-emate hutsa. Hizkuntza arautzea baino eginbehar zabalagoa du plangintza horrek. Estandarizazio-lanaren lehenengo pausoa besterik ez da araugintza hori. Estandarizazioa benetakoa izango bada, hasierako pauso horrezaz gainera beste lau urrats hauek egin behar dira: zabal-kunde-lana, aldeko motibazioa, hartaz baliatzeko gai bihurtzea eta benetan erabiltzea⁴³.

Laugarren pausoa eman arte, ezin esan liteke hizkuntza estandarizatu egin denik⁴⁴. Aurreko hiru pausok garrantzitsuak dira, baina laugarrenak erabakitzen du estandarizazioa lortu den ala ez eta, lortu egin baldin bada,

⁴² Ohargarriak dira, alde horretatik, honako hauek: a) H letra daramaten ohiko hitzak zehaztea, b) bustidura idatzizko jardunean nola islatu, eta c) erakusleen deklinabidea. Xehetasun gehiagotarako ikus *EUSKERA* 1978-2, eta 1979ko aparteko argitalpentxoak.

⁴³ Hona, labur bilduz, lau pauso horien adiera konkretua:

a) *Zabalkunde-lana*: jendeak (begiz jotako hiztun-multzoak) jakin egin behar du hizkuntza-eredu horren berri;

b) *Aldeko motibazioa*: arau hori ikasteko eta erabiltzeko interesa sentitu behar du. Arauzko eredu hori gustatu egin behar zaio hiztun-multzo horri edota, gustukoa ez baldin badu ere, horren beharra edo komenentzia praktikoa sentitu behar du;

c) *Hartaz baliatzeko gai bihurtzea*: arauzko eredu hori ikasi egin behar du jendeak. Hartaz baliatzeko gai bihurtu behar du, sortzaile moduan (hitz eginez, idatziz) edo jasotzaile gisa (irakurriz, entzunez); eta

d) *Benetan erabiltzea*: begiz jotako hiztun-multzoak (multzo osoak, gehiengoak, zati ohargarri batek) erabili egin behar du hizkuntza-aldiera hori. Ez du ezinbestean hori bakarrik erabili behar. Hori ere erabili egin behar du, ordea. Beharrezkoa edo komenigarria gertatu behar zaio bere harreman-sarea biltzen duen espazio soziofuntzionalaren zenbait jardun-gune, rol-harreman eta situaziotan bederen.

⁴⁴ Lau urrats horiek ezin dira, erabat, inplikazio-eskala hutsean ezarri: bigarren urratsa ez da ezinbesteko aurrebaldintza, hirugarren eta laugarren pausok emateko. Egia da, aldez, lehenengo pausoa beste hiruren ezinbesteko aurrebaldintza dela eta, batez ere, laugarren pausoa emateko ezinbestekoa dela aldeaz aurretik, eta ordena horretan, lehen eta hirugarren urratsak egitea. Badago hor inplikazio-maila ohargarri bat, hortaz.

zer neurritan lortu den, zer jardun-gunetan (irakaskuntzan, literaturan, ...), zer rol-harremanetan eta zer situaziotan⁴⁵. Ikuspegi horretan oinarritu zen Euskaltzaindia 1978an. Galdeketa-bidea erabili zuen luze-zabal, horretarako: batuak eta euskalki-aldaerek situazio formal-idatzizko zenbait jardun-gunetan ageri zuten erabilera-mailan zentratutako galdeketa. Euskaldunei ez zitzaien galdetu euskara batuaren berri ba al zuten, ez eta hizkuntza-eredu berri hori gustuko zuten ala ez; euskara batuan egiten ba al zekiten ere ez zitzaien galdetu. Besterik izan zen galdeketaren ardatz: euskaldunak (euskal idazleak, irakasleak, ikasliburugileak,..) zer aldaeraz (batuaz, euskalkiaz,..) baliatzen ziren 1978an, Arantzazu pasa eta handik hamar urtera, jardun-gune eta rol-harreman jakinetan.

II.3. 1978ko ebaluazioa

1978an, Arantzazuko Biltzarraren hamargarren urteurrena zela-eta, aurrez aurreko erantzuna ematen saiatu zen Euskaltzaindia goiko galdera horri. Ondoko esparruok arakatu zituen horretarako, berariaz: euskal idazleak⁴⁶, liburugintza⁴⁷, irakaskuntza⁴⁸ eta helduen alfabetatze-euskalduntzea⁴⁹. Kasu guztietan aurrez eginiko inkestak, eta inkesta horiei emaniko erantzunak, izan ziren aztergai. Labur-labur aipatuko dira azken hiru inkesta haien emaitza batzuk.

a) Liburugintza

1967tik (Arantzazuko biltzarra egin aurreko azken urtetik) 1977ra euskal liburugintzak izandako bilakaera aztertu zuen Joan Mari Torreldaik. Liburugintza horretan aldaera bakoitzak zer bizi-indar ageri zuen neurtua

⁴⁵ Hori da hizkuntza-soziologiaren ikuspegi klasikoa, gure artean errazegi ahaztu ohi duguna.

⁴⁶ Martin Ugaldereen kontu joan zen azterketa-zati horren aurkezpena. Ikus *EUSKERA* XXIV, 1978-2: 481-501 or.

⁴⁷ Joan Mari Torreldaik egin zuen azterketa-zati horren aurkezpena. Ikus *EUSKERA* XXIV, 1978-2: 503-522 or.

⁴⁸ Xabier Mendigurenen kontu joan zen azterketa horren aurkezpena. Ikus *EUSKERA* XXIV, 1978-2: 523-531 or.

⁴⁹ Andoni Sagarnak egin zuen azterketa-atal horren aurkezpena. Ikus *EUSKERA* XXIV, 1978-2: 535-555 or.

zuen Siadecok, Euskaltzaindiaren enkarguz, eta datu-neurketa horren emaitzak landu zituen berak. 1967-1977 hamarkadako liburugintzari buruz, konkretuki, ondoko emaitzok eskaini zituen Joan Mari Torreldaik:

Jakintza-gaia	Aldaera bakoitzaren %				
	Euskara batua	Gipuzkera	Bizkaiera	Ipar euskalkiak	Zehaztu gabe
Oro har	55,2	18,4	13,2	13,2	0
Literatura	41,8	27,6	16,4	11,9	2,3
Irakaskuntza	71,1	10,5	15,8		2,6
Natur zientziak	80,0	13,3			6,7

Bistan zegoen kontua: euskara batua nagusitzen ari zen oro har, baina euskalkiek (guztira, ez banaka) presentzia ohargarria zuten oraindik. Jardungune batetik bestera bazegoen alderik, nagusitze-erritmo horri zegokionez. Irakaskuntzan egin zuen euskara batuak aurrera, beste inon baino nabarmenago, hamarkada horretan⁵⁰. Ikasmaterialen hiru laurden inguru euskara batuan argitaratu ziren hamarkada horretan. Literatura-lanetan, aldiz, pausatuago zihozen gauzak. Eredu bateratua zen hor ere nagusi (nagusitasun erlatibo, ez irakaskuntzan bezala absolutuz), baina gipuzkerak (eta, beste neurri batean, bizkaierak eta iparraldeko eredu osatuak) indar bizia ageri zuten oraindik. Urterik urteko bilakaera ikusiz, berriz, argi zegoen batez besteko joera: gero eta euskara batuaren aldera makurtuago zegoen liburugintza, kopuruz eta tiradaz.

b) Irakaskuntza

Gauza bat zen, noski, testu-liburuak idazteko zer hizkuntza-eredu aukeratzten zen. Bestea, aldiz, irakasleek ikasleekin (hitzez eta idatziz) nola egiten zuten. Berariazko galdeketa egin zitzaion, horretarako, hainbat maisu-maistrari. Irakasle horiei pasatako inkestaren emaitzak Xabier Mendigurenek landu eta aurkeztu zituen. Ahozko jardunari zegokionez ez zen argi esaten, Gipuzkoako irakasleak zer neurritan ari izaten ziren ikasgelan hizkuntza-aldaera batuan eta zer neurritan gipuzkeraz. Bizkaian, aldiz, ikasleen etxetikako aldae-

⁵⁰ Natur zientzien lerroa hor sartzekoa da, jakina.

ra aintzakotzat hartu beharraren kezka argia ageri zuten bertako irakasleek: “euskalkitik baturanzko pausuak pixkanaka eman beharra (..), haur euskaldunei dagokienean batik bat. Herriak darabilen euskara kontuan hartu beharra behin eta berriz azpimarkatzen da, bien galerarik gerta ez dadin” (Mendiguren, 1978: 529).

Ohar osagarriak egin zituen, bestalde, ikastetxeetako hainbat zuzendarik. Zuzendarien erantzun horietan, besteak beste, honako hau ageri zen: Haur euskaldunei batua irakastean hizkuntzak eragozpenik sortzen duen galdetzean, zuzendari gehienek ez zuten ezer erantzun: informaziorik eza, kasu horretan, %55,6koa izan zen; baietz (hots, euskara batuak eskolan eragozpenik sortzen ziela) erantzun zutenak %22,2 izan ziren. Galdera horri ezetz erantzun ziotenak, azkenik, %18,5 izan ziren Bizkaian⁵¹ (Mendiguren, 1978: 530). Ondorio argia atera zitekeen, hortaz, hitzezko eskola-erabilera idatzizko testu-erabilerarekin alderatuz. Errazago jotzen zen euskara batura irakurritzko jardunean, hitzezkoan baino. Bi mundu zeuden hor, kontuan hartu beharrekoak.

c) Helduen alfabetatzea

Gauza bat zen haurrei euskara edo euskaraz irakastea, eta beste bat euskaldun helduak alfabetatzea. Amaitu berriko agintaldian ezinezkoa izana zen luzaz, hartarako debeku hertsiaztatik, belaunaldi berriak era publiko eta masiboan euskaraz alfabetatzea. Bazegoen bestalde kontzientzia argia, xx. mende-amaierako eta Mendebal Europako kontestuan ezinezkoa zela euskarari bizirik eustea, hitzezko jardunari neurri batean edo bestean idatzizkoa erantsi gabe. Uste-sinesmen gotor horrek eraginik antolatutak ziren hamar bat urte lehenago, Rikardo Arregi bidegile nagusi eta Euskaltzaindia babesle ofizial izanik, alfabetatze-saioak. Aurrez aurre heldu zion beraz, esparru horri ere, Euskaltzaindiak bere galdeketa hartan. Andoni Sagarnak aurkeztu zituen langintza hartatik jasotako emaitzak. Bergarako jardunaldian berak aurkezturiko txostenetik jasoak dira ondoko datuok. Bazen hor ere, eskuartean dugun konturako, berariaz aztertzea merezi duen punturik. Euskalkiz hitz egiten zutenei batua irakasteak zer eragozpen sortzen zituen galdetu zitzaielarik, argitasun nabaria eskuratu zen. Honako erantzuna eman zion emaitza-aurkezleak, konkretuki, goiko galdera horri:

⁵¹ Aldaera batuak eragozpenik sortu sortzen zuela zioten zuzendariak zer lurraldetakoak edo zer euskalki-esparrutakoak ziren ez zen zehaztu azalpen hartan.

Zer eragozpen	%
Eragozpenik ez	25,9
Euskalkiarekiko diferentzia	20,0
Irakasleen ezaguera falta	3,5
Batuaren zailtasuna	7,0
Besterik	20,0
Erantzunik ez	20,0

Deigarria zen hor ere, jakina, %40k “besterik” edo “ezer ez” erantzutea. Euskalkiarekiko diferentzia hori eragozpen-iturri zela esan zutenak, berriz, hona zein lurraldetakoak ziren:

	Araban	Gipuzkoan	Nafarroan	Bizkaian
Euskalkia arazo, %	11,8	35,3	5,9	47,1

Bizkaikoak ziren gehienak, dudarik gabe. Kopuru ohargarria ageri zen ordea Gipuzkoan ere. Gipuzkoako emaitza altua interpretatzerakoan, ohar hau egin zuen txostengileak: “kontuan izan behar da Gipuzkoako mugen barnean bizkaiera erabiltzen duten eskualdeak badirela, beraz euskalki hau dutenentzat azaltzen da eragozpen hori” (Sagarna, 1978: 541). Labur bilduz, bizkaieratik euskara baturako jauzia lan nekezagoa zen, nabarmen, gipuzkeratik egin beharrekoa baino. Aparteko eragozpena zekarren eredu bateratu horrek *dot*-esparrura: bai eskola-umeen artean zabaltzeko orduan eta bai helduak alfabetatzeko. Hizkuntzaren batasun-bidea batez ere “arazo linguistikoa” zelako ustea, “filologoek eta hizkuntzalari adituek” konpontzekoa alegia, ustel ageri zen hor. Munduko bibliografia teknikoak aspaldidanik baztertua daukan ikuspegi ximple bezain okerra auzitan jarri ziguten bertako eskola-arduradunek eta alfabetatze-lanean ari ziren profesionalek.

II.4. Iritziak eta jakinarazpena: Euskaltzaindiaren adierazpena

Guztia ez zen, beraz, linguistika kontua euskararen batasun-bidean. Urterik urteko ibilia argi erakusten ari zen, gustatu ala ez, linguistikazko *expertise*

delakoa baino zerbait gehiago behar zela ganorazko corpus-plangintza diseinatu, aplikatu eta, batez ere, emaitza onik eskuratu ahal izateko. Halakorik ez zen Arantzazun berariaz landu. Pragako paradigmaren oinarritua zegoen Mitxelenaren txostena: ikuspegi linguistikoa zen han nagusi, nahiz eta zentzu handiko ohar soziolinguistikoz hornitua etorri txostena. *Estatus*-plangintzarik ez zen Arantzazun landu: are gutxiago *acquisition*-plangintza zehatzik. Heldu beharra zegoen ordea puntu horiei ere. Bigarrenari, hizkuntza-ereduaren eskola-esparruko plangintzari, berehala erantzun beharra zegoen batez ere: umeak pilatzen ari ziren ikastoletan, eta herri-ikastetxeen zein bestelakoen ordua ere hurbiltzen ari zen nabarmen. Ez zen horri buruzko iritzi-azalpenik falta izan, horrexegatik, euskararen batasun-bidearen hamargarren urteurren hartan.

Iritzi kontrajarriak, ugari eta bero, entzun ziren Bergaran 1978an. Ez zen, urrundik ere, adostasun-girorik lortu bertan. Datu enpirikoek garbi azaltzen zuten euskara batuak bere bidea egina zuela eta halako *locus* bat eskuratua zeukala jadanik. Aski leku zabala, gero eta nagusitasun handiagokoa, plano idatzi-formalean. Alor horretan egindako bidea onuragarria eta arrakastatsua izan zelako iritzia nagusitu zen argi Bergaran. Ahozkoan eta eskolaumeekiko jardunean, aldiz, ezer gutxi aurreratu ahal izan zen: iritziak ondotoxoz urrunago zeuden elkarrengandik, eta zail zen emaitza bateratu gotorrik azaldu ahal izatea: kasuak eta kasuak zeuden hor, *det/dot* esparruen banalerro.

Iritzi-batasun argirik lortu ez izanak ez du esan nahi, iritzi-molde batek edo bestek bere bidea egin ez zuenik. Mikel Zarateren testigantza eta ikuspegia izan zen, eskuartean dugun gaiaren aldetik, osatuena eta gerora begira pisuzkoena⁵². Lehenengo hamar urteetan euskara batuaren alde egindako lana aintzakotzat hartuz, baina hasierako helburuen iturrietara itzuliz, bestelako enfasia eta bestelako formulazio malgu orotarikoagoa ekarri zuen bere argudio-bideak. Erdibide baterako zenbait elementu konkretu eskaini zituen bertan. Gerora aski hurbiletik jarraitu diren zenbait elementu, hain zuzen: ortografia bakarra, euskal aditz batuaren ondoan *substandard* dialektal baturanzkoa⁵³ (bizkaieraren-

⁵² Ikus *EUSKERA* 1978-2: 557-77 or.

⁵³ Hona Mikel Zarateren proposamena (Zarate, 1978: 567): “aditz *substandard* bat, baturanzako maila bat egitea eskatuko nuke bizkaitarrentzat eta lapurtar eta zuberotarrentzat ere bai agian, euskera bizitik euskara batu bizirantz goazelarik ahalbait arinen eta egokiro joateko”. Fishman-Lovas-en terminoa gureru egokituz oker handirik gabe esan liteke *Transitional bivarietal education* formularako definizio-saioa izan zela Zaraterena, funtsean. Gutxitan akordatzen bagara ere horretaz, Mitxelenaren Arantzazuko txostenak berak bazuen hartarako aurreikuspen espresa. Horra Erretereriako maisuaren hitzak: “ez letorke kalte handirik oraingoz,

tzat, zubererarentzat,..), euskara batua eta euskara bizia elkarrengandik bereiztearen arrisku benetakoa,.. Ez zen une hartan, esan bezala, erabateko adostasunik eskuratu puntu horretan. Garbi antzematen zen hori Bergarako Biltzarraren ondoren, handik gutxira, Euskaltzaindiak jakitera emandako adierazpenean. Honela zioen adierazpenaren 5. puntuak: “euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak aztertu eta landu behar direla uste du Euskaltzaindiak, ortografia eta hizkuntzaren azpiegitura zainduz”.⁵⁴ Bateragarria zen baieztapen hori Mikel Zarateren argudio nagusiekin. Axalean gelditzen zen, ordea, garapen-kontuei zegokienez. Biltzarreko gogo-giroa kontuan izanik ez zuen Akademiak, une hartan, zehaztapen handiagoetan sartzeko modurik ikusi.

Gauza bat zen ordea adierazpen akademiko-instituzional soltea, eta bestea gizarte-ekimena. Bigarren puntuari dagokionez bistan zegoen emaitza: mila eztabaida eta iritzi-banatzeren erdian bide handia eginik zen Arantzazuko biltzarraren ostean, 1968tik 78ra bitartean.

III. Herri-aginte berrien posizio ofiziala, 1979tik 1982ra

Aldaketa instituzional ohargarria gertatu zen garai-inguru hartan: Eusko Kontseilu Nagusia sortu zen 1978an eta handik gutxira, 1980an, Konstituzioaren ildotik EAEko Autonomia Erkidegoa eratzearekin batera, Eusko Legebiltzarra eta Eusko Jaurlaritza (bir)sortu ziren Gasteizen. Berrikuntza sakon horien ildotik bazen handik aurrera Hezkuntza Sail bat, kontu horiei aurrez aurre heldu ahal izango ziena. Pauso berriak emateko ordua zen. Nola eman ordea, eta zer norabidetan, pauso horiek? Zer leku eman euskara batuari, eta zer leku euskalki-aldareei, EAEko eskola-munduan?

Lakuako agintari berrien artean, batetik besterako alderik falta ez izan arren honetan edo hartan⁵⁵, hizkuntzaren batasun-kontuei zegokienez aparte-

beste puntuetan bateratsu bagentoz, aditz laguntzaile molde bat baino gehiago usatzetik. Egizta bait daiteke aditz laguntzaile horiek isomorfoak edo direla euskalki bakoitzean, eta euskalki batetik bestera ere bai, beharrik” (*EUSKERA* XIII. 1968: 218, in Zarate 1978, 567).

⁵⁴ Ondoko bi arrazoibideok zerabiltzan Akademiak, baldintza bi horien ezarpenerako: a) Euskara hizkuntza bat dela eta ez hizkuntza asko, eta hizkuntza horretan ortografia bat bakarra behar dela, bai euskara batuan eta bai euskalkietan; b) Sarri gertatzen dela gaur hizkuntzaren barnean hesiak geroago eta gogorrago bihurtzea, elkarganatu beharrean bata bestetik urrunduz: a organikoaren erabilera, mugagabearena eta beste hainbat arau, horrela, bere jatorrasunean mantentzea komeni da euskara batuan zein bizkaieran.

⁵⁵ Terminologia teknikoak osatzen eta bateratzen joateko bideari zegokionez, batez ere UZEIrekiko harreman-bide instituzionalaren alorrean, alderik antzeman zen inoiz Hezkuntza

ko pisua izan zuen irizpide honek: euskal munduak azken urteetan egindako bidetik jarraitzea komeni zen oro har: handik abiatu egin behar zen aurrera, ez saio hura ahaztuz edo zapuztuz. Ibiliko bidea gauza bat zen ordea, guztia-ekin ere, eta beste bat handik aurrera ibili beharrekoa. Iritzi-diferentziak aski nabarmen zirelarik zenbait esparrutan, erdibideko bateratze-saioa egin behar izan zuten EAEko herri-aginte sorberriek, gaiari irtenbide egoki bat emateko. Horretan saiatu ziren, 1981-82 epean bereziki, Legebiltzarra eta Eusko Jaurlaritza (konkretuki, bertako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila). Orduko lan haien errepeaso xumea egingo da hemen, eta garai hartan hartutako zenbait erabakiren izaera eta aplikazio-ahalmena berariaz baloratuko.

III.1. Legebiltzarra: 1982ko Euskararen Erabilera Normaltzeko Legea

Badu EEN legeak, eskola-munduarekin harreman zuzena duten puntuen ondoan, *corpus-* eta *acquisition-*plangintzekin aski harreman hurbila duen kontu bat: euskara batuaren eta euskalkien erabilera. Honela dio EEN legeak, horretaz ari delarik:

Jaurlaritzak euskararen batasuna eta normalizazioa begiratu du, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan idatzizko hizkuntza ofizial komunenez, Euskal Herriaren kultura-ondarearen funtsezko zati diren euskalkiei bizirik diren tokietan zor zaien begirunea gora behera⁵⁶.

Eskola-esparruaz gainetik ari da hor legea, hitzez hitz hartuta: euskara batuaren eredu-finkapena du xede nagusia, batetik, eta lekuan lekuko aldaerei zor zaien begirunea zaintzea bestetik. Kontu horiek ezin dira ordea, praktikan, eskola-mundutik hain erraz disoziatu. Arauzko hizkuntza-ereduen finkapen hutsa ezer gutxitarako izaten da, hasteko, jendeak eredu hori ikasten eta, idatziz bederen, erabiltzen ez badu. Idazteredua ikasteko orduan, nahi eta nahi ez, hor dago eskola: ez da hartarako leku bakarra, baina bai beharrezkoa eta garrantzitsua. Leku egokia da hezkuntza, corpus-plangintzaren gai horri au-

eta Kultura Sailen artean. Aparteko azteraldi sakon eta zehatza beharko luke horrek, ordea; gaurkoan ez gara, beraz, azterbide horretan barrena abiatuko.

⁵⁶ Ez da hau jatorrizko euskal idazkera, garai hartako *EHAAn* ageri zena, Jaurlaritzaren Itzulpen Zerbitzu Ofizialean geroztik egin dena eta hainbatean kurrutzen duena baizik. Ez dut uste, azken “gora behera” horrek jatorrizko esangura oso zuzen ematen duenik. Ikuspegi nagusia, dena den, esaldi osoa irakurritz argi dagoela uste dut.

rrez aurre heltzeko. Hamalau bat urte (gutxienez) eskolan daudelarik ikasleak, aukera ederra legoke berez euskararen idazteredu bateratua erakutsi, landu eta erabiltzeko batetik, eta lekuan lekuko aldaera bizien ezaugarriak eta berezitasunak era egituratuan azaldu eta ikasleen erreperitorio linguistikoan mantendu edo erreperitorio linguistiko horretara hurbiltzen saiatzeko bestetik.

Badirudi helburu bikoitz hori duela legeak gogoan, 1968ko paradigmaren zordun izanik batasun-lanketa hartzen duelarik lehentasunezko helburu. Aski llaburra eta generikoa izanik ere, badu EEN legearen artikulua horrek bere eragina. Gauza bi zaintzera behartzen du Jaurlearitza: euskararen batasuna eta normalizazioa begiratu behar du, lehenik eta behin; kultura-ondarearen funtsezko zati diren euskalkiei bizirik diren tokietan zor zaien begirunea izan behar die, bestetik. Errazagoa da hori esaten, noski, egiten baino. Nola egin behar zuen hori Eusko Jaurlearitzak? Nola erantzun behar zion lege-agindu horri, batez ere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak?

III.2. Eusko Jaurlearitza: Hezkuntza Sailaren Pastoral

Jaurlearitzak bazuen motiborik, eskolan erabili beharreko euskara moldearen kontua gero geroaren zain ez uzteko. Gogoia eta irrika, ametsa eta itxaropena, beldurra eta errezeloa askotarikoa zen gai horren inguruan: era batekoa eta bestekoa. Hori dela-eta 1981-82 kurtsoan bertan, Jaurlearitza hartara behartzen zuen EEN legea atera aurretik hortaz, ekin zitzaion lanari. Gauza jakina zen, bere azken fasean abiatua baitzen prozedura parlamentarioa, azalpen laburra emango zuela Legebiltzarrak puntu horren gainean: EAeko indar politikoen (Legebiltzarrerara joaten ziren herri-ordezkarrien) artean ez zen antzematen askoz zehaztapen handiagotarako adostasun-girorik. Zegoenari heldu behar, beraz. Azkenean gertatu zen bezala, Jaurlearitzari eman zion Legebiltzarrak zezenari adarretatik heltzeko mandatua. Berari suertatu zitzaion, bestela esan, Legebiltzarrak ordurako begi onez ikusten zuen eta handik berehala jakinarazi zuen irizpide nagusia neurri konkretuen bidez gartztea. Hezkuntza Sailaren esku utzi zen garapen-ardura hori, nagusiki. Bertako Euskara Zerbitzuari gotziti zitzaion gaia teknikoki bideratzeko ardura⁵⁷

⁵⁷ Hurbil samarretik heltzen dit, beraz, puntu jakin honek: aski aurre-aurreko frontean bizi izandakoa gaia dut. Norberak jakin dakiena eta sentitzen duena bereiztea ez da, halakoetan, nahi bezain erraza izaten. Distortsio-arrisku horretaz jabeturik, eta orduko dokumentua eskueran izanik, saiaturiko naiz kontu haiek ahalik eta txukunen laburbiltzen. Lan handia eta esker-

Eskola gizarte-gaitz guztien konponbide nagusi (zenbaitetan konponbide bakar) delako ikuspegia erabat etxeratua genuen. Horrezaz gainera, orain ez bezalako fedez heldu genion hainbatek, Hezkuntza Siletik, kontuari: *fede itsuz* ere bai zenbaitetan, itsutasun hori hitzaren adierarik nobleenean hartuz, hala har baledi. Lan nagusi bi egin zituen Euskara Zerbitzuak 1981-82 ikasturtean, jasotako mandatua garaiz eta zuzen bete nahirik: a) galdeketa zabala egin zitzaian, batetik, Bizkaiko Eskolaurreko eta OHoko irakasleei⁵⁸: bai herri-ikastetxeetako, bai ikastetxe pribatuetakoei eta bai ikastoletako andereño eta irakasleei; b) bestetik, berriz, ikastetxeentzako gomendio-oinarria, eskolan erabiltzeko aldaeraren barne-osaera nagusia eta, perspektiba zabalean, aurrera begirako lan-ildo instituzionala diseinatu ziren.

Lan handi samarra ekarri zuen galdeketak, prestaera-fasetik hasi eta azken ondorioen idazketaraino. Hori baino lan-karga handiagoa, delikatuagoa ere bai hainbatean, ekarri zuen ordea bigarren eginbeharrak. Ikastetxeentzako gomendio-oinarria, eskolan erabiltzeko bizkai-aldiera idatzizkoaren barne-osaera nagusia eta, perspektiba zabalean, aurrera begirako lan-ildo instituzionala diseinatzea bereziki lan bihurriak gertatu ziren zenbait aldiunetan. Horren inguruko zenbait joan-etorri azaldu nahi da hemen. Hiru atal izan zituen, nagusiki, bigarren lan horrek:

- a) batetik, estatus-plangintza fokalizatua: Bizkaiko ikastetxeetan, Haur-eskolan eta OHOn, aplikatu beharreko estatus-plangintzaren oinarriak jartzea (zer leku komeni zen euskara batuari atxikitzea, eta zer leku bizkai-euskarari?);
- b) bestetik, eskoletan aplikatzekoa zen bizkaiera horren corpus-plangintza (zer osaera izatekoa zuen bizkaiera horrek ortografia aldetik, hitz-altxor tradizionalen eta terminologia berriaren sailean, morfologian (batez ere aditz-forma dibergenteen alorrean) eta sintaxi-joskeran?);
- c) azkenik, zer eginbehar ezarri behar zion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bere buruari, corpus- eta estatus-plangintza horien inplementazio-mamikuntzari zegokionez?

tzekoa egin zuen alor horretan, batez ere 1981-82 ikasturtean, gero aski bestelako lan-alorrean diharduen Itziar Garaizarrek.

⁵⁸ Mila irakaslek baino gehiagok erantzun zion galdeketa hari, xehe-xehe, eta erantzun haietatik eratorritako emaitza-ondorioak berriazko txosten batean bildu, landu eta Sailaren esku jarri ziren ikasturtea amaitu aurretik. Diogun, labur beharrez, Euskaltzaindiak 1978an egindako galdeketaren ildotik ibili zirela emaitza-ondorio nagusiak. Aurrekoan ez bezalako xehetasun ugariak eskaintzen zituen, ordea, oraingo azteraldi honek.

Hiru atal horiek garaiz bideratu ahal izateko, aurre-pauso jakina eman zuen Sailak lehenik eta behin: aurrera eraman nahi zen planaren jakinaren gainean jarri zuen Euskaltzaindia (euskaltzainburua lehenik eta behin), tartean sor zitezkeen gaizkiulertuak eta ika-mikak aldez aurretik saihestearren. Solaskide autorizatuen bilaketa egin zen gero: nor izan zitezkeen, plano linguistikoa zein sozialean, honelako lan baten bide-urratzaile eta bermagarri egokienak? Norbanako eta talde-izaerako hainbat eragileri kontsulta egin zitzaion horretarako: aparteko garrantzia aitortu zitzaion haien guztien iritziak bildu eta egituratzeari. Lan handia ekarri zuen berekin, solaskide guztiekiko ideia-trukeak eta desadostasun nagusien identifikatze-lanak. Corpus-plangintzarako lan-taldea eratu zen, aldi berean: berariazko lan-taldea eratu zuen Sailak, bere emaitzak beti ere azken-azkenean Euskaltzaindiari aurkezteko eta bere hobekuntza-oharrak eta irizpen orokorra aintzakotzat hartzeko konpromiso espresaz. *Substandard* gisako bizkaiera bateratu horren morfosintaxia zehaztea, batez ere aditz-paradigma finkatzea, izan zen lan-taldearen lehenengo (eta, gerora, garrantzi handieneko) eginbearra. Denbora eskatu zuen horrek, baina bere bidea egin zuen lan-taldeak eta, azkenik, Euskaltzaindiak berariaz aztertu ondoan lan-taldearen proposamena, eta zenbait aldakuntza gomendaturik, bizkai-aditzaren (eta gaineratiko zertzeladen) sintesizko idazkuntza prestatu zen⁵⁹.

Besterik zen, jakina, estatus-plangintzaren auzia eta horren ondoriozko konpromisoa, Sailak bere buruari ezarri beharrekoa. Dokumentu bakar batean bildu nahi ziren puntu biak, Euskararen Aholku Batzordean landu eta, bere gomendio-oharrak aintzakotzat hartuz, epe jakinean eskola-munduari eskaini. Hartarako erabakia aurrez hartua zuen Sailak. Bere denbora eskatu zuen horrek ere. Hainbat hezkuntza- eta kultura-eragilerekin bildu, kontuak zehaztu, han-hemengo bibliografia teknikoa bildu eta guztiarekin dokumentu-zirriborroa idaztea: hori izan zen Zerbitzuaren aldi hartako eginbear nagusia. Aurrera begirako asmo instituzionalen zirriborroa idatzi eta zirkulazioan jartzeak ere hilabeteetako lana zekarren. Kontu biak dokumentu berean jasotzea erabaki zuen Sailak, esan bezala. Azkenik, gaia aski zoriturik zegoela uste izan zenean, 1982ko udazkenean, Euskararen Aholku Batzordera eraman zen adierazpen-zirriborroa. Batzorde horretan aurkeztu, eztabaidatu eta adostu ondoan berariazko adierazpen gisa eman zuen Sailak argitara, eta Bizkaiko eskola guztietara zabaldu. 1982ko urriaren 22an onarturiko dokumentua da

⁵⁹ Ez zen lan erraza izan, Bizkaierazko aditz-jokoaren ikuspegi nagusi bi bateratzea. Formula eklektikoa hobetsi zuen azkenik Sailak: “hubiera o hubiese” moduko formula, halakorik esatea aizu balitzait.

hori. EEN legearen ia parekoa hortaz, kronologia aldetik. Hori da, labur beharrez, *pastoralaren* sorreraz⁶⁰ eta ibilbideaz gogoan dudana historia laburra.

Bizkaiera/batua bilakatu zen une batetik aurrera, hegoaldean⁶¹, eskola-es-parrurako corpus-plangintzaren auzi-gai nagusietako bat⁶². Bizkaian izan zuen eztabaida hark eraginik biziena. Garbi ikusi ahal izan genuen orduan, horren berri zehatzik ez genuenok, corpus-plangintzaren azpian linguistika kontu hutsa baino ondotoz gehiago zegoela. Fishman-ek behin eta berriro esan izan duena⁶³ eguna baino argiago agertu zen orduan: corpus-plangintza ez dela, urrundik ere, hizkuntzalarien arteko kontu teknikoa, muga-baldintza soziokulturaleraz eta hobespen ideologiko jakinez zorrotz inguraturiko prozedura

⁶⁰ Adostutako dokumentuari izen berezi hori jarri zion garai hartako Hezkuntza-sailburuordeak, gaur (2008an) Eusko Ikaskuntzaren buru lehen dugun Xabier Retegi jaunak: *Pastorala*. Handik aurrera, lautatik hirutan, hori izan zuen izengoitia eta, are, benetako deitura operatiboa: pasako al didazu *pastoralaren* ale bat, mesedez? Bitxitasun hutsa baino zerbait gehiago ere bada hori: Legebiltzarraren mandatua betetzeaz gainera, asmo-adierazpen haren bidez bakea egin nahi zen, batetik, eta erdibide eragingarri bat bilatu eta adostu, bestetik. Ez naiz eliza kontuetan aditu, eta ez dakit pastoralen xedeetako bat hori izan ohi den. Garai hartan hala iritzi zion hainbatek, ordea: kontuan hartzeko datua iruditzen zait, horregatik.

⁶¹ Iparraldean ez zen une hartan, dakidan neurrian, halako eztabaidarik piztu. Euskarazko irakaskuntza hain mugatua izanik bertan kopuruz (orduan, bereziki), eta euskara batuaren (batez ere hasiera hartako) hainbat ezaugarri nafar-lapurteratik hurbil samar egonik, eztabaidarako motiboak nekez izan zitezkeen hegoaldean (bereziki *dot*-esparruan, eta are berezikiago Bizkaian) bezain larri. Egon bazen ordea, han ere, gai horretaz arduratzeko motiborik. Une batetik aurrera hegoaldeko hainbat testuri egin zitzaion egokitzapena edota Zuberoarako eskola-hiztegi berezitua ditugu, besteak beste, orduko zenbait arazoren testigu. Ikuspegi zabal eta eguneratuagoa eskuratzeko ikus Xole Aire, Margarita Errekarte, Marita Laco, Alazne Petuya eta Guillermo Etxebarria, 2001. Ondorio argigarriak eskainiko lituzke, orobat, Euskararen Erakunde Publikoaren eraginez azken aldirian prestatzen, argitaratzen eta zabaltzen diren testu-liburuaren azterketa pausatua.

⁶² Auzi-gai nagusietako bat, ez bakarra. Perspektiba zabalagoan, Bizkaian eta nonahi, mailaguzko hitzen trataera grafikoa berariazko auzigai bihurturik zegoen une hartan. Mitxelenaren UZEIrekiko iritzi-kontuak mahai gaineratzea eskatuko luke horrek, auziaren nondik norakoaz bere osoan jabetzeko. Ez da hori ordea txosten honen aztergai. Beste baterako utzi beharko da kontua, hortaz.

⁶³ Ikus, adibidez, bere 1983ko “modelling rationales in Corpus Planning: modernity and tradition in images of the *Good Corpus*”. Handik jasoak dira, esate baterako, ondoko esaldi hauek: “The tendency to view corpus planning as nothing special, as just one more technical skill that a linguist should be able to pull out of his bag of tricks, is a triple mistaken. It reveals a misunderstanding of lexicons per se, of corpus planning as a whole, and of the societal nexus of language planning more generally. (...) It is a devastating mistake to assume that corpus planning merely requires the interplay and coordination of linguistic expertise and technological expertise” (Fishman 1983: 108-9).

konplexua baizik. Argi agertu zen orduan, alde batetik zein bestetik heltzen genion guzti-guztiok genituela geure ikusmolde eta amets-irrika diferentzialak: ortografia-aukera, lexiko-modu eta aditz-forma jakinen gaitetik gure hiztun-herriaren (bere baitako hiztun-talde handienetariko baten) lehenaz, orainaz eta geroaz geniharduela han. Oso garbi ikusi zen, orobat, eskolaumeen trataera pedagogiko egokienaz gainera euskara batuak eta euskalkiek gizarte berrian (konkretuki, eskola-esparruan) eskuratu behar zuten *lekuaz* eta *zentraltasunaz* iritzi diferenteak genituela. Hots, corpus-plangintza hark bazuela estatus-agenda gordea: arazo linguistikoez gainera, eta arazo haien gaitetik, hizkuntza-aldaeren dimentsio soziologikoa izan genuen guztiok, aldi hartan, benetako eztabaida-gai. Eztabaida soziologiko horren barruan, aparteko zentraltasuna aitortu zitzaizen ikuspegi sozioedukatihoi: zein hizkuntza-aldaerez baliatzea komeni zen Bizkaian, etxetik euskaldun ziren neska-mutilekin, euskarak auzo-giroan (gazte-gaztetxoan jolasean eta helduen lagunartean) bizi-indar propioa ageri zuen ingurumenetan bereziki?

III.3. *Nondik nora jo behar da?*

Ez zegoen azken galdera-sorta horri ihes egiterik. Eztabaida linguistikoa hutsetik aparte, eta haren gaitetik, eztabaida sozioedukatihoa, eta soziolinguistikoa oro har, erabakizun zeudela aitortu zuen, horregatik, adierazpenak. Ondoko bost puntu hauen inguruan mamitzen ziren eztabaida gehienak, bere ustez:

- a) Ahoz eta idatziz jokabide bera ala desberdina eramatea komeni da, Bizkaiko ikastetxeetan, euskara eta/edo euskaraz irakasterakoan?
- b) Jokabide berdinez ala berezituz jardutea komeni da Bizkaiko Lurralde desberdinetan.
- c) Bai bizkaieraz eta bai euskara batuaz jarduterakoan eskola-munduan, zer adinetan komeni da bizkaieraz jardutea, eta noiztik aurrera euskara batuaz?
- d) Etxetik erdaldun diren umeentzat zein jokabide hobesten da?
- e) “Bizkaiera” esaterakoan, batez ere idatzizko zereginetarako, zein eredu konkretuz ari gara: zein ortografiaz, zein arau morfosintaktikoz, etab...

Bost puntu horietatik azkena (bosgarrena) bakarrik zen, bistan denez, linguistikoa hutsa. Soziolinguistikoak edo sozioedukatihoak ziren lehenengo lauak: *acquisition-planning* edo *enrichment bilingual (bidialectal) education*

alorrekoak. Goraxeago ere jotzen zuen txostenak, bere marko nagusia ezar-terakoan: irakaskuntzak eskakizun desberdinei erantzun behar diela gogoraz-razten zuen; eztabaida guztia ezin izan zitekeen hizkuntza-aldaerek eskolan behar luketen pisuari buruzkoa. “Helburu nagusia beti ere ikasleen euskaldun-ze eta alfabetatzea” dela esanaz abiatzen zen, eta gerora kontzeptu soziolin- guistiko zentral bilakatu zaigun gogoeta dual hau kaleratzen zuen: “eskolau- mea bere bizi-giro eta gizarte-ingurune hurbilean egoki txertatzeko eta ingurune horrekin etenik ez sortzeko, bertako euskalkiaren erabilera erraz eta bizia segurtatu *behar zaio*; bestetik *euskara batua erakutsi behar zaio*, egungo eta bihar-etzietako euskal belaunaldi gazteen elkar ulerpenerako eta kultur dimentsio osoaz jabetzeko tresnarik egokiena berau izango delako”. Eskaki- zun biok oinarrizko euskalduntze- edo alfabetatze-prozedura horren bata- sunean eraman beharrekoak ikusten zituen Sailak. Egoera eta lehen asmoak zirriboratu ziren atal horretan. Aurrera begirako ezer egingo bazen, printzipio operatibo argiak behar ziren. Hamar puntutara bil daitezke, orduko doku- mentua berrirakurritik eta sintesi-saioa eginez, *Pastoralaren* printzipio haiek.

III.4. Hamar mandamentuak: HUISen irizpide nagusiak

Hamar mandamentuen izena, langintza hari dagokionez, orain asmatua da. Orduko *Pastoralaren* ildotik asmatua halere, ez hutsetik sortua. Honako hamar irizpideok hartu zituen txosten hark gidari, handik aurrera egin nahi zen aplikazio praktikoaren zimentarri:

- a) *Euskara hizkuntza bakarra, berezkoa eta ofiziala da.* Euskaltzaindiak argi aldarrikatua zeukan hizkuntza bakarraren kontu hori, eta bide horri eutsi zitzaion Pastoralen ere. Horrezaz gainera, Autonomia Estatu- tuaren 6. artikulua aitortu berria zuen Euskal Herriaren berezko hizkuntza dela euskara eta, gaztelaniarekin batean, Autonomia Erkide- goan hizkuntza ofiziala. Hori ere bere horretan jaso zuen Pastoralak.
- b) Euskaldunok mendez mendez erabili ditugun *euskalkiek osatzen dute*, orain ere, euskal *hiztunon obiko hizkera-bide bizi* nagusia: bakarra den hizkuntza hori euskalki bidez ezpain-belarrietaratu ohi da, normalean, bizi-eremu arrunt eta ugarienetan. Euskalki horietariko nagusi bat, bil- tzen duen hiztun-kopuruaz eta bere baitan ageri dituen nortasun-ezau- garriez aski berezia, bizkaiera da.
- c) Euskaldunok badugu euskalkiez gainera, idatzizko zereginetarako ba- tik bat baina baita jendarteko adierazpide komun gisa ere, hizkuntza-

eredu bateratua: *euskara batua*. Euskalkiek enbor berekoa duten zati handi horretan oinarritua dagoenez, euskaldun guztion lanabes eta ondare da hizkuntza-eredu bateratu hori: hala zioen, bestalde, Hezkuntza Sailak.

- d) Euskara batua neurri handi batean erdialdeko euskalkietan oinarritua dagoenez, bizkaieratik eredu bateratu horretaraino dagoen tarte nabarmenki handiagoa da Autonomia Erkidegoko beste bi euskalkietatikoa (gipuzkera, nafarrera) baino. Hizkuntza-eredu horretaz jabetu ahal izateko zailtasun erantsi bat zegoen hor beraz, Hezkuntza Sailak inondik inora ere ahaztu ezinezkoa: bai etxetik bizkaiera zekiten eskolaumeentzat eta bai, oro har, bizkaierazko hitzun-eskualde sendotako ikasle erdaldunentzat, kontuan hartu beharreko gertakaria zen hori.
- e) Hezkuntza Sailak *berebiziko garrantzia* aitortzen dio, oro har, *euskarak indarra duen eskualde eta bizi-giroetako eskolaumeen* artean lehenengo eta behin *bertako hizkera-bidearen ezaguerara sendotu* eta hartaz baliatzeke mintzamina lantzeari. Badirudi, izan ere, eskolaumeari etxetik ikasiak edo erdi-ikasiak dakartzan hizkuntza-kodeak bat-batean “zuzendu”, “hobetu”, “osotu” edo antzekorik egin nahi izateak sarri baino sarriagotan inork desio ez duen hura eragiten duela: etxetik dakarren hizkuntza-gaitasuna ahuldu, indargetu eta, hainbatetan, bere euskaraz lotsaraztea.
- f) Hezkuntza Sailak ez du ahazten % 20ra ez direla iristen, *bizkaitar* guttien artean, *izatez euskaldun direnak*. Hitz egitez gutxiago, agian, hainbat arrazoi direla medio. Komunikabideak, garraio-sistemak eta gainerako gizarte-harremanak egunetik egunera indartzen ari dira bestalde, eta herrialde bateko eta besteko euskaldunon elkar-ezagutza eta harreman-tratuak ugaritu baizik ezin egin daitezke horren ondorioz. Biztanle erdaldunen kopuru zabal horien nondik norakoa bideratzerakoan ezin era litezke hortaz eskualde mailako soluziobide apartekoak, elkarrekiko loturarik gabeak. Horrelakoetan, aitzitik, lekuan lekuko bizi-giro eta gizarte-ingurune hurbila oso kontuan hartzeaz gainera ezinbestekoa da Autonomia Erkidegorako euskalduntze-plan osatuak eratzea eta, horren arabera, bertako belaunaldi gazteei hizkuntza-eredu bateratuaren arrazoizko gaitasun-ezaguerak eskuetaritzen ahalegintzea.
- g) Hezkuntza Sailak ez deritzo zuzen euskara batua eta euskalkiak kontrajartzeari, bata bestearen ukatzaile eta are bateraezinak bailiran

aurkeztuz. Ez deritzo zuzen euskara batua bizkaieraren hiltzaile gisa azaltzeari: bizkaiera, gainerako euskalkiak eta, horrenbestez, euskara osoa hil ala biziko kinka larrian daukatenak auzo-erdarak dira nagusitasun osoz. Alboko erdal hizkuntza indartsuen ondoan ditugun indar apurrak elkartuz erdal erasoaldi latz horri ahalik eta era probetxugarrienean aurre egiteko sortua da hain zuzen, ezertarako izatekotan, euskara batua.

- h) *Kaltegarri iruditzen* zaio, orobat, *bizkaierazko azalpen-emankizunak arlotekeria, ezjakintasun eta gizarte-uren kontrako* grina itsuen seme bailiran *hartzeari*. Horrelako jokabideek badute, egileek begiz jotako gogo-asmoak gora-behera, aski ondorio txarrik ekartzeko arrisku bizi-rik: *hainbat euskaldun* etxetik dakien eta beharrezko jariakortasunez erabil dezakeen *hizkera-bide bakar horretaz lotsaraztea* eta, bere euskara besteena baino txarragoa dela iritziz, lehendik ere hartarako tentabide ugari falta ez zaionez, erdarara pasaraztea. Haurrari bere etxeko hizkera-bidearen harrotasuna bihurtu beharra dago, alde horretatik, hizkuntza-trebetasun ororen muina osatzen duen mintzamina —lehendik ere zorigaiztoz aski kamustua— itxuratxarki ahuldu eta birrindu nahi ez bada.
- i) *Bizkaiko hizkuntza-egoera*, beste eskualdeetan bezalaxe, *oso desberdina* da leku batetik bestera. Konponbideak ere, hartaz, kasuan kasurako egokienak aurkitzen saiatu beharko da, helburu nagusia beti ere bertako eskolaumeen euskalduntzea edo alfabetatzea izanik. Kasu bakoi-terako egokienak lirakeen konponbide zehatzak ez daude gaur-gaurkoz, bestalde, hain garbi. Arrazoi asko daude, hartaraz gero, bide baten eta bestearen alde: jokabide desberdin horiek berekin dakartzaten *etekin-neurketa konparatuak*, ordea, *aski urriak* dira eta, inoiz baino gehiagotan, elkarren kontrakoak.
- j) Soluziobide egokienak begien bistakoak lirakeen kasuetan ere, irakaskuntza-sistema orok muga-baldintza zorrotzak izan ohi ditu sarri: hartarako irakasle-premia, ikasketa-programen oinarritzko muga-finkapena, gurasoen eskaerak, ... Ez da erraza, beraz, eskakizun horiei gauetik goizera erantzun ahal izatea. Guzti horregatik *Hezkuntza Saila ez da* honetan, beste hainbatetan bezala, erabateko *agindu zorrotzik ematearen aldeko*. Hobe deritzo, aitzitik, Bizkaian euskara edo euskaraz irakasten ari diren irakasleentzat eta ikasketa-munduarekin harremanik duten erakunde, elkarte eta norbanakoentzat bide-adierazle eta lagungarri gerta daitezkeen orientabideak eskaintzea.

Hamar mandamentu, hamar irizpide nagusi horien gainean eraiki zen 1982an, euskara batuari eta euskal aldaerei (konkretuki, bizkaierari) eskolan (Eskolaurrean eta OHOn) eman beharreko trataera soziolinguistikoaren posizio ofiziala. Posizio hori ez da geroztik, dakidan neurrian, errotik aldatu edo indargabetu.

III.4.1. Orientabideak

Orientabideen (ez agindu esplizituen) hautua egin zuen, beraz, Hezkuntza Sailak. Ez zuen agindu zorrotzik eman nahi izan, eskoletan noiz batu eta noiz bizkaiera erabili behar zen zehaztuz. Eskolen (eta, zenbaitetan, irakasle jakinen) esku utzi zuen kasuan kasuko erabaki konkretua. Hori bai: hartarako gogoan izatea komeni zen orientabide-sorta eskaini zuen hezkuntza-administrazioak⁶⁴.

a) ***Eskolaumeek euskara ondo ikas dezaten*** izan behar du beti ere, alor honi dagokionez, euskaraz diharduen irakasle ororen lehen helburu eta ***xede nagusia***. Batuaz nahiz bizkaieraz ari, euskaraz hitz egiten, irakurtzen eta idazten ondo dakien eskolaumeak erraz lortuko du hizkuntza-eredu batetik bestera pasatzea; forma bat ondo ikasitakoan erraz ikasiko du bestea. Euskara jakitea da beraz, ikuspegi honetatik, garrantzitsuena; batuaren eta euskalkiaren arteko auzia helburu nagusi horren menpeko arazoa da, ez inola ere haren parekoa edo are gainetikoa.

b) ***Hartarako bideak desberdinak izan litezke***. Batak batuaz jardungo du nagusiki, besteak bizkaieraz; hurrengoak bizkaieratik baturantz joko du mailaz maila. Ez da kasurik ere falta, hasieratik beretik era nahasian dihardutenenik, ez eta ahoz batera eta idatziz bestera jokatzeko dutenenik. Jarduera

⁶⁴ Zergatik? Ez dago dokumentu jakinik, Pastoralaz beraz kanpora, horren argitasun bete eman dezakeenik. Hipotesi probable gisa bi motibo ikusten ditut nik: a) batetik, aginte-indarraren ahuldade-muga; Sailak ez zuen behar adinako indarrak antzematen, batetik, goitik behe-rako plan zorrotzik (geroko terminologian *top-down planning* deitu izan den modukorik) ezartzeko b) bestetik, segurtasun osorik eza, bide egokiaz: Saila ez zegoen batere seguru, hartarako baliabide guztiak eskuaren izanik ere hala jokatzeko komeni zenik. Aldagai gehiegi zeuden airean, gizarte-urak nora makurtuko ziren ikuskizun uzten zutenak. Hobe zeritzan Sailak, horregatik guztiagatik, jarduera sozioedukatioaren funtsezko puntuak azpimarratuko zituzten orientabideak emateari eta, horrekin batean, bizkaierazko irakaskuntzaren eragozgarri operati-boak (eredu baten falta, idatzizko zereginei zegokienez; irakasleen hizkuntza-prestaera integrala, giza baliabideen alorrean; eta bizkaierazko ikasmaterialen sorkuntza, baliabide materialen saillean) lehenbailehen baztertzeari.

horien artean aukeratzeko orduan badirudi **ondoko faktoreak** bederen ondo **kontuan hartzea komeni** dela:

- ikasgelatik kanpora eskolaumeak euskaraz jardun ahal izateko aurkituko duen lagunartea eta gizarte-ingurumena.
- ikasleen hizkuntza-gaitasuna: ikasgelako umeen artean % zenbat diren etxetik euskaldun?.
- irakasleen hizkuntza-gaitasuna: irakasle bakoitzak bere gelako ikasleekin, ahoz zein idatziz, bizkaieraz eta batuaz jarduteko duen benetako ahalmena.
- irakasmaila: batez ere ikasle euskaldunek, adinaren arabera, etxeko hizkera-bidetik urrunduagoko formetara pasatzeko daukaten aukera

Bide horietan barrena ibiltzerakoan, kontuan izan behar da ikastetxeak koherentzia minimoa behar duela, bai programazioan eta bai iraunkortasunean. Ikasleak ez luke kurtso batetik hurrengora hizkuntza-ereduz itsumustuka aldatzen ibili behar, bertako irakasleen uste-aburuak eta jokabideak bat ez datozelako edota ikastetxeak bat-batean hala erabaki dezakeelako.

c) **Bizkaieraz** jardutekotan, **eredu egokia** izan behar da kontuan. Ahozkoan askatasun handiagoz joka liteke, situazioaren arabera beren lekua eskainiz lekuan lekuko aldaerei. Ez, aldiz, idatzizkoan: *substandard* bakarraren aldeko apustua egin zuen horretan Sailak. Euskaltzaindiak VIII. Biltzarreko Adierazpenean azaldutakoan oinarriturik, ondoko ezaugarriok definitzen dute bizkaieraren idatzizko eredu hori:

- Ortografia, bere osotasunean, Euskaltzaindiak euskara baturako adierazitakoa.
- Morfosintaxiari dagokionez, batez ere aditz- eta izen-jokoetan, bertako forma jatorrak.
- Hiztegiak denaz bezainbatean, azkenik,
 - Ohiko hitz-ondareko formak, bizkaieraz
 - Irakaskuntzarako hitz bereziak, gai horiek lantzen dituzten ikasliburuetan nagusituz doazen formetara bildu oro har.

Hots, ortografian eta terminologia teknikoan euskara batuaren bidea aukeratu zen. Ohiko hitz-altxorrean eta morfosintaxian zentratu zen aldiz, batez ere, bizkaieraren lekua.

III.4.2. Baliabideak

Gauza bat da noski *acquisition*-plangintzarako orientabide-sorta prestatu eta corpus-plangintzaren kodifikazioa egitea, eta beste bat aldaera biko hezkuntzarako laguntza-bide materialak jartzea. Hiru eginkizunok lehenetsi zituen Sailak, orientabide horietan esandako xede-helburuei erantzun praktikoa eman ahal izateko.

- a) *Ikasliburugintza indartzea, batuan zein bizkaieraz*. Hizkuntza-eredu bietako ikasmaterialen edukizko, hizkuntzazko eta pedagogiazko egokitasun-maila arazoizkoa sustatzeko konpromisoa hartu zuen Sailak.
- b) *Irakasleen hizkuntza-prestaera indartzea*. Jadanik lanean ziharduten irakasleei eta handik aurrerako irakasle-gaiei aukerabide ugari, egoki eta zabalak eskaini zizkien Sailak.
- c) *Ebaluazio-lana bultzatzea*. Bide bat edo beste hartuz zer baldintzatan zer emaitza ateratzen diren ikusi eta, horren arabera, hobekuntza-bideak planteatzea erabaki zen.

Eginkizun horien haritik mugitu izan da funtsean, mende-laurden batez, Sailaren jarduera nagusia. Sailaz kanpoko zenbait instantziak ere marko horren barnean jokatu du nagusiki, bere gogoeta- edo aplikazio-alorrean. Merezi du, nolana ere, mende-laurdeneko ibilbide horren zertzelada batzuk kontuan izatea.

IV. Azken mende-laurdenean egindako saio praktikoa

Erabakimen handiko unea izan zen, dudarik gabe, 1981-82koa. Baita gogoeta-aldia ere. Ez gogoetaren hasiera, gorago azaldu denez, eta ez bukaera. Bai, ordea, “nondik nora jo behar genuke?” galderari erantzun konkretu eta operatiboa emateko une konkretua. Instituzio-marko berri baten abiaburua ezartzeko unea zen hura. Abiaburu hartan euskararen baitako aldaera-faktorea hezkuntza-agintarien agendan zegoela erakutsi zuen *Pastoralak*. Aplikazio-lanari ekin beharra zegoela adierazi zuen dokumentuak, inplizituki zenbaitetan eta esplizituki besteetan. Aplikazio horrek probetxu onik ekarriko bazuen, berriaz, gogoeta-bideari etengabe eutsi behar zitzaiola ematen zen aditzera, alde edo moldez.

Gertatu ere hala gertatu da, hein batean. Era askotako gogoeta-lana egin da geroztik ere, gai horren gainean. Ez kasualitatez: eskola-etekin linguistikoa

ez da, ezinbestean, ikasle-irakasleek gelan erabiltzen duten hizkuntza-aldarearekin loturarik gabea. Ez da edota, askoren ustean, ez du zertan izan. Eskola bidez lortuz doazen emaitzak diren bezalakoak direla ikusirik, aztertzaile batek baino gehiagok planteatu izan du, hizkuntzak berak (hots, hizkuntzaren dimentsio intralinguistikoak) ez ote duen loturaren bat emaitza horien zer-nolakoarekin. Hipotesi-lanketa eta deskribapen-saioa handiagoa izan da alor horretan ere, zoritxarrez, ikersaio esperimentalen aplikazio kontrastatua baino. Izan dira ordea, aukeran gutxitxo izanik ere, horretan saiatu direnak.

Kontua gogoeta edo ikerlan teknikoan eremura eraman da hainbatean, eta mesede egin dio horrek aztergaiari. Beste lasaitasun batez hitz egin liteke orain, *huntaz eta hartaz*. Badira oraindik talkadak⁶⁵: ez dira ordea, dakidan neurrian, gero eta ugariago; gero eta mikatzago ere ez. Elkarren arrazioak gero eta errazago entzuten eta onartzen dira gure artean, alor honi dagozkionetan. Derioko ikastaroak eta, berrikitanago, Mendebalde elkarte funtsezko gertatu dira, seguruenik, gogoeta-lan patxadatsu horren garapenean. Aparteko aitormena zor zaiela uste dut, alde horretatik, batari zein besteari. Kontua ez da hor amaitzen ordea: EHUko zenbait fakultatetan eta Bizkaiko irakasle-eskoletan ari den hainbat irakasle adituk, orobat, ekarpen baliosik egina du azken urteotan. Hizkuntza-aldarek (batez ere euskara batuak eta bizkaierak) eskola-munduan behar luketen lekuaz azken mende-laurdenean egindako gogoeta-lanen zerrenda egitea ez da, horregatik, hain gauza erraza. Guztiak lerro-lerro emateak luze joko luke, eta ez dirudi gainera horren behar gorrian gaudenik. Honako hauek behintzat, hori bai, aski kontuan hartzekoak direla iruditzen zait⁶⁶:

- a) Koldo Mitxelena 1982ko: “Normalización de la forma escrita de una lengua: el caso vasco”;
- b) Agirre, J. M., I. Eguzkitza, I. Idiazabal eta L. M. Larringan, 1985: *Euskarazko irakaskuntza Bizkaian. Arazoak eta zenbait proposamen*;

⁶⁵ Demagun, eta ez naiz ezer asmatzen ari, honelatsu agertzen dela talkada modu bat: “eskolan bizkaieraz jardun nahi nuke, eta ez zait uzten”. Irakasle baten gogoari eskolako aginte-organo nagusien debekua kontrajartzen zaio, inoiz edo behin. Eskolako Zuzendaritzaren jokabide horrek ere badu bere argudio-oinarria: “irakasle bakoitza ezin da bere kontura ibili. Denen arteko ibilbide koordinatua antolatzea komeni da, beti ere ikastetxeko aukera posibleak baliatuz eta probetxurik hoberena aterez”. Kontrakorik ere gertatu izango zen agian. Ez da erraza, horrelakoetan, aplikazio jeneraleko arau bakar eta uniforme ematea.

⁶⁶ Lan bakoitzaren zehaztasun handiagorako ikus artikuluaen amaierako bibliografia-zerrenda.

- c) Koldo Zuazoren 1988ko *Euskararen batasuna*, 2000ko *Euskararen sendabelarrak eta* 2001eko “Ohar zenbait euskara normaltze aldera”;
- d) Juan Martin Elexpururen 1996ko “Herri-euskararen eremua”;
- e) Julian Maiaren 2000ko *Eskolako hizkera ereduaz, euskara batuaren eta euskalkiaren arteko harremanen testuinguruan*, batetik, eta 2001eko hiru hauek bestetik: “*Euskara batua, euskalkia eta eskolako hizkera ereduaz*”; “*Estandarra eta dialektoak nola ulertu eta tratatu irakaskuntzan*”, eta “*Eskola eta tokian tokiko hizkuntza aldaera*”;
- f) Juan Luis Goikoetxearen 1997ko “Hamalau erantzun bizkaieraren irakaskuntzari” eta 2003ko *Euskalkia eta hezkuntza. Dakigunetik ez dakigunera euskal diglosia irazian*;
- g) Ane Barrusoren 2001eko “Eskolan: batua? Euskalkia? Biak?”; eta
- h) Agurtzane Elorduiren 2006ko “Eskolaren hizkuntza-eredua harreman-sareen trinkotzearen ikuspegitik”.

Guztia ez da ordea, gorago esan denez, gogoeta-lan hutsa izan. Aplikazio konkreturik ere egin da, aitzitik, esparru batean baino gehiagotan. Bizkaiko zenbait instantzia tekniko, publiko eta pribatu saiatu da batetik aplikazio-lan horretan. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak berak ere pauso jakinak eman izan ditu urteotan, bestetik. Gogoeta alorrean zein aplikazio konkretuen sailean benetan egin denaren berri eman nahi da, labur-labur, atal honetan.

IV.1. Zenbait ekimen

Eskola-esparruan ezagunenak-edo gertatu diren ekimen publiko eta pribatuak aipatuko dira hemen, gaingiroki. Horrezaz gainerako xehetasunaz jabetzeko lan monografikoetara jo bedi. Labayruk, Bilboko Hizkuntza Eskola Ofizialak, IRALEk, Ibaizabalek eta Unibertsitateak azken mende-laurdenean bizkaieraren alorrean egindakora mugatuko gara, beraz hurrengo pasarteotan.

- a) Irakasle-eskolak, Labayru, Bilboko Hizkuntza Eskola Ofiziala eta IRALE

Bizkaierak bere lekua izango bazuen hezkuntza-munduan, bizkaieraz dakiten irakasleak behar ziren. Alferrik ziren, bestela, asmo oneko hitzak. *Dot*-esparruko irakasle-eskolen partaidetza, alde horretatik, berariaz landu beha-

rrekoa zen noski. Hala zen orduan, orain dela hogeita bost urte inguru, eta hala izan da geroztik ere. Nola gertatu dira gauzak?

Labur beharrez, eta aurrerago esango direnak labur bilduz, argi-ilunezko panorama osatu du, mende-laurden honetan, irakasle-gaien eta lehendik lanean ari ziren irakasleen bizkaierazko prestakuntzak. Aurrera egin da, dudarik gabe, gero zehaztuko diren ekimen jakinei esker. Egin zitekeena hartzen bada erreferentzia moduan, aldiz, bistan da kostatzen ari dela hor egin litekeen guztiaz baliatzea.

b) Ikasmaterialgintza: *Ibaizabal*-en ekarpena

Bizkaieraz jardungo bada eskolan (idatziz jardungo bada konkretuki, eta ez hitzez bakarrik) aldaera horretan prestatutako materialak ere behar-beharrezkoak dira. Izan da etxerik, eta bada orain ere, hartan saiatzen denik: *Ibaizabal* etxea. Bizkaierazko ikasmaterialgintzan jardun izan du argitaletxe honek 1980 ingurutik hona. Hala egin du lehen eta hala dihardu orain, urterik urteko bere produkzio-bidean. Irla bakartia izan da bera, kasik, testugintzaren itsaso zabalean bizkaierazko produkzioari bere lekua eskaintzeko orduan. Aurrerago, azken urteotako produkzio idatziaren berri ematen den atalean, azalduko da xeheago bizkaierazko langintza horren zabala eta etengabeko izaera. Esan dezagun hemen, labur bilduz, euskara batuan eta bizkaieraz kaleratzen dituela bere ikasliburuak, dezakeen neurrian. Aparteko esfortzua egin du argitaldari horrek, gure hezkuntza-munduaren gero eta eskakizun konplexuagoak aldaera bitan prestatzen. Salmenta-kopuru txikiekin jarduteak eragozpen argiak ezartzen badizkio euskara batuko ikasliburugintzari, eragozpen horiek larriagotu egiten dira bizkaierazko kasuan, hartaz baliatu ohi den merkatuaren neurri-muga zorrotzagatik.

IV.2. *Gogoeta-lana: doktore-tesiak, ikerlanak eta bestelakoak*

Gero eta leku zabalagoa eskuratu du unibertsitateak (publikoak eta pribatuak), doktore-tesien eta garapenezko gogoeta-lanaren bidez bereziki, hizkuntza-aldaeren dimentsio sozioedukatiboaren alor honetan. Ia inolako laguntzarik gabe heldu behar izan zitzaion hasiera batean gogoeta-lan hari⁶⁷; aski bestelakoa da egungo egoera. Denbora eta leku faltaz ezin detaile handietan

⁶⁷ Gogoan izatekoa da, dena den, Deustuko zenbait irakaslek (bereziki Alfontso Irigoienek eta Adolfo Arejitak aurrez aurre, eta Karmele Rotaetxek plano teorikoago batean) jorratzen

sar gaitzke hemen. Kontuan hartzekoak dira ordea, nolanahi ere, 1982tik honako gogoetak. Txosten honen lehen eranskinean eskaintzen da, era sinoptikoan, gogoeta-lan garrantzitsu batzuen (ustez gogoangarrienen) zerrenda. *Mendebalde Alkarteak* azken urteotan argitara ematen duen liburu-saila berariaz kontuan hartzekoa da alor honetan: liburuki guztiak ez daude eskola-munduan zentratuak. Asko bai, ordea⁶⁸. Kontuan hartzekoa da, azkenik, Euskaltzaindiaren beraren 2003ko azalpena: bertakoa eta aski egin berria delarik, ez naiz bere xehetasunetan sartuko.

V. Saioarean balioespena: zer lortu da, eta zer ez?

Inplementazio-neurri jakinak hartzeko eginbidea ezarri zion Hezkuntza Sailak bere buruari, 1982an. Bete al ditu bere buruari ezarritako xede operatibo haiek? Zer neurritan bete ditu? Ikus dezagun, gain-gainetik bada ere, hasierako bost eginkizun nagusiri hurrengo mende-laurden luzean emandako erantzun instituzionala.

V.1. Bizkaieraz zein batuaz i(ra)kasteko aukera

Errespetatu al da aukera hori, lege aldetik? Zaindu al da eskubide hori, praktikan? Goazen pausoz pauso. Aukera bikoitz horretarako bidea zabalik dago lege aldetik, eskola mailan⁶⁹. Hala egon da lehen eta hala dago orain ere. Dakidalarik, egon ez dago *Pastoralak* eskolari aitorturiko erabakimen hura indargabetu duen debeku zorrotzik. Onarpen espresik ere ez, ordea. Sailak ontzat eman izan du bizkaierazko irakaskuntza, lehen urteetan bereziki, eskolak hala egitea erabaki duen kasuetan. Alde honetatik, hasierako asmo hura hainbatean bete dela esan liteke. Ohar-ñabardura sendoa erantsi behar zaio, ordea, baieztapen horri. Gauza bat da bizkaieraz irakasteko aukera legala zabalik (ez, behintzat,

hasia zutela bertako hainbat esparru. Arejitak, konkretuki, aurrera egin du gero ere esparrulanketa horrekin (adib. 1997).

⁶⁸ Lehen obraren ordena kronologikoari etsiz ematen dira, konkretuki, erreferentzia hauek.

⁶⁹ Ez beti, aldiz, banakako irakaslearen jarduera-esparruan. Ulergarria ere bada hori, hainbatean: hizkuntza-proiektu bateratua antolatu behar izaten du eskola bakoitzak. Bateratze-maila horren barruan joan ohi da, hainbatean, ezinbesteko uniformetasuna ere. Beste zenbait kasutan, aldiz, badirudi posizionamendu linguistiko-ideologikoek beren pisua izan dutela irakasle jakinei jokabide hau edo hura ezartzeko orduan. Gai irristakorra da hori: inoiz edo behin berta samarretik bizi izatea suertatu izan zaionak baizik nekez uler dezakeen modukoa.

debekaturik) egotea, eta bestea eskola jakinak praktikan hala egin ahal izatea. Era askotako eragozpen praktikoak daude bidean, goiko aukera teoriko-legal hori benetan hezurmamitu ahal izateko. Eragozpen horiek ez dira normalean Sailak berariaz ezarriak, ingurumen-baldintzek erantsiak baizik.

Bizkaierazko ikasketa-bidea osorik eratu ahal izateko, oinarrizko uniformetasun-maila bat behar du ikasgelak eta, hainbatean, ikastetxeak berak. Haur guztiak euskaldun baldin badira, eta guztiak Zeanurikoak (esate baterako), askoz errazagoa da oinarrizko uniformetasun hori lortzea. Beraz, errazago lor liteke asmo hori Zeanurin, Durangon baino. Ondotxoaz haur gehiago bizi dira, ordea, Durangon eta Durango moduko herriburuetan. Kasu gehienetan zaila da beraz, uniformetasun faltaz, irakasbide teoriko hori praktikan aplikatzea: hor dago lehenengo eragozpena. Uniformetasun-falta horren iturriak, berriz, aski ezagunak dira. Horrela,

- a) Gero eta maizago gertatzen da, ikastetxearen antolamenduzko motiboengatik, etxetik euskaldun, erdaldun (are alofono-atzerritar) edo nolahalako elebidun diren haurrak gela berean sartu behar izatea. Haur-jaiotzen mende-laurden honetako kopuru-jaiste handiak (Europako handienak, antza denez) konplikatu egin du, erraztu ordez, gela-talde horiek haurren ama-hizkuntzaz, are ama-euskalkiz edo azpi-euskalkiz, antolatu ahal izatea. Ezinak eta nola edo hala irtenbideren bat bilatu beharrak eragindako bidea izan da hori, gehienetan. Ikastetxeak beraiek izan dira, sarri, bizkaierazko bidearen kontrako neurrien bultzatzaile.
- b) Irakasle aldaera-bidunak behar dira gainera, euskal-erdal elebidun izateaz gainera. Hori ere zaila da eskuratzea, sektore publikoan bereziki, eta are zailagoa indarrean mantentzea⁷⁰. Herri-ikastetxeetan, hasteko, inoiz gutxitan hartu izan da euskalkian edo bertoko berbakera arruntan egiten jakin beharra ezinbesteko (edo, gutxienez, hobesteko) baldintza gisa. Ondorioz, ikasle-taldeak hartarako gai dituzten herri-ikastetxe guztiak ere ez daude praktikan, irakasle aldetik, asmo hori aurrera eramanez ahal izateko behar bezala hornituak. Aldiz ikastetxe pribatu kontzertatuek errazago lukete, berez, lekuan lekuko edo bizkaierazko irakasle-gai berriak kontratatzea. Badakigu jakin hala jokatu izan duela zenbait ikastetxe pribatuk. Beste hainbatek, aldiz, bigarren mailan jarri izan du eskakizun hori. Hor ere ez daude gauzak, praktikan, teoriarik dirudien bezain erraz.

⁷⁰ Sektore publikoan, irakasle berriak kontratatzeko deialdiak “euskara” aipatzen du ezinbestean, Autonomia Erkidego osorako egin ohi denez.

- c) Gatozen beste eragozpen batera: ahal izatea gauza bat da; nahi izatea bestea. Nahi al dute ikastetxeek, ahal izanik ere, euskalkiaren gai horri aurrez aurre heldu? Erantzuna, aurrekoan bezala, argi-iluna da. Badira asmo hori begien aurrean izan duten ikastetxeak eta hartara iristeko neurri operatiboak hartu dituztenak. Gutxienak dira, ordea, halakoak. Gutxi izan dira lehen eta, azken datuen arabera (Ondarroa, Zornotza), gehitu ordez gutxitzen ari dira orain. Hala dira kontuak, hizkuntza idatziaren planoan bederen.

Zergatik da hori horrela? Hartarako aukera objektiboa (ikasle- eta irakasle-osaera egokia) duten ikastetxe gehiago zergatik ez da bide horretan barrena sartu? Erantzun bat baino gehiago ditu galdera honek. Horietariko bat honako hau da: optimizazio sozioedukatibozko gaitzat hartu ordez ideologiazko “arazo”tzat hartu izan da, hainbat kasutan, haurrak euskalki bidez (kasu honetan bizkaieraz) eskolatzea⁷¹. Irakasle asko, etxetik bizkaieraz ongi (samar) dakitenak tarteko, mesfidati agertu izan dira, *a priori*, saiakuntza horren aurrean. Ez da zaila horien burutik zer pentsamolde dabilen asmatzea: “beste lekuetan normala dena (irakaslanerako hizkuntza-eredu estandarrez jardutea) izan behar du hemen ere normal”. Hala ikusten-edo du irakasle eta eskola-arduradun askok kontua. Bide normaletik ateratzea bide “markatu” batean sartzea da, horientzat. Hor izan du bizkaieraren eskolaratzeak berariazko eragozpen subjektiboa, gorago esandako bi eragozpen objektiboez gainera.

Hori ere ez da harritzekoa: izan dute motiborik aski irakasle horiek, kontuak horrela direla uste izateko. Euskara batuak euskara salbatuko zueneko mistikaz gainera baten bestelako uste-sinesmen sendorik gure artean, irakasle gehienak mesfidantzazko jarrera horretara eraman dituenik. Aspaldiko ustea da Europan, Frantzia-Espainietan bereziki, dialektoak (eta, bide batez, lekuan lekuko *state-building language* nagusiaz besteko albo-hizkuntzak) eragozpen sendoa direla “zibilizazioaren aurrerabiderako”⁷². Ideia zahar baten oihartzun

⁷¹ Suabe esanik dago esaldi hori: “izan zaio” ordez hobe genuke, bostetik lauk-edo, “izan diogu” esan. Kostatu egin zaigu gehienoi, benetan, korrelato soziologiko posibleak alboratu eta ukatu beharrik gabe gaiari aurrez aurre eta termino soziolinguistiko garbietan heltzea. Egungo euskalkizale asko, oker handirik gabe, batuzale (eta, orduko termino korrelatiboetan, euskalki-eszeptiko) izana da/gara. “Bat ala beste”ko paradigmaz haziak eta heziak gara gutako gehienok, eta neke handiaz baizik ez dugu ikasi “bat eta beste” paradigmara pasatzen. Osorik burutu gabeko itzuli kopernikarra da hori, oker ez banago, gure artean. Baita soziolinguistika kontuetan bere burua zertxobait jantzizat dutenen artean ere.

⁷² Ez da hori “Madrilgo” ikuspegi sozioedukatibo hutsa. Bertan ere erro zabalak izanak ditu, ordea, ikuspegi horrek: Eguren ikuskariaren 1867ko ikasliburua testigu. Ikus bere pasarte

eguneratua ageri da hor. Konturatzen ez badira ere eskuarki, Iraultza Handiko (1794ko) Grégoire abadearen eskutik dabilta irakasle horiek: berea da, noski, “Rapport sur la nécessité et les moyens d’anéantir les patois et d’universaliser l’usage de la langue française” (ikus Certeau, M et al 1975). Egia da bestelako tradizio sozio-edukatiborik ere badela Europan, Alemanian eta bere ingurumarian bereziki: Hildebrand-en 1867ko, eta haren ondorengo, filosofia pluri-zentriko hori gutxitan iritsi izan da ordea gugana. Horrelakoetan ere errazago elikatu izan gara Salamankatik, Leipzig-etik baino⁷³.

Epai moduan, ikusitakoaren argitan honelako zerbait esango nuke: aldakuntza-giro bizian murgildurik bizi izan da EAEko eskola-mundua, azken mende-laurdenean. Atxiki zaizkion eginkizun guztiak garaiz eta zuzen bete ezinik jardun izan du sarri. Gizarte-aldakuntza horiek, gainera, indartu orde zahuldu egin dute, oro har, gai honen garrantzi-usaina. Gurasoak gero eta gutxiagotan dira biak euskalki (zer esanik ez azpieuskalki edo leku) berekoak. Euskal-erdal ezkontzak ere ugaritzen ari dira, bestetik. Plan horiek aurrera eramateko ingurumen egokienak, beste zenbait lanetan “euskal arnasmuneak” esan izan diedanak, urritzen ari dira. Urrituz doaz oro har, eta nabarmen urritu dira Bizkaian. Demagun Mikel Zarateren orain dela hogeita hamar urteko esaldi gogoangarri hura: “Bermeoko kaleetan berez-berez eta bizi-bizi egiten den euskara, bermeotarrontzat komunikabide den euskara, ona da, jatorra, benetako komunikabide diren euskara guztiak bezala” (Zarate, 1978). Non dago gaur, Bermeoko kalean, mintzajardun bizi-aberats hura? Non dago bizi-tasun hura, batez ere, gaurko gazteen eta neska-mutilen kale-jardunean? Eskueran ditudan datuak oso oker ez baldin badaude asko aldatu dira gauzak Zarateren garai hartatik hona, eta ez onera. Bilakaerazko *Umgangssprache* biziaren gainbehera-kontestu horretan egin behar izan du lan, onean zein txarrean, eskola-munduak. Ingurumen-baldintza horiek eraginik, eta dialektoak eskola-tresna ez direlako usteari bere neurria hartu ezinik hainbatean, jardun dute gure ikastetxeek, mintegiek eta irakasleek. Kontestu horretan neurtu behar dira lortutako argi-itzalak. Dezakeena dezake eskolak, ez gehiago. Eman ezin duenik ez litzaioke eskatu behar. Eman dezakeenaren argitan, Sailaren zehaztapen oldarkorrago baten faltan eta irakasle askoren ikuspegi sozioedukatibo nagusiaren argitan hainbat pauso eman direla ondorioztatu behar da. Aurrerago ikusiko dugu zer pauso, non eta nola.

gogoangarria, honelatsu (buruz ari naiz) dioena: “si la Instrucción de la juventud ha de cumplir sus altos objetivos de civilización”.

⁷³ Italiako esperientzia ere, bere “italiano regionale” kontzeptuaz, arrotz gertatzen zaigu hainbatean.

V.2. “*Eskolak bizkaieraz ematekotan, idatzizkoan, arau jakinen arabera*”

Bizkaierazko *substandard* bat eratzea erabaki zuen Sailak, Mikel Zaratek bere garaian gomendaturiko bideetik, Bizkaiko eskola-munduan (aldaera horretaz oro har, eta idatziz bereziki) jardun nahi zuten ikasle-irakasleek erreferentzia egokia izan zezaten. Horretarako araudia lehenbailehen zehazteko konpromisoa hartu zuen Sailak. Zer egin izan da alor horretan? Hainbat gauza egin da alor horretan. Funtsezkoenak, ene iritziz, Saitetik bertatik egin ziren: berak babesturik edota, hainbatetan, berak gidaturik. IRALEko trataera integratuaz gainera eredu-finkapen hori izan da, dudarik gabe, Saitetik gehien landu eta argienik zaindu den alorra. *Substandard* bat eratu da bizkaierazko jarduera idatzirako, Euskaltzaindiaren oniritziz. Bere atal morfosintaktikoari atentzior eusten zaio, bai Sailaren eta bai argialetxeen aldetik, testu-liburuen pretaerari dagokioneaz. Puntu horretan, beraz, hasieran begiz jotako xedea ongi samar bete (betetzen ari) dela esan liteke.

V.3. *Irakasleak prestatzea, euskara batuan zein bizkaieraz jardun ahal izateko*

Euskarazko irakasbideei dagokienez hizkuntza-eredu bateratua, euskara batua, izan da hasiera-hasieratik unibertsitate alorreko erregistro nagusia: askotan bakarra. Egia da, bestetik, leku berezia izan dutela irakasle-eskolek unibertsitate-esparruan; beraiei egokitu izan zaie haurren eta hamalau (orain hamabi) urte arteko neska-mutilen eskola-ardura (tartean hizkuntza-osaerazkoa) izango duten profesionalak prestatzeko eginkizuna. Oso hurbiletik dagokie, beraz, hizkuntza-aldaeren kontu hau. Zer egin da mende-laurden honetan, irakasleen bizkaierazko pretaera alorrean? Labur erantzungo diogu galdera honi, aurreko atal batean (IV.1. puntuko a) pasartean) emana dugun erantzun sintetikoa zertxobait osatuz. Eman al diete Haur Hezkuntzako eta LMHko irakasle-gaien harrobi naturala diren unibertsitate-eskolak erantzun artezik beharizan honi? Eman al diete *dot*-esparruko irakasle-eskolek (hots: Bilbokoak, Deriokoak eta Eskoriatzakoak) beren ikasleei, bizkaierari buruzko ezagutza argirik? Halakorik ez zutenei (etxetik erdaldun direlako, *det*- edo *dut*-esparruko euskaldunak zirelako jaiotzaz) bizkaieraz jarduteko gaitasunik eskaini al diete?

Hiru irakasle-eskola horiek mende-laurden honetan aldaera kontuan egin dutenaz ezin dezaket gauza handirik esan, informazio zehatz eta metatuaren faltaz. Emaizta praktikoei begiratuta badirudi, nolnahi ere den, presentzia mugatua izan duela bizkaieraren kontuak, urte luzez, eskola horietan (denetan

edo gehienetan). Jakin badakit, aldiz, ekimen zabala eta esfortzu handia eginik dutela esparru horretan, hainbat urtez, Labayru ikastegiak eta Bilboko Hizkuntza Eskola Ofizialak. Hogeita bost urteko (batez ere lehen hamabost urteko) perspektiban, Labayru ikastegia eta Bilboko Hizkuntza Eskola Ofiziala izan dira irakasle-gaien bizkaierazko prestaerari atentzio eta esfortzu handiena eskaini izan diotenak. Beraiek izan dira, nire jakinaren gainean, ahozko aldaera horren eta bere eredu idatzi *substandard*-aren⁷⁴ bultzatzaile eta hedatzaile nagusiak.

Gauza bat zen halere irakasle-gai berriak bizkaieraz prestatzea, eta bestea lehendik lanean ari ziren irakasleak (erdaldunak, euskaraz alfabetatu gabeak, beren euskarazko hizkuntza-gaitasuna garatu nahi zutenak) bizkaieraren ezagutzaz hornitzea. Bigarren xede honi dagokionez, goiko bi instantzia horiek ez ziren bakarrak izan. IRALEk ere egin zuen bere ahalegina, eta hala dihardu orain ere. Mende-laurden osoa darama IRALEk, Bizkaiko irakastegietan⁷⁵ gaiari aurrez aurre helduz. Aspaldi batean, sortu ondoko lehen hamarkadan-edo, bertako aldaeraren berri ematea eginkizun berezkozat definitu zuen Bizkaiko IRALEk, liberaziozko ikasbide jeneralean⁷⁶. Aski kontuan izan du eskakizun hori, gero ere, R300 ikastaroetan. Berariazko liberazio-aldi trimestrala eraturik dago, horrezaz guztiaz gainera, bizkaieraren ezaguera duina eskuratzeko beharrik handiena duten profesionalentzat⁷⁷. Eta, azkenik, liberaziorik gabeko ikastaroetan ere presente dago bizkaieraren aukera, horren beharra edo gogoia duen irakasle ororentzat. Doan egiteko eskubidea du bizkaieraren lanketa hori, hala nahi duen Haur Hezkuntzako, LMHko, DBHko, Batxilergoko edo Lanbide Heziketako edozein irakaslek.

Labur bilduz, bistan da aukera argirik galdu dela zenbait esparrutan. Hori bezain egia da, bestalde, aparteko eta berariazko saioak egin direla instantzia edukatibo jakinetan. Hobekuntza-bide batzuk nondik nora joan litezkeen argitzeko balio izan du horrek guztiak. Gure esku dago, hobekuntza-aukera horiek hezurramitzen saiatzea. Euskalkiak oro har, eta bizkaierak bereziki, aparteko bizi-indarra du egungo egunean ere etxean eta auzoan, kalean eta lagunartean partez edo osoz euskaraz egiten den *dot*-eskualdeetan. “Ekarri

⁷⁴ Ikus goraxeago Mikel Zarateren *substandard*-aipamena.

⁷⁵ Hasieran Dolaretxen, gero Dolaretxen eta Artatzu-Goikon.

⁷⁶ Hori bakarrik ez: ikus-entzunezko material ugari ere bildu du IRALEk, eginbehar horren haritik.

⁷⁷ Batez ere Bizkaiko arnaguneetan diharduten eta etxetik bizkaieraz ez dakiten Hezkuntza Bereziko laguntzaileentzat diseinatu zen ikastaro hori, hasieran. Zabaldu egin da gero, hainbatean, xede-multzoa. Ikasketari-kopuru mugatukoa da, dena den.

dot” esanaz eskolaratzen diren milaka haurren trataera linguistikoaren mesedegarri da, dudarik gabe, irakasleak bizkaieraz trebatuak egotea.

V.4. Bizkaierazko ikasmaterialgintza indartzea

Bizkaierazko ikasliburugintza sendo, ugari eta beharizan desberdinen asebetegarria indartu beharra ikusi zuen Sailak 1982an. Hartan jardutea (hots, helburu hori lortzen saiatzea) zegokiola aitortu zuen *Pastoralean*. Zer egin da harrez gero, Sailean eta Sailetik kanpora, 1982ko xede hura lortzeko?

Gatozen Sailaren jardunera. Diruz lagundu ditu Sailak, urterik urte, bizkaierazko ikasmaterialak. Euskara batuzko materialgintza babesteko erabili diren deialdi eta irizpide nagusi berberak aplikatu dira kasu berezi honetan. Bizkaierazko bezeria potentzialaren kopuru mugatuak kontuan hartuz egin izan dira, hori bai, laguntza-kalkuluak: bestela nekez sartu ahal izango ziren argitalpen horietariko hainbat laguntza-deialdien oinarritzko markoan.

Gatozen Sailaz kanpoko eragileetara. Kasu puntualak alde batera uzten badira *Ibaizabal* etxea izan da mende-laurden honetan, gorago esan denez, alor horretan jardun duen bakarra. Bera espezializatu da, hainbatean, bizkaierazko ikasmaterialen esparru horretan. Aparteko esfortzua eskatu du bizkaierazko testugintzak, urte luzez. Aurrera begirako panorama ez da gainera, itxura osoz, gero eta alaigarriago. Salmenta-kopuru txikiekin jarduteak eragozpen larriak eransten dizkio bizkaierazko produkzioari. Neurri-muga zorrotzak ezartzen ditu, honetan ere, merkatuak. Ikus ditzagun neurri-muga horien zenbait ezaugarri.

a) Zenbat material euskara batuz, zenbat bizkaieraz?

Ikasmaterial gutxi argitara da EAEn, ordutik hona, bizkaieraz. Batuzko produktu direnen ondoan, eta eskueran dugun informazioaren arabera, bizkaierazko materialgintza hori ez da %5era iristen. Zehaztapen numeriko erabatekoa ez da ematen erraza, garai bateko eskola-argitalpen askotxoren katalogioa amaitu gabeko lana delako oraindik⁷⁸. Errazagoa da, aldiz, azken urteotako estatistika zehatz samarrak eskaintzea.

⁷⁸ EIMA programaren ildotik diharduen Eibarko katalogio-zentroa ari da lan horretan, aski era sistematikoan. Denbora beharko da oraindik, halere, argitalpen guztien errolda eta tipifikazioa amaiturik izateko.

b) Azken urteotako produkzioaren zenbait ezaugarri

Ikasmaterialen Eibarko Katalogazio-zentroak xeheago arakatu du azken urteetako ikasmaterialgintza: konkretuki, 2000-2008 epeari dagokiona. Aztersaio horretatik jasotako datuen emaitza xehakatuak eskaintzen dira atal honetan. Katalogazio-zentroak⁷⁹ egindako lanaz badakigu, halako hurbilketa batez, zein egoeratan dagoen bizkaierazko ikasmaterialgintza: bai erabat hariturik, zenbaki absolutuetan, eta bai batuarekiko proportzioan. Hona 2000-2008 tarteari dagokion datu xeheak:

Zenbat ikasliburu BATUAZ, ikasmailen arabera					
Haur Hezk.	Lehen Hezk.	DBH	Batxilergoa	Lanbide Hezk.	Guztira
243	1.072	632	256	334	2.537

Zenbat ikasliburu BIZKAIERAZ, ikasmailen arabera					
Haur Hezk.	Lehen Hezk.	DBH	Batxilergoa	Lanbide Hezk.	Guztira
3	47	1	0	0	51

Ikasmaterialak BIZKAIERAZ, ikasgaien arabera						
Euskara	Mate- matika	Ing. ezagu.	Erljioa	Irakur- gaiak	Beste- lakoak	Guztira
20	12	6	7	4	6	55

Ikasmaterialak BIZKAIERAZ, material-motaren arabera					
Testulib	Lan- koadernoak	Ariketa- -karpetak	Irakur- gaiak	Gidali- buruak	Guztira
28	18	2	5	4	55

⁷⁹ Fernando Berrizbeitia da, konkretuki, katalogazio-zentro horren arduraduna. Berak emandako datuak dira hemen eskaintzen direnak. Zenbaitetan, argi ikusten denez, ezin izan da material guzti-guztiak irizpide baten arabera tipifikatu. Hori dela-eta, batzuetan 55 material ageri dira guztira eta kasuren batean, aldiz, 51.

Ondorio batzuk argigarriak dira: kopuru kontua dago, batetik, eta kopuru hori ikasmilaka, jakintza-gaika eta material motaka nola banatzen den bestetik. Ikus ditzagun lau elementuok, hurrenez hurren.

- a) zenbaki absolutuetan, hasteko, produkzio mugatu baten aurrean gaudela ikusten da: 55 ikasliburu sortu dira 2000-2008 epean, eta kopuru hori aski txikia da batuaz produzitu diren materialekiko proportzioan: %2 inguruan dabil, oro har, portzentaje hori⁸⁰.
- b) Bizkaierazko ikasmaterial gehien-gehienak (ia guztiak) Lehen Hezkuntzarakoak dira: hortik gorakoetan ez du bizkaierak, egungo egunean, idatzizko transmisio-bide formalik.
- c) Jakintza-gaiak ere badu bere eragina, hirugarren taulak argi erakusten duenez. Bizkaierazko materialak oso ikasgai jakinetan kokaturik daude: batez ere Hizkuntzan (irakurgaiak barne), Matematikan, Erlijioan eta Ingurunearen ezagueran.
- d) Era berean, kontzentrazio nabarmena dago bizkaierazko ikasmaterialean, argitalpen motari dagokionez: testu-liburuak batetik, eta lankoadernoak bestetik, horiek dira argitalpen ugarienak. Hor ere bistan dago tirada kontua (merkatuaren eragozpen-muga, alegia) eragingarria dela: salmenta minimoa dutenak bakarrik produzitzen dira, azken batean.

Labur bilduz, honako emaitza hau jasotzen da goiko bilketa-lan horretatik. Ibaizabalen eragimenez kontuan izateko produkzioa lortu da bizkaieraz. Beharrezko neurriak jarri ditu Sailak, bere aldetik, bizkaierazko ikasmaterialeen produkzio hori diru aldetik zein kalitatez (edukiz eta hizkuntza-osaeraz) egokia izan dadin. Kopuru aldetik eta ikasmilaz, ikasliburu motaz eta jakintza-gaien aldetik mugatua da, ordea, produkzio hori. Batua jaun eta jabe da Bizkaian (oro har *dot*-esparruan) ere, euskarazko ikasmaterialgintzari dagokionez.

V.5. Ebaluazio-lana egitea

Ebaluazio-lana bultzatzeko konpromisoa hartu zuen Sailak. Hots, ikasbide bat zein beste harturik, eta ingurumen-baldintza jakinetan, zer

⁸⁰ Bizkaieraz dauden material gehienetan, nola edo hala zehaztuta dago “bizkaieraz” dagoela. Hala ere, baliteke materialen bat egotea, non, datu hori esplizitatu gabe egoteagatik, ez litzatekeena zenbaki hauetan agertuko. Dena den, era honetako material kopurua oso txikia izanik, desbideratze hori ez da adierazgarria.

emaitza ateratzen ziren ikusi eta, horren arabera, irakasle-jendea informatu eta hobekuntza-bideak planteatu ahal izatea. Egin al da halakorik? Erantzuna, nire ustez, erraza da kasu honetan: berariaz, luze-zabal eta dirubide publikoz ez du Sailak halakorik egin. Kontu hori geroko utzi zen hasiera hartan, aurreragoko lanik bazegoelako antza⁸¹. Gero, berriz, motibo bat edo beste zela medio alde batera utzi zen lan-esparru horren ebaluazio-bidea. Hala utzi zen eta hala jarraitzen du egungo egunean ere, ene ustez, faktore-analisizko ikuspegi global horri dagokionez. Euskal irakaskuntzaren alor ahulenetako bat dugu, dudarik gabe, ebaluazioarena: bai halako lan gutxi egin dugulako oro har, bai egindako lan batek baino gehiagok perspektiba mugatu samarra duelako lekuz, epez edo alde bietatik, eta bai ebaluazio horien zabalkundea aski mugatua izan delako oro har. Badago hor, dudarik gabe, hobekuntzarako gairik: gogoa, denbora, gaitasuna eta baliabideak behar; ez dira konbinazio ohikoena. Egia da, halere, hutsean ere ez gaudela. Horrela, eta besteak beste, analisi-bide intralinguistikoari ekin zaio berrikitan eta azterraldi horretan, beste hainbatetan ez bezala, aldaera kontuari aurrez aurre heldu zaio⁸².

VI. Aurrera begirako zenbait gogoeta

Aurretik gertatuaz, azken urteotan ibilitako bidez eta bide horrek ekarri dituen ondorioez jardun dugu orain arte. Gerora begirako iritzi pare bat agertu gabe ez nuke, ordea, hain entzule prestuen artetik aldendu nahi. Puntu hauek dira, konkretuki, amaierako honetan agertu nahi ditudanak: bate-tik, euskara batuaren eta euskalkien arteko uztardura eta banaketa osagarria bilatu beharra; bestetik, burua jasotzen ari diren euskal aldaera berriak aurrez aurre aztertu beharra. Puntu biek dute, ene ustez, aparteko garrantzia: garrantzi akademikoa batetik, eta soziala bestetik. Ikus ditzagun biak, hurrenez hurren.

⁸¹ Egia zen hori, funtsean, autonomia-aldiaren hasiera hartan: “dena” zegoen une hartan egiteko, eta premia gordinenek, ez ezinbestean luzera begirako garrantzitsuenez, kontsumitu izan zuten sarri une hartako hezkuntza-arduradunen denbora eta esfortzu gehiena. Baita baliabide operatibo, material eta ekonomiko handienak ere.

⁸² Azkeneko saio ezagun hori berrikitan egin dugu: 2007-08 ikasturtean. Sailaren babesaz eta lankidetzaz Soziolinguistika Klusterrak aurrera daraman ARRUE ikerketa-lanaren barruan, eskola-giroko hizkuntza-erabilera aztertzeko orduan hainbat analisi egin dira, erregresio anizkoi-tzekoak barne. Ikerlan hori osatzerakoan berariazko zatia eskaini zaio analisi intralinguistikoari, Gipuzkoako eta Bizkaiko ikasleen aldaera-ezagutza eta aldaera-erabilera arakatuz. Donostiako IRALEko teknikari-taldea ibili da lan horretan, aski emaitza adierazgarriak eskuratuz.

VI.1. Batuaren eta euskalkien arteko uztardura eta banaketa osagarria

Euskara batuaren eta euskalkien arteko uztardura eta banaketa osagarria diseinatu, adostu eta aplikatzen saiatzea komeni zaigu euskaltzaleoi, hasi berria dugun mende honetan, gure hizkuntza ahula ganoraz indarberrituko badugu. Kontua ez da, jakina, “bat ala beste”-ko auzia: kostatu zaigu hori ulerzea (batuzaleok ez gara horretan behinolako euskalkizaleak baino malguago izan), baina gero eta errazago (errazago eta zabalago) onartzen da ikuspegi hori batzuen eta besteen artean. Kontuz ordea: “bat eta beste” ez da, huts-hutsean harturik, irtenbide arteza. Hori baino zehatzago jarduteko ordua iritsia zaigu, hizkuntzaren gizarte-dimentsioaz kezkatu gaudenoi. Areagoko zehaztasunak, bistan da, funtsezko galdera honi erantzuten saiatzea eskatzen du: nork-noiz-norekin-non-zertarako erabili behar luke euskara batua, eta nork-noiz-norekin-non-zertarako euskalkia? Behin eta birritan “non” diogunean, gure kasuan, eskola-esparrua dugu batez ere gogoan. Galdera ezin liteke ordea, eskolan zentratu egonik ere, jardun-gune horretara mugatu. Buru biko galdera horri erantzuten saiatzea, hori da nolana ere benetako erronka. Ihesbide antzua da gainerakoa. On izango da, horretarako, errepasso xume batetik abiatzea.

Euskara batuaren zabalkunde-lan ohargarria egin du eskolak, hogeita bost urteotan. Ez dago dudarik, hasteko, euskara batua eta eskola-mundua oso elkarren eskutik ibili direla, hasieratik. Gogoratu Koldo Mitxelena Aranztzuko txostenaren sarrerako esaldi ezaguna. Aparteko lekua izan du hezkuntzak, ikuspegi hori dela-eta, euskara batuaren sorreran eta zabalkundean. Orain ere halatsu da: euskara batuaz idazten dakiten profesional gehienak, askogatik, irakasleak dira. Irakasleak edo, nola edo hala, hezkuntzarekin lotura profesionala dutenak (liburu-prestatzaileak, argitaratzaileak,..). 23.000 irakasletik gora daude une honetan, EAEko irakasmila ez-unibertsitarioetan, HE2, EGA edo baliokideren bat dutenak. Horiek guztiek, normalean, kontaktu zuzena izan dute hizkuntzaren aldaera jaso, formal, idatziarekin. Eta kontaktu hori, hamarretik bederatzietan, euskara batuaren bidez edo euskara batua kontuan hartuz gertatu da. Eskola-liburuetan ere hedadura handia du euskara batuak. Pierre Broussain-en eta R. M. Azkueren garai bateko ametsa neurri zabalean bete da: badugu belaunaldi berri bat, etxeko edo eskualdeko hizkera-moldeaz gainera orotariko eta orotarako aldaera jaso-neutro-formala ikasi duena. Aldaera jaso berria ikasi duena eta, hainbatean, erabiltzen ere badakiena. Ez dira ikasle guztiak, urrundik ere, egoera horretara iristen. Milaka dira, ordea, eta kopurua emendatuz doa: 3.000 EGAdun berritik gora

sortzen dira urtero EAEn eta Nafarroan⁸³. Horiatariko gehienak, askogatik, 17 eta 25 urte arteko gazteak. Lehenengo aldia da gure historia ezagunean, halakorik gertatzen dena.

Guztia ez da txuri-gorritzko egoera ordea. Irabaziarekin batera, agian konaturatu ere gabe, asko ari gara galtzen. Eguneroko eta lagunarteko hizkera-molde fresko naturalak berekin izan ohi duen gatza eta piperra, sinpleziaren erakarmena eta lilura, “beti honela” entzundakoaren eta “beti horrela” esandakoaren bizitasuna eta zaporea, bihotz-hunkigarritzko berba-zartada eta arintasuna, indartu ordez ahultzen ari dira oro har. Galera handia da eguneroko eta lagunarteko hitz-aspertu xume, bizi eta zirragarrien etengabeko galera hori. Hori ez da konpontzen bina euroko hitz potoloak erantsiz han-hemen, hizkera-molde aseptikoaren erdian. Galera hori ez da berdintzen, orobat, orain gutxira arte hitz labur baina sarkorrez esan izan dena jira-buelta aspergarritz “dotoretuz”: hori ez da konpontzen “Durangon” esan ordez “Durango hiri bizkaitarrean” esanaz behar denean eta, bereziki, behar ez denean. Erakutsi egin beharko luke eskolak, hitzek eta hitzartek beren lekua dutela eta hitz-forma bakarra izatea (are gutxiago formarik konplikatuena hobestea) ez dela aberastasun-seinale.

Eskola leku zarpaila da ordea, inon zarpailik bada, aldaeren aberastasunaz jabearazteko, hizkera sinplearen abantailak nabarmentzeko eta berba-egikera gozoa indartzeko. Ikasgelan sortzen den jardunak, gaiak hartaraturik batetik eta irakasle-rolak bultzaturik bestetik, euskara jaso (edota, gutxienez, jaso ustekoa edo jaso-asmokoa) indartu ohi du sarrien: ikasleen arteko txutxu-mutxu bihurri eta bihozkorretik urrutien dagoen erregistroa. Ez da konpondu ezineko kontua, baina bai konpontzen zaila eta, dakidan neurrian, orain arte ahul atentitua.

Euskaltasunaren zatikatzailetzat hartu izan da euskalkia, ehun urte luzez. Euskalkiak gure erreperitorio linguistikoaren funtsezko osagai direla errazegi ahaztu dugu gehienok, zatikatze-arriskuaren beldur-sentiera horrek bultzaturik. Egia zentral hori ahaztu izanak, berriz, hobera ordez okerrera eraman du auzia. Asko gara horretan errudun: ez daukagu ezinbestean ezker-eskuin begira hasi beharrik. Kostatzen ari zaigu entenditzea, “bertako euskara”-z jarduteko erraztasunik ez duen gazteak gaztelaniaz kanalizatuko dituela hainbatean bere baitako ametsak eta gorrotoak⁸⁴, ilusioak eta beldurrak. Eta hori

⁸³ Kopuru horri hizkuntza-eskola ofizialetakoak, administrazio alorreko hizkuntza-eskakizunak, HABErenak eta abar erantsi behar zaizkio.

⁸⁴ Hor daude Arrue ikerketaren lehen iradokizunak, bide horretara apuntatzen dutenak.

dena gaztelaniaz kanalizatzen duen gazteak, zertarako behar du euskara? Ruffiniren erregela buruz ikasi, azterketa-egunean nola edo hala azaldu eta lehenbailehen ahazteko? Horretarako behar al genuen euskal eskola?

Behar-beharrezkoa dute gazteek euskara batua, biharko egunerako. XXI. mendean ez du euskarak bizi-esperantza handirik, orotarako aldaera hori gabe. Lanean eta supermerkatuko etiketajeon, kultura-kontsumoan eta eguneroko albiste-emankizunetan, informatikako aplikazioetan eta errotulazio publikoan, dokumentazio idatzian eta ikerketa-lan etxekoan “denontzako” moduko aldaera bat ezinbestekoa dugu. Horrekin bakarrik jai du, ordea, euskarak: eguneroko mintzajardun xumeak, lekuan lekuko moldera egokituak, choten du hiztun-elkarteari belaunetz belauneko etorkizun-aukera eskaintzen dion berba-sare posible bakarra. Horretaz jabetzen eta jabeazten jakin behar genuke guztiok, aspergarrizko produkzio “korrekto” bezain antzuan itoko ez bagara. Egia da garo- eta kresal-usaina galdu beharra zeukala euskarak, hainbatean. Egia da, orobat, bai azalpen-prosaren estilo-lanketan eta bai terminologia teknikoaren finkapenean aurrera egin dela oro har⁸⁵. Garo-usainik eta kresal-zaporerik gabeko euskarak ez du ordea hiztun trebearen mihia nekatzen, ez eta hiztun-gai berriarena zorrotzen. Bata eta bestea, biak behar ditugu eta biegi lagundu behar lieke eskolak bidea egiten. Asko egin da, dudarik gabe, EEN legeak 30. artikuluan agindutakoaren bidetik. Baina asko dago egiteko: geure burua argitzea eta erreperitorio linguistikoen izaeraz eta garrantziaz jabetzea, hori dugu lehen eginkizuna. Beharrezkoa da, bai, euskara batua. Hizkuntza bera indarberritu egin dezake guztion arteko aldaera horrek, halako neurri baten. Egia horrek ez gaitu ordea itsutu behar: euskalkiak eta lekuan lekuko hizkera-moldeak ere hor egongo dira, euskara bizirik ateratzen badugu. Bakoi-tzari bere lekua bilatzen eta aitortzen ikasi behar dugu, euskaldunon erreperitorio berbal edo aldaera-sorta osoan.

Labur bilduz: euskara batuaren eta euskalkien arteko uztardura eta banaketa osagarria (elkarri ahalik eta itzal gutxien egingo diotenekoa) eskuratzea komeni zaigu hiztunoi. Eskueran ditugun aldaeren uztardura eta banaketa osagarria diseinatu, adostu eta aplikatzea eskatzen du horrek⁸⁶. Eginkizun dago lan hori, bai ele arteko planoan (euskara-erdaren artean alegia) eta bai ele barnekoan (batuaren eta euskalkien artean bereziki). Euskara-erdaren artean

⁸⁵ Eskola-munduko terminologia teknikoaren kontuaz ikus, adibidez, Zalbide1993.

⁸⁶ Ez naiz, urrundik ere, hori esaten duen lehenengoa. Gogoratu Alan King-*ez* egindako aipamena eta gogoratu, bereziki, ahaztu samarrik (ahaztuegi ere bai, motibo hau edo beste dela medio) daukagun Txepetx: Ikus, bereziki, 1986ko bere artikulua 32. orrialdean “pugna entre el batua y los dialectos” kontuaz dioena.

(maila interlinguistikoan) eginkizun daukagun lanik handienetako horixe da, dudarik gabe. Hainbatera iritsi gabe ere eginkizun argia da lan hori ele barnean. Maila intralinguistikoan ere irabazian aterako ginateke, aldaera biak adostasun sozial zabalez uztartuko bagenu. Kontuan izan behar du hori eskolak: eskolak oro har, Euskal Herri osoan⁸⁷, eta ez Bizkaiko edo *dot*-esparuko ikastetxeek bakarrik. Eskolaumeak etxetik dakarren euskarazko mintzagaitasuna, hitz-etorri erraza bereziki, trabatu eta behaztopatu ordez indartu eta zabaldu egin behar du irakasleak, zabalkuntza horrek euskara batuaz hornitzea dakarrelarik. Lan handia daukagu horretan guztiok eginkizun: irakasle eta eskola-arduradun, argitaldari eta irakasle-eskola, hizkuntzalari eta corpuszein, oso bereziki, estatus-plangintzako espezialista tekniko. Corpus-plangintzan xahutu ziren, 1978tik 1984ra bitartean, esfortzu intelektual, operatibo eta instituzional gehienak. Zuzendu beharreko jokaera da hori, *code-selection* eta *decision-making stage* direlakoei dagokienez. Euskalkia ez dugu korrejitzen (edo nola korrejitu esaten) ibili behar etengabe, euskalkiari eta batuari jardungune, rol-harreman eta situazio arrazoizkoenak zehazten eta inplementatzen saiatu baizik.

Lan zaila da hori, plano sozialean (ez indibidualean) eskuratu nahi badugu arrakasta-apurrik. Kontuan izan behar dugu, izan ere, ingelesaren gorabideko inpaktua alde batera utzita ere ikuspegi herrena dugula, funtsean, gure erreperitorio berbala (gure aldaera-sorta) euskara batura eta euskalkira mugatzen duena. Gaztelania (Iparraldean frantsesa) kontuan hartzen ez duen formulazioa herrena da hainbatean. Aldaera-bikoak gara euskaldun asko (bereziki, etxetik euskaldun garen gehienok; ez aldiz, hein berean bederen, euskaldunberriak). Aldiz, elebidun (eleaniztun) gara lauzpabost urtetik gorako euskaldun guztiak. Guzti-guztiak. Erdararen aldagaia ere lapiko berean sartu beharra daukagu hortaz, aldaera hiruko formulazioa eratuz eta hiru aldaera horietako bakoitzari (euskalkiari, euskara batuari eta erdarari/erdare) elkarren arteko uztardura eta banaketa osagarria diseinatzen, adosten eta aplikatzen saiatuz.

VI.2. Euskara garbia eta mordoiloa: biak beharrezko?

Biak kontuan hartu behar

Euskaldunon erreperitorio berbalaz, gure aldaera-sorta osoaz, jardun dugu gorago. Bi polo azaldu ditugu: euskara batua batetik, euskalkiak bes-

⁸⁷ Iparraldeko kezka-arazoez eta irtenbide posibleez ikus, adibidez, Xole Aire, Margarita Errekarte, Martta Laco, Alazne Petuya eta Guillermo Etxebarria, 2001.

tetik. Gure hiztun-elkartearen erreperitorioa ez da ordea bipolarra, multipolarra baizik. Ardatz bat definitzen dute batu/euskalki poloek, baina ez dira polo bakarrak. Erdara/euskara bikoteak berekin dakarren konpartimentazio-kontua (eta horko bi poloei dagokien ardatza) gaurkoan alde batera utzita ere⁸⁸, bada beste ardatzik tartean: batetik euskara garbia hartzen badugu, eta bestetik euskara mordoiloa, horra hor bigarren ardatza. Euskara-erdaren kontaktuak, bere nolakoak eta zenbatekoak, aparteko aldaera gureganatu du: erdarak oso interferituriko eta *code switching* ugariko euskara-moldea⁸⁹. Demagun bi ardatz horiek beregainak direla. Kasu horretan ondoko lau gelaxka hauek behar genituzke, situazio posibleen konbinatoria ondo irudikatzeko.

		Euskara	
		Batua	Euskalkia
Euskara	Garbia	A	B
	Mordoiloa	C	D

Ez dute bi ardatz eta lau gelaxka horiek, ondo pentsatzen jarrita, zergatik bakarrak izan: hizketan ari den hiztuna euskaldun zahar edo berri den kontuan hartuz, posible genuke hor ere zenbait bereizketa egitea. Hirugarren ardatza aterako genuke hortik. Eta posible genuke, nola ez, solaskidetzaren situazio soziolinguistikoa oinarri hartuz forma/informal bereizketa egitea, esate baterako. Ingurumeneko hizkuntza nagusia euskara den (Errezilen kasu), edo erdara (Euskal herri gehiengan), hori ere bereizketa-bide bihurtu ezinik ez genuke. Hizkuntzaren analisi intralinguistiko orokorraz ari garenez gaur, halere, aski dugu hasierako bi ardatz eta lau gelaxka horietatik hastea. Goiko lau

⁸⁸ Bi motibo ditugu nagusi, horrela jokatzeko: batetik, txosten hau ez dela analisi interlinguistikoaz ari, euskararen barruko aldaerez (hots, analisi intralinguistikoaz) baizik; bestetik, hiru ardatzeko formulazioak aparteko (gure artean aski ahul landutako) kontzeptualizazioa beharko lukeela aldeztu aurretik.

⁸⁹ Erdarak gogor erasandako euskara-moldeak ez dira fenomeno berria, aspaldi samarretik ondo dokumentaturiko gertakariak baizik, bai iparraldean (cf. Donibane Lohizuneko euskara “bastarta”, Julio Urkixok lokalizaturiko testu zaharrean argi deskribatua) eta bai hegoan (cf. Bilboko “tertium quid” delakoa, Koldo Mitxelenak zehatz aipatua). Fenomenoa bera zaharra izanik ere, “atzo egin *degu* parranda bat *de-la-ostia*” moduko euskara-moldea berri samarra da: azken 30 bat urtetik honakoa. Horretaz ari gara hemen.

gelaxka horien edukia aski argia da⁹⁰. Ondoko zerrenda laukoitzak ematen digu horren berri:

A	Euskara batu garbia, erdal interferentzia askorik gabea
B	Euskalki garbia, erdal (eta batuaren) interferentzia handirik gabea
C	Euskara batu mordoiloa, erdal interferentzia ugari duena
D	Euskalki mordoiloa, erdal interferentzia ugari duena

Hiru faktoreen konbinatoriaz sortu dira lau kategoria (lau lerro) horiek: euskara batua (A), lekuan lekukoa (B_1, B_2, \dots, B_n) eta erdararen (C_1 gaztelanierren, C_2 frantsesaren) interferentzia-inpaktua konbinatuz alegia.

Erraza da, formalki, A kategoria edo A lerroa irudikatzea: Patxi Altunaren jendaurreko azalpen akademiko dotoreak datozkit burura, lerro horren adibide praktiko bat jartzeko orduan. Euskara batu garbia, erdal interferentzia nabarmenik gabea, egiten zuen maiz Azpeitiko maisu handiak. Bazekien berak ere besterik egiten: Azpeitian, adibidez, aski beste erara egingo zuen etxekoekin eta aspaldiko lagun zaharrek. Jendaurrean, ordea, erdal interferentzia askorik gabeko euskara batu garbia egiten zuen eskuarki. Horren antzekoa da, adibide berrietara hurbilduz, ETBko Xabier Euzkitzeren esatari-lana. Euskara garbia du berak ere: garbia eta, aldi berean, Euskaltzaindiak emandako batasun-arauak zintzoki errespetatuz eraikitakoa. Bata zein bestea, nolahi ere, A kategoria horren erakuskeri gailen ditugu. Zenbat ditugu ordea, egungo egunean eta hemen lurrean (ez zeruan), horrelako hiztunak? Ehuneko zenbat? Ez dut uste, % 5era iristen direnik. Situazio idealizatu batera hurbiltzen gara, A lerroaz dihardugunean.

Erraza da, era berean, B lerroa irudikatzea: oraindik indarrean ditugun arnaguneetan bizi diren euskaldun jator, normalean adin batetik gorako, erdararekin kontaktu handirik izan gabeak sar litezke hor, eskubide osoz; horiek edota, horien faltan, kale-giroan bizi izanik ere euskaldun garbiak direnak eta, hainbatetan, beren euskalkiari tinko eutsi diotenak eta hartaz baliatzen direnak eguneroko zeregin arrunt gehienetarako. Euskaltzainditik bertatik asko alden du beharrik ez geneukake, seguruenik, B lerroko mintzaira horiez ohar-

⁹⁰ Jakin badakigu, errealitatea ez dela sarri bai/ez modukoa, *continuum* batean hutsetik ehunera doan gradazio baten arabera baizik. Sinplifikazioa da, hortaz, goiko azalpen hori. Bere sinplifikazio eta guzti baliozkoa da ondoren esatera goazenak argitzeke.

tzeko. Zenbat dira ordea, oraingoan ere, horrela mintzo diren (eta horrela idazten duten) hiztunak? Kopuru zehatzik esatera ez naiz oraingoan ausartzen, hitzezko eta idatzizko bereizbideak ñabardura handiak eta azpimultzo are bihurriagoak egitea eskatuko bailuke horrek, seguruenik. Baina ez dira asko eta, bereziki, kopuruz beherantz doaz. Urteen joanari datxekion adin-banaketak bere legeak ditu horretan ere.

C eta D kategoriak edo lerroak datozkigu hurrena: lerro horiek lokalizatzen ere ez da oso zaila: euskalkia zein euskara batua izan abiaburu, erdal interferentzia nabarmeneko hizkera- eta idazkera-moldeak ugariak dira gure artean. Nork ez ditu halakoak ezker-eskuin ezagun? Urrutiegi begiratu beharrik ba ote daukagu, akaso, horretaz jabetzeko? Ez ote gaude gu geu ere, hainbatean, esparru horretan murgilduak? Nork esan dezake, nolana ere, horrela mintzo diren (edo horrela idazten duten) hiztunak gero eta gutxiago direnik gure artean? Nork esan dezake kategoria hori beherantz doanik kopuruz, are irakasle euskaldunen artean? Nik, behintzat, ez nuke halakorik esango.

Badakigu, jakina, era askotakoak izan litezkeela interferentziak: hots-ebakerazkoak, morfosintaktikoak eta semantikoak, besteak beste. Lehenengo multzoari (interferentzia fonetikoaren multzoari) helduz, horrela, *prozesu, zero, Zurich* edo *Zumalakarregi* moduko hitzetan hots-ebakera berria nagusitzen ari zaio orain puntura artekoari, eskola-munduan: zeharo nagusitzen ere, oso oker ez banago. Hori ez da *euskara batu* vs. *euskalki* kontua⁹¹: *euskara garbi/mordoilo* ardatzean gabilitza, gero eta sarriago, goiko bereizketa horiek egiterakoan. Euskararen aldaerak dira horiek ere, hiztun-talde zabaletara hedatzen eta, belaunez belauneko perspektiban transmititzen eta, horrenbestez, egonkortzen diren neurrian. Beste hitzetan esanik, euskararen aldaerez jardun nahi duenak gero eta kontuanago izan beharko ditu C eta D kategoriak.

Badira, azkenik, estabilizatze-itxura hartzen ari diren nahas-egoera batzuk ere. Hiztun askok egiten duena, *garbi/mordoilo* kontua alde batera utziaz une batez, ez da ez euskalkia eta ez batua: erdibideko zerbait da gero eta sarriago. Erdibideko nahas-egoera horri *garbi/mordoilo* dikotomia aplikatzen bazaio, bosgarren (E) eta seigarren (F) kategoriak edo lerroak erantsi behar dizkiogu hasierako zerrenda laukoitzari:

⁹¹ Kontuz ordea, korrelazio-moduren bat aurkitzea ez bailitzateke seguruenik hain zaila.

A	Euskara batu garbia, erdal interferentzia askorik gabea
B	Euskalki garbia, erdal (eta batuaren) interferentzia handirik gabea
C	Euskara batu mordoiloa, erdal interferentzia ugari duena
D	Euskalki mordoiloa, erdal interferentzia ugari duena
E	Euskalki-batu nahasia, erdal interferentzia handirik gabea
F	Euskalki-batu nahasia, erdal interferentzia ugari duena

Nola azaldu E eta F kategorietako euskara moldeak? Ez erabat euskara batutik eta ez zeharo behialako euskalkitik edaten duten euskara modu nahasiak dira horiek. Guztion edo gehien-gehienon ezpain-lumetara hedatzen ari dira azken mende-laurdenean: baita eskola-munduan ere, nahiz eta fenomeno nabarmenagoa izan jardun-gune horretatik kanpora. E lerroaren kasuan, euskara *hibrido* hori aski ezaguna da irakasleen eta adin batetik gorako ikasleen artean: inoiz *gipuzkera dut-duna* deitu izan zaion eredu horrek bere bidea egin du. Aski zabaldua dago ikastetxeetan: antzeko neurrian ikastoletan eta gainerakoetan. Baita euskaldun kaletar (usaineko) gehienok biltzen gaituen zirkulu zabalagoan ere. Nork geure singladura pertsonala egin badugu ere erdibideko hizkera molde hori golkoratzeko, bistan da jardun-gune berrien (euskararentzat “berri”en) inpaktuak (ikasgela, euskarazko irrati-telebista, jendaurreko euskara idatzia,..) konpromisozko formuletara eramán gaituela sarri, une eta neurri diferentean barneraturik dugun euskara batua etxetik genekien mintzamoldearekin uztartuz. Batez ere hizkera molde informalean, eguneroko mintzajardunaren bizkarrezur barrenkoi-intimoena osatzen duen horretan, ari da E kategoria izendatu dugun euskara modu nahasi hori zabaltzen.

Nabarmena izanik ere E lerroko euskara nahasi hori, are nabarmenagoa dugu, agian, F lerrokoa. E-ren ezaugarriei erdararen (hegoaldean gaztelaniaren) inpaktupean garaturiko berritasunak ditu F horrek berekin. Izen askotxo eman bazaio ere, *euskañol dut-duna* ez lebilke, agian, muinaren muinetik urrutien. E-ren ezaugarri askotxo ditu berekin, baina bereizgarriak ere bai: erdal erasan gogorra, bereziki. Goraxeago azaldu diren hots-ebakerazko interferentziez gainera posible da kasu horretan interferentzia lexikalak, morfosintaktikoak eta, are, *code switching* eta *code mixing* edo *metaphorical switching*⁹² ugariak aurkitzea. Irakasleen eta adin batetik gorako ikasleen artean, esate baterako, erregis-

⁹² Termino horren adieraz jabetzeko ikus, adibidez, Holmes 1992: 48-51.

tro formalaz kanpoko jardunean maiz entzuten dira honelako *code mixing* edo *metaphorical switching* kasuak. Gipuzkoako irakasle-munduan jasoak ditut, adibidez, ondoko esaldi hauek: “*a-tope* ari gera azterketak zuzentzen eta bukatu egin behar degu *por-pelotas*”, “zure proposamena *en-principio* ontzat emango degu”. Baita besteok ere: “datorren astean ez dela agertuko esan du Aitorrek, *komokienokierelakosa*”, edota “buruz argia dek, baina badik erabakirik ez harzkeko ohitura bat *kemetienefrito*”, eta horrelako beste asko⁹³.

Badakit zer esango zaidan: “hori ez da euskara; ez, behintzat, euskaltzaleok eta euskaldun gehienok nahi genukeen euskara”. Bistan da goiko esaldi horiek ez direla hizkera- eta idazkera-molde jasoaren zuzentasun-eredu. Batak ez du ordea bestea kentzen: F-euskara hori ere hor dago. Eguneroko hizkera arrunt-informalean gero eta errotuago dago, gainera. Hizkuntzaren geroaz kezka bat dugunok (are gehiago hezkuntza-alorrean edo Euskaltzaindian ardura jakinik dugunok) ez genioke, hortaz, hizkera molde horri ez ikusiarena egin behar. Gustatu ala ez, zabaltzen ari da: azken aldian (batez ere euskarak kaleko hizkera gisa funtzionatzen duen arnasguneetan) gero eta usuago entzuten da. Bilakaera hori *kaltegarri* dela esatearekin ezer gutxi konpontzen da. Soluzio erraz-itxurakoek ere ez dute balio. Ezer gutxi balio du, konponbide bila hasirik, euskaldunak euskaltzale(ago)tzen hastea. “Ikas dezatela behingoz ondo hitz egiten, eta kitto!” esatearekin ere ez dira kontuok konpontzen. F-euskararen zabalkunde hori ez da, ezinbestean, hiztunen euskaltzaletasun-falta. Besterik da mekanismoa, hartaz baliatzen garamatzana. Hizkuntza-gaitasun mugatua izan liteke, jakina, alternantzia horren motibo nagusietako bat. Baina hori bakarrik ere ez da⁹⁴: F-moldeaz baliatzen den euskaldunak, bere gaitasun-maila gorabehera, erdal makulu bixi-bortitzen gero eta behar (ez ezinbestean gogo) handiagoa sentitzen du, antza. Euskara-erdaren kontaktu-moldeak eta gure arteko *bilingual dominance configuration* nagusiak hartaraturik jotzen dugu maiz mintzaira horretara, eguneroko mintzajardun arruntean. *Bilingual dominance configuration* hori gizartean (ez banakako hiztunaren gogoan) aldatzen ez den artean, nekez desagertuko zaigu F-euskara hori.

Maileguzko hitzen esparru hutsetik arras urrunago doa F-ranzko joera hori, interferentzia modu guztiak (hotsezkoak, gramatikalak, semantikoak eta

⁹³ Ikusteko dago, esaldi-amaieran ez ote den *code-mixing* edo *metaphorical switching* delakoa hasieran edo tartean baino maizago agertzen gure artean, egungo egunean.

⁹⁴ Garbi baieztatua dago hori mundu zabaleko zenbait hiztun-herri elebidunetan (Holmes, 1992: 50), eta gurean ere garbi dagoela uste dut.

lexikalak: ikus U. Weinreich 1953) eta, bereziki, kode-alternantzia ugari bereganatuz. Garrantzi handiko fenomeno da beraz. Belaunez belauneko jarraipen-bideari dagokionez, bereziki, zentrala: eskola-esparruko azalpen jasoa baino maizago hizkera-molde arrunta izan ohi da gizartean zabaldu eta hurrengo belaunaldira transmititzen dena. Orain artekoan baino atentzio handiagoa eskaini beharko diogu hortaz aldaera berri “benetako” horri, euskara biziak eta euskararen biziak kezkatzen baldin bagaitu lehenik eta behin. Euskara molde hori gutxietsi eta ez ikusiarena egitea ez da bidea. Ia huts-hutsik eskola-giroan erabiliko litzatekeen eta onenean ere eskola bidez L2 gisa transmitituko genukeen euskara ederraren miresmenetan ito nahi ez badugu, Joan Argenter-ek (2000: 111) katalanari begira iradokia duen gisa, atentzio handiagoa zor diogu *euskañol* modu horri. Ez hobea delako, ez bereziki gogoko dugulako, ez hizkuntzaren menderik mendeko bizkarrezur morfosintaktiko eta hots-ebakera egoki zaintzen duelako, ez orain arteko kategoria semantikoak ongi errespetatzen dituelako eta ez, jakina, ohiko hitz-altxorren erabilera oparo eta indarbetezkoa segurtatzen duelako. Bai, ordea, hainbatentzat (hainbat gazterentzat eta, are, gazte izandako beste hainbatentzat) esistitzen den aldaera nagusia (zenbaitentzat, trebetasun produktiboei dagokienez, ia bakarra) horixe delako.

Aldaera horiei ere erreparatzen hasi beharko genuke hortaz, joko guztia karta bakarrera jokatzeko jarraitu ordez. Euskara batuak bere lekua irabazi du: horretan ez dago dudarik. Euskalkiak ere ez dira desagertu, orain dela berrogei urte baino ahulduago eta (bi lekutatik, erdarak eta euskara batuak eraginda) interbenituago badaude ere. Azkenik, bestelako aldaera berriak, zenbaitetan soziolekto itxura hartzen dutenak baina batez ere erdal interferentziaren kume ditugunak, zabalduz doaz oro har. Eskola-mundua, bereziki, aldaera horien guztien agerleku zabal eta nabarmena da. 1968an ez zen fenomeno horren aurreikuspen espresik egin: erraz egiterik ere ez zegoen, Pragako eskolaren paradigma zuenez euskara batuak oinarri eta euskal eskolaren emaitza handirik esistitu ere ia egiten ez zelako. 1978-79ko gogoeta-saioan ere alde batera utzi zen, funtsean, aniztasun horren kontua, eta gauza berbera egin genuen 1982an ere⁹⁵. Azkenean “euskara batu bat eta (lekuan lekuko) euskalki bat”

⁹⁵ Mikel Zarate izan zen, inor izatekotan, gai horri hurbilenetik heldu ziona. Bereak dira, izan ere “euskara bizi”-aren aldeko argudio-azalpen jantzienak. Berea da, esate baterako, ondoko esaldi hau: “euskara batuaren sortzaile ta eragile gisa agertzen diren batzuk ere, euskara batu bizi jatorraren kontra doaz, gaurko euskaldunen euskarari jaramon handirik egin gabe (...). Konturatu edo konturatu barik, herriko hizkuntza bizi koloretsutik alde egin dugu gehienetan”.

izango genitueneko prognostikoa ez da bete. Euskara batuaz gainera hor dau-
de euskalkiak, nahas- hizkuntzak eta, are, euskara mordoiloizko hizkerak. Ho-
riek guztiek, ez lehenengoak bakarrik, osatzen dute egungo euskara.

Egon hor dago, bereziki, erdal inpaktu-erasan biziaren ondoriozko aldaera
modu berria. Errealitate ukaezin hori balore-irizpen ezkorrez (*euskara txarra,*
ortopedikoa, artifiziala,..) deskribatze hutsa ez dakit norainoko aurrerabide
den. Euskara zuzena, egokia, garbia, aberats-joria behar-beharrezkoa dugu,
kontestu formaleko hainbat situaziotarako eta euskalki-esparruaz haraindiko
zabalkunde-lanerako. Hori gabe gaztelaniara, frantsesera (edo ingelesera) joko
dugu bestela, normalean, euskararen erabilera-esparrua are meharragotuz.
Kontua ez da, ordea, hori bakarrik. Euskara on, eder, zuzen, egokiaz (zehaz-
kiago: egokiez) gainera besterik ere badabil gure artean, eta “beste” hori ez
dirudi egun batetik bestera desagertzeraren doanik, ugaritzera baizik. *Bueno-bale-*
ko euskara etxekotua daukagu euskaldun gehienok: geu ere gutxitan kontura-
tzen garen neurriraino etxekotua. *Oseake*-euskara hori da hizkera informal-
intimoan hitzetik hortzera darabilguna eta hori da beraz, zeru-lurrak oso
bestelakotzen ez badira bihar edo etzi, gure ondorengoei eskuratuko diegun
euskal ondarearen osagaietako bat. Ez nolana hiko osagaia, gainera, jaio on-
doko kontestu arruntetan lehenik eta behin eskuratuko dutena baizik.
Hizkuntza formala, jaso, idatzizko jardunean garatua eta estilistikoki landua
gero eskuratuko dute gazte horiek, kasurik onenean. Erdal makuluzko euskara
informal-intimo hori da, hortaz, bihar-etziko euskararen oinarri ezinbesteko-
tako bat. Ez ote du merezi, hortaz, dagoeneko hain etxeraturik dugun feno-
meno horri ere aurrez aurre⁹⁶ heltzea?

Labur bilduz: bistan da garai bateko ustea, azkenean euskaldun guztiok
(euskaraz jarduterakoan) zeregin komunikatibo guztietarako euskara batuan
egingo genuelakoa, gero eta egiatik urrunago gelditzen ari dela. Bestela esanik,
dibertsifikatzen ari da euskaldunon erreperitorio linguistikoa hori, soildu ordez,
azken mende-laurdenean. Ez zen hori, seguruenik, euskara batuaren sor-
tzaileek eta garatzaileek buruan genuen txuri-gorritzko amets-eredua. Errazegi
ahaztu genuen, antza, erreperitorio linguistikoa ez dela bitxitasuna, ezta hiz-
tun-elkarte txiki-ahulen berariazko gaixotasuna ere. Hizkuntza-aldaeren
mundua bizitasun-seinale ere bada, hein batean. Baina guztia ez da “nonahiko

⁹⁶ Aieka askotatik hel dakiok, berez, fenomeno horri: perspektiba linguistikoa da bat,
psikolinguistikoa bestea eta soziolinguistikoa hirugarrena. Baliteke beste perspektibarik ere es-
kuratu behar edo komeni izatea. Baina ez legoke gaizki, goian esandako hiru horietatik bederen
aztergaiari itxura batean heltzera iritsiko bagina inoiz.

lege orokor” baten isla. Gurean (eta gu bezalako hiztun-elkarte txiki-ahuldu askotxotan) emendiozko aniztasuna (hizkuntza “osasuntsu”etan baino ugaria-goa eta zorrotzagoa) sortzen da. Zerikusi argia dute horretan, besteak beste, honako bi faktoreok: a) batuaren eta euskalki(ar)en arteko egonezinak; b) euskaldun gehienon jarduera arruntean erdarak (hegoaldean gaztelaniak) eragiten duen interferentzia. Hizkuntza “osasuntsu”etan aski handia den erreperitorioa laburragoa da (eta hala izaten jarraituko du), alde batetik, erreperitorio horren oinarrian dauden jardun-guneetan, harreman-sareetan eta solaskideen artean leku txiki-meharra duelako euskarak; bestalde, ordea, hizkuntza “osasuntsu” horietan baino erreperitorio zabalagoa dugu begi-belarrietan, goiko hiru aldaera-hizkuntza horien arteko konpartimentazio soziofuntzional zehatz baten faltaz. Hala dugu orain eta hala izango dugu, seguruenik, datozen urteotan ere⁹⁷. Nolanahi ere, gure arteko hizkuntza-aldaren aniztasunak bizirik iraungo du begien bistako etorkizunean, euskarazko jardun-guneek, harreman-sareek eta solasgaiek bizirik dirauten artean. Ez ote dugu hori aski motibo, hizkuntzalariek ez ezik soziolinguistek eta (biak bereizterik aizu banu) hizkuntza-soziologoek ere, euskal aldaera zahar-berrien kontuari azken aldian baino atentzio handixeagoa eskaintzeko? Hala iruditzen zait niri, eta hartarako gonbita izan nahi luke gaurko ekarpen honek.

Bibliografia

- Agirre, J. M., Eguzkitza, I., Idiazabal, I. eta Larringan, L. M., 1985, *Euskara-zko irakaskuntza Bizkaian. Arazoak eta zenbait proposamen*. Bilbo: Desclée de Brouwer.
- Aire, X., Errekarte, M., Laco, M., Petuya, A. eta Etxebarria, G., 2001, “Euskalkien trataera Iparraldeko ikastoletan”, in Mendebalde Kultur Elkarte (arg.), 2001: 29-43.
- Altzibar, X. (ed.), 2004, *Ni kazeta-egilea naiz; artikulua, berri, istorio*. Bilbo: Labayru.
- Ammon, U. (arg.), 1979, “Dialect and standard in highly industrialized societies”, in *IJSL* 21.

⁹⁷ Posible da noski euskal aldaera gutxiagotarako joera indartzea gure artean, hizkuntzaz baliatzen direnak hartarako aukera edo beharra dakarren gizarte-giroan murgildurik bizi diren neurrian. Hori ez da, ordea, hizkuntzaren teknikoek oso erraz bidera dezaketen neurria.

- , 1983, “Soziale Bewertung des Dialektsprechers: Vor- und Nachteile in Schule, Beruf und Gesellschaft”, in W. Besch et al (argk.) *Handbuch der Dialektologie* II, 1499-1508. Berlin: de Gruyter.
- , 1989, *Status and Function of Languages and Language Varieties*. Berlin/ New York: de Gruyter.
- Archu, J. B., 1848, *La Fontainaren aleghia berheziak*. La Reole: Pasquie.
- , 1852, *Uskara eta franzes gramatika, uskalherrietaco haurrentzat eguina. Grammaire basque et française, à l’usage des écoles du pays basque*. Baiona: Foré et Lasserre. Bigarren argitaraldia 1853an, hirugarrena 1868an.
- Arejita, A., 1997, “Bizkai euskera idatziaren morfologia-eredurako zertzeladak”, in Mendebalde Kultur Elkartea (arg.), 1997: 133-158.
- Argenter, J. A., 2000, “Kodifikations- und Normalisierungsprozesse: Wechselverhältnisse und Widersprüche”, in *Grenzgänge* 14 (Thema: Neue Herausforderungen für die Katalanische Soziolinguistik), 96-115.
- Astigarraga, L., 1825, *Diccionario manual bascongado y castellano, y elementos de la gramatica*. Donostia, Ignacio Ramon Barojaren imprenta.
- Azkue, R. M., 1891, *Euskal Izkindea*. Bilbo: Astui.
- Barruso, A., 2001, “Eskolan: batua? Euskalkia? Biak?”, in Mendebalde Kultur Elkartea (arg.), 2001: 11-27.
- Casenave-Harigile, J., 2006, “Dominique-Joseph Garaten Les recherches sur le peuple primitif de l’Espagne, sur les révolutions de cette Péninsule, sur les Basques Espagnols et français (1811). Transkripzioa eta oharrak”. In *Lapurdum* XI.
- Certeau, M., et al., 1975, *Une politique de la langue. La révolution française et les patois*. Paris: Gallimard.
- Cobarrubias, J. eta Fishman, J. A. (argk.), 1983, *Progress in Language Planning*. Berlin: Walter de Gruyter.
- Dávila, P., 1997, “Los libros escolares en euskera” in Escolano Benito, Agustín (ed.): *Historia Ilustrada del Libro Escolar en España. Del Antiguo Régimen a la Segunda República*. Madril, Fundación Germán Sánchez Ruipérez. 599-620.
- Egia, L., 1972, *Neurritzti*. Donostia: Kardaberaz.

- Eguren, J. M., 1867, *Método Práctico para enseñar el castellano en las escuelas vascongadas*. Gasteiz, Semanario Católico Vasco-Navaroren inprenta.
- , 1876, *Diccionario vasco-castellano*. Donostia, Barojaren inprenta.
- Elexpuru, J. M., 1996, “Herri-euskararen eremua”, in *EUSKERA* 41. zkia, 523-9.
- Elordui, A., 2006, “Eskolaren hizkuntza-eredua harreman-sareen trinkotzearen ikuspegitik”, in *BAT soziolinguistika aldizkaria*, 60. zkia, 141-60.
- Euskaltzaindia, 1977, *El Libro Blanco del Euskara*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- , 1978, *Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarra*. In *Euskera* XXIV (1978-2). Bilbo.
- , 1979a, *Bergarako biltzar ondoko Erabakiak*, in *EUSKERAREN* aparteko argitalpentxo. Bilbo: Euskaltzaindia.
- , 1979b, “Euskara batua eta euskalkiak irakaskuntzan”, *EUSKERA* 24, 1979-2, 103-6.
- Eusko Legebiltzarra, 1989, *Euskaraz idatzitako erlijio-liburuen errolda*. Gasteiz: Eusko Legebiltzarra.
- Fishman, J. A., 1983, “Modelling rationales in Corpus Planning: modernity and tradition in images of the Good Corpus”, in Juan Cobarrubias eta Joshua A. Fishman argk. 107-18.
- Fishman, J. A. eta Lovas, J., 1970, “Bilingual education in a sociolinguistic perspective”. *TESOL Quarterly*, 4, 215-222.
- Goikoetxea, J. L., 1997, “Hamalau erantzun bizkaieraren irakaskuntzari”, in Mendebalde Kultur Elkartea (arg.), 1997: 93-9.
- , 2003, *Euskalkia eta bezkuntza. Dakigunetik ez dakigunera euskal diglosia irazian*. Iker 13. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Gorostidi, M., 1902, “El Catecismo en las Escuelas” in *Euskal-Erria. Revista Vascongada*. XLVII. lib., 593-597.
- Hagen, A. M., 1987, “Dialect Speaking and School Education in Western Europe”, in *Sociolinguistica* 1, 61-79.
- Halliday, M. A. K., 1964, “The users and uses of language” in M. A. K. Halliday, Angus McIntosh eta Peter Strevens, *The Linguistic Sciences and Language Teaching*. London: Longmans. Erabilitako iturria: Joshua A.

- Fishman arg., *Readings in the Sociology of Language*, The Hague, Mouton, 1977, 139-69 or.
- Haugen, E., 1983, "The Implementation of Corpus Planning", in Juan Cobarrubias eta Joshua A. Fishman (arg.) *Progress in Language Planning*, 269-89.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, 1982, *Euskararen Erabilera Bizkaiko Irakaskuntzan*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Hildebrand, R., 1867, *Vom deutschen Sprachunterricht in der Schule und von deutscher Erziehung und Bildung überhaupt*. Leipzig.
- Hiriart, 1840, *Introduction à la langue française et à la langue basque*. Baiona: V^o Cluzeau.
- Hiriart-Urruti, 1897, ikus Altzibar 2004.
- Holmes, J., 1992, *An Introduction to Sociolinguistics*. London: Longman.
- Ithurry, L'abbé, 1895, *Grammaire Basque. Dialecte Labourdin*. Baiona, A. Lamaignère inprimategia.
- Iturriaga, A. P., 1841, *Arte de aprender a hablar la lengua castellana*. Hernani.
- , 1842a, *Fabulas y otras composiciones en verso vascongado dialecto gipuzcoano con un diccionario vasco-castellano de las voces que son diferentes en los diversos dialectos*. Donostia, Ignacio Ramon Barojaren moldiztegia.
- , 1842b, *Dialogos Basco-Castellanos para las Escuelas de Primeras Letras de Guipuzcoa (Hernani)*. Erabilitako iturria 1979koa. Donostia: Kriselu / Euskal Editoreen Elkarte.
- Kardaberaz, A., 1761, *Eusqueraren Berri Onac*. Iruñea, Antonio Castillaren etxea.
- King, A., 1983, "Batua bai, euskalkia ere bai!", in *Argia*, 1983-II-13.
- , 1993, *The Basque Language: a practical introduction*. Reno: University of Nevada Press.
- Kloss, H., 1952, *Die Entwicklung neuer germanischer Kultursprachen seit 1800*. München: Pohl.
- Lardizabal, F. I., 1856, *Gramática Vascongada*. Donostia, Ignacio Ramon Barojaren moldiztegia.

- Larramendi, M., 1729, *El Imposible Vencido. Arte de la Lengua Bascongada*. Salamanca, Antonio Joseph Villagordo Alcaráz.
- , 1745, *Diccionario Trilingue del Castellano, Bascuence, y Latin*. Donostia, Bartholome Riesgo y Montero Gipuzkoako Probintziaren inprimatzailea.
- Larresoro, 1974, *Euskara batua zertan den*. Oñati: Jakin-Editorial Franciscana Aránzazu.
- Lekuona, M., 1968, Arantzazuko txostena, Euskararen batasuna zela-eta, in *EUSKERA*, 1968.
- Loman, B., 1988, “Sprachliche Standardisierungsprozesse in Skandinavien”, in *Sociolinguistica* 2, 209-31.
- Lopez, I., 1931, *Martin Txilibitu. Irakurbide laburra*. Tolosa: Lopez-Mendizabal.
- , 1932 (2. argitaraldia), *Xabiertxo*. Tolosa: Lopez-Mendizabal.
- Macha, J., 1981, *Dialekt-Hochsprache in der Grundschule. Ergebnisse einer Lehrerbefragung im südlichen Nordrhein-Westfalen*. Bonn.
- Maia, J., 2000, *Eskolako hizkera ereduaz, euskara batuaren eta euskalkiaren arteko harremanen testuinguruan*. EHU. Doktore-tesi argitaragabea.
- , 2001a, “Euskara batua, euskalkia eta eskolako hizkera eredu”, in *Tantak* 126, 79-101.
- , 2001b, “Estandarra eta dialektoak nola ulertu eta tratatu irakaskuntzan”, in *Revista de Psicodidáctica*, 11-12, 239-54.
- , 2001c, “Eskola eta tokian tokiko hizkuntza aldaera”.
- Mendebalde Kultur Elkartea (arg.), 1997, *Mendebaldeko euskara xx. mende goianean*. Bilbo: Mendebalde Euskal Kultur Elkartea.
- , 2001, *Euskalkia eta hezkuntza*. Bilbo: Mendebalde Euskal Kultur Elkartea.
- Mendiguren, X., 1978, “Euskara batua eta irakaskuntza”, in *EUSKERA* 1978-2, 523-531.
- Mitxelena, K., 1968, Arantzazuko batasun-txostena. In *EUSKERA* 1968 (Erabilitako iturria: Larresoro 1974).

- , 1982, “Normalización de la forma escrita de una lengua: el caso vasco”, in *Revista de Occidente*, 10-11. zkia., 55-75.
- Pagola, I., 2005, *Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri*. Bilbo: Euskaltzaindia Iker-18.
- Pastorala*: ikus Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren 1982ko *Euskararen Erabilera Bizkaiko Irakaskuntzan*.
- Ris, R., 1979, “Dialekte und Einheitssprache in der deutschen Schweiz”, in Ammon, U. (arg.), 1979, 41-69.
- Sagarna, A., 1978, “Alfabetatze-euskalduntze irakasleak”, in *EUSKERA* 1978-2, 535-555.
- Sánchez, J. M., 1986, “Fundamentos para una teoría de la territorialidad lingüística”, in Jose Ignacio Ruiz de Olabuenaga eta J. Agustín Ozamiz (ed.), *Hizkuntza Minorizatuena Soziologia. Sociología de Lenguas Minorizadas*, Donostia, 19-49 or.
- Sarasola, I., 2005, Ines Pagolaren *Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri*-ko sarrera.
- Schirmunski, V., 1930, “Sprachgeschichte und Siedlungsmundarten”, in *Germanisch-Romanische Monatsschrift* 18, 171-88.
- Shuy, R. W. (arg.), 1964, *Social dialects and language learning*. Champaign, III.
- Stewart, W. A. (arg.), 1964, *Non-standard speech and the teaching of English*. Washington, D. C.
- Torrealdai, J. M., 1978, “1967-1977: liburuak eta batasuna”, in *EUSKERA* 1978-2, 503-522.
- Trudgill, P., 1975, *Accent, dialect and school*. London: Edward Arnold.
- Ugalde, M., 1978, “Idazleei egindako galderek izan duten erantzunen azterketa laburra”, in *EUSKERA* 1978-2, 481-501.
- Van de Craen, P., 1977, Invloed van dialect bij leesmoelijkheden, in *Handelingen van het XXXI^e Vlaams Filologencongres*, Brussels 67-73.
- Van de Craen, P. eta R. Willemyns (arg.), 1985, *Standaardtaal & Dialekt op school, thuis en elders*. Brussels.
- Verbruggen, M., *et al.*, 1985, “Dialect in de klas”, in Van de Craen, P. eta R. Willemyns (arg.) 1985, 107-28.

- Villasante, Fr. L., 1974, *Palabras Vascas, compuestas y derivadas*. Oñati: Editorial Aranzazu.
- , 1979, *Historia de la Literatura Vasca*, 2. argit. Oñati: Editorial Aranzazu.
- Viñao, A., 1997, “Aprender a leer en el Antiguo Régimen: cartillas, silabarios y catones” in Escolano, A. (ed.): *Historia Ilustrada del Libro Escolar en España. Del Antiguo Régimen a la Segunda República*. Madrid, Fundación Germán Sánchez Ruipérez. 149-192.
- Weinreich, U., 1953, *Languages in contact. Findings and problems*. New York: The Linguistic Circle of New York.
- Zalbide, M., 1990, “Euskal Eskola, asmo zahar bide berri”, in *Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua* (1, 211-271). Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- , 1993, “Zientzi hizkuntza irakaskuntzan: euskara teknikoaren izaeraz, iturburuaz eta egungo erabilmoduaz”, in *Euskal Ikaskuntzak Hezkuntza Sarean. XII Congreso de Estudios Vascos, 281-90*. Gasteiz: Eusko Ikaskuntza.
- Zalbide, M. eta Muñoa, A., 2006, “Lardizabal eta bere euskal gramatika, perspektiba soziolinguistikoan”, in Lardizabalen *Gramática Vascongada*. 1856koaren berrargitalpen osatua, 37-261.
- Zarate, M., 1978, “Euskara batua ta euskalkiak”, in *EUSKERA* 1978-2, 557-577.
- Zehetner, L. G., 1977, *Bairisch*. Dialekt/Hochsprache-Kontrastiv. Sprachhefte für den Deutschunterricht, (H. 2). Düsseldorf.
- Zuazo, K., 1988, *Euskararen batasuna*. Iker-5. Bilbo: Euskaltzaindia.
- , 2000, *Euskararen sendabelarrak*. Irun: Alberdania.
- , 2001, “Ohar zenbait euskara normaltze aldera”, in *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 40. zkia.